


Ikerketa

Hezkuntza-Premia Bereziak Lehen Hezkuntzan Euskal Sistemaren erantzuna

2005eko abendua



ISEI·IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

www.isei-ivei.net

EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SALA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN





ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Edizioa: 2006eko martxoa

© ISEI•IVEI

ISEI•IVEI

Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias, 9 - 3. - 48015 Bilbao
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

IKERKETAREN EGILEAK:

Amaia Arregi Martínez
Alicia Sainz Martínez
Inmaculada Tambo Hernández
Joserra Ugarriza Ocerin

AHOLKULARITZA TEKNIKOA:

Eduardo Ubieta Muñuzuri

DISEINUA:

Onoff Imagen y Comunicación / www.eonoff.com

Ikerketa

Hezkuntza-Premia Bereziak
Lehen Hezkuntzan
Euskal Sistemaren erantzuna

2005eko abendua

Sarrera	5
Oinarri teorikoa	9
HPBei buruzko lege-garapena EAEn	13
Ikerketaren helburuak	14
Sintesia eta hobetze-proposamenak	15
Azterketa kualitatiboa	21
Azterketa deskriptiboa	33
A. PROFESIONALEN, IKASTETXEEN ETA FAMILIEN EZAUGARRIAK	35
I. HPB dituzten ikasleei arreta ematen dieten profesionalen profila	35
II. HPB dituzten ikasledun Lehen Hezkuntzako ikastetxeen profila	40
III. CNE duten ikasleen familien profila	45
B. HEZKUNTZA-ERANTZUNAREN AZTERKETA	50
I. Ikastetxeak: hezkuntza-erantzuna antolatzeko planteamenduak	51
II. Profesionalak: hezkuntza-erantzunaren azterketa	56
1. CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasleen tutoreek garatutako hezkuntza-jarduerak	56
2. Laguntzako profesionalak garatutako hezkuntza-jarduerak	61
3. Arreta jasotzen duten ikasleak eta laguntzeko moduak	68
III. Curriculum Norbanakoari Egokitzearen (CNE) azterketa, hezkuntza-erantzunaren estrategia gisa	75
Eranskinak	89
1. Ikerketaren ezaugarriak	91
2. Terminoen glosategia	94
3. HPBei buruzko araudia EAEn	97
4. Bibliografia	98

SARRERA

1

SARRERA

Hezkuntza Premia Bereziak (HPB) dituzten haurren arretak aldaketa garrantzitsuak izan ditu azken hamarkadetan, eta hezkuntzari eragiten dioten hipotesi teorikoetan izan diren aldaketek eragin dute hori.

EAEn, gizarte-integrazioaren filosofia bat onartu zen, eta horrek aldaketa erabakigarriak ekarri zizkion hezkuntzari. EAerako Hezkuntza Bereziko Plana¹ lanean esplizitatzen dira aldaketak, eta helburua hezkuntza-erantzunaren normal-kuntza-, sektorizazio- eta indibidualizazio-printzipioak praktikan jartzea da. Ez da hezkuntza-sistema paralelorik egongo (hau da, bat ikasle arruntarentzat eta beste bat ezgaitasunen bat duen ikaslearentzat), hezkuntza-sistema bakarra eta ikasle bakoitzaren ezaugarrietara egokitu behar diren baterako ikasgaiak baizik.

M. Warnock² filosofoak barneratutako Hezkuntza Premia Bereziak kontzeptuak aldaketa teoriko handia ekarri zuen ezgaitasuna ulertzeko moduan, baita hezkuntzatik horri erantzuteko moduan ere. Zailtasunek jatorri elkarreragilea eta izaera erlatiboa dutela ulertzen da, ezgaitasunaren berezko baldintzen mende ez ezik, kanpotiko baldintzen (esaterako, ingurua, eragiten duen estimulazioa, eskuragarri dauden baliabideak, etab.) mende ere badaudelako. Esperientziaren balorazioa nahiz ikusmolde berri horretan oinarritutako hezkuntza-proposamenak "Eskola muinbakar eta integratzailea"³ txostenean jaso ziran.

Eskola inklusiboa da, egun, ikasleen aniztasunaren trataera bideratzeko erreferentziatzeko esparru teorikoa. Filosofia horretan oinarrituta, ikasleen ikasketa-prozesua ikastetxean bertan egotearen ondorioa da. Eskola inklusiboaren korronea kontzeptuzko hiru zutabetan oinarritzen da. Lehena, arlo horretan nagusitzen zen ikuspegi klinikoa gainditzen duen ikaskuntza-zailtasunen dimentsio soziala da. Bigarrena "ikaskuntzarako eta parte hartzeko oztopoak" da; hortik hezkuntza-dimentsio bat ateratzen da, eta eskola-ibilbidean ikasle jakin batzuek aurki ditzaketan oztopoak gainditzea du helburu. Eta hirugarrena laguntza-kontzeptuari dagokio; horrek ikuspegi oso espezializatua gainditzen du, eta laguntzan sartzen ditu testuinguru arrunteko esku-hartzea eta ikastetxeko eta komunitateko langile guztien lankidetzara, baita kideena beraiena ere.

Hezkuntzako esku-hartzea arautzen duen legedia egokitu egin da aldaketa horietara eta HPB dituzten ikasleei erantzuteko moduetara. Indarrean dagoen Dekretuak⁴ hezkuntzaren normalizazio-, integrazio- eta muinbakartasun-oinarriak jaso, eta eskola inklusibo baten oinarriak finkatzen ditu; eskola inklusiboaren helburua ikasle guztiei eta bakoitzari egoki erantzutea da. Horrela, bada, irakasleen eta ikastetxeen beraien funtzio berria sustatzen da: barne-koherentzia duten proiektuak egin behar dituzte, ikasleen garapen orokorrari erantzuteko, eta ikasle bakoitzaren beharrak ere izan behar ditu kontuan.

Eskola inklusiboa garatzeko, testuinguru arruntaren funtzionamenduan inplikatu behar dira hezkuntza-sistemaren baliabideak. Hori dela-eta, HPB dituzten ikasleen laguntzako irakasleei ezarritako funtzioak, neurri handi batean, ikastetxeko irakasleekiko eta tutoreekiko lankidetzara bideratu behar dira: irakaskuntza ikaslearen beharretara egokitze-ko aholkuak eman behar zaizkie, eta ikasgelako ohiko ingurutik erantzun behar zaizkie.

Eskola inklusiboa bertan batzen diren hezkuntza-eragile guztien parte-hartzearen bidez eraikitzen da. Hori dela-eta, Curriculum Norbanakoari Egokitzea behar duten ikasleen familiekin lotutako azterketa-elementuak sartu dira ikerketa honetan. Ildo horretan, eskolako testuinguruaren eta tutoreen azterketa-elementuak ere sartu dira, Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan HPB dituzten ikasleei zer hezkuntza-erantzun ematen zaien eta baliabideak nola artikulatzen diren baloratzeko.

(1) EAerako Hezkuntza Bereziko Plana. 1983. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza eta Kultura Saila. Argitalpen Zerbitzua. Gasteiz.

(2) M. Warnock. 1981. "Informe sobre Necesidades Educativas Especiales" in Siglo 0: 130. zk. Uztaila-Abuztua. 1990.

(3) Hezkuntza bereziko batzordearen "Eskola muinbakar eta integratzailea" 1989. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.

(4) 118/1998 Dekretua, ekainaren 23koa, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duena.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, HPB dituzten ikasleekin laguntzako irakasleen funtzioei buruzko ikerketak eta esku-hartzea —HPB dituzten ikasleen arretarako zereginak eta funtzioak— aztertuz gero, baliabideen egoera errealari eta HPB dituzten ikasleek jasotzen duten arreta-motari buruzko informazioa lortuko dugu. Ildo horretan, elementu kualitatiboak eta orientazioak emango dizkigu, sistemaren baliabideak ahalik hobekien aprobetxatzeko, eta hezkuntza-erantzunaren kalitatea hobetzeko.

Oinarri teorikoa

Edozein ikerketa egiteko, egokitze-prozesua neurtzeko erabiliko diren oinarri teoriko batzuk definitu behar dira. HPBen azpisistemaren kasuan, hezkuntza-sisteman egiten diren esku-hartzeak alderatzeko helburu-joeratzat hartzen dira oinarri horiek, baita lortutako helburuak kokatzeko ere.

Hauek dira, HPB dituzten ikasleen arretari dagokionez, Euskal Hezkuntza Sistemaren egoera aztertzeko eta joerak behatzeko erreferente gisa erabiltzen diren esparru teorikoak eta legegintza-esparruak:

I. Eskola muinbakar eta integratzailea

Ikasle guztientzako eskola muinbakarraren eta integratzailearen filosofia hezkuntza-erantzunaren normalizazio-, sektorizazio- eta indibidualizazio-printzipioetan oinarritzen da. Hezkuntza-esparruan printzipio horien arabera jarduteko, beharrezko babesa eta zerbitzuak eman behar zaizkie HPB dituzten ikasleei; esaterako, curriculum egokituak, eta ahalik gutxien murrizten duen inguruan eskolatzeko aukera. Ikuspegi horrek aldaketa kualitatibo garrantzitsuak dakartza; esaterako, eredu kliniko batetik hezkuntza-eredura igaro behar izatea, ezgaitasuna hezkuntza-premia berezien terminoetan definitzeko; bereizitako heziketa bereziaren eredutik, ohiko hezkuntza-sistemara igaro behar izatea; eta curriculum-egokitzapenak sustatzea, subjektuaren erritmora eta beharretara egokitzeko.

II. Eskola inklusiboaren printzipioak

HPB dituzten ikasleen arrera bideratzeko erreferente bat heziketa inklusiboaren printzipioetatik dator. Eskola inklusiboaren kontzeptuak, praktikan, hau eskatzen du: premia bereziak dituzten ikasleengan soilik ardaztutako hezkuntza-erantzunaren ardatza eskola-testuinguru arruntera eramatea. Horrela, metodologia berezia eta espezializatua zuen heziketa berezia heziketa arruntera hurbiltzen da gero eta gehiago, eta irakasleak erronka berri baten aurrean jartzen ditu: eskola-errealitatera egokitzea, hezkuntza-premia desberdinak daudela kontuan izanik. Horrek guztiak eskola-egitura eta -antolaketa aldatzea eskatzen du, *Index for Inclusion*⁵ lanean agertzen den moduan. Aldaketa hiru 3 dimentsiotara bideratzen da:

- **Kultura inklusiboak sortzera**, erabakiak gidatzeko eta balio inklusiboak garatzeko. Balio inklusibo horiek irakasleek, ikasleek, familiek eta komunitateek izango dira. Gure hezkuntza-sisteman, ikastetxearen heziketa proiektuari dagokio.
- **Politika inklusiboak prestatzera**, ikaskuntza eta parte-hartzea hobetzeaz bat, eskolaren gaitasuna areagotzeko, ikasle guztien, eta, bereziki, zailtasun gehien dituenaren ikaskuntza eta parte-hartzea hobetzeko. Ikastetxearen Ikasketa Proiektuan zehazten da.
- **Praktika inklusiboa garatzera**, ikasle guztien parte-hartzea eragingo duten eskolako eta eskolaz kanpoko jarduerak bermatzen saiatzeko.


Oinarri orokor hauek definitzen ditu eskola inklusiboaren esparru teorikoak:

- **Ikasgela inklusiboak**. Ikasgela arruntak ikasle-aniztasuna biltzen du, eta hezkuntza-erantzunaren arretaren eta indibidualizazioaren oinarritzko unitatea da. Ikasle guztiek modu aktiboan parte hartzeko espazioa da, eta, bertan, eskuarki, berdinen arteko babesa izaten da. Ikasgela inklusiboak hezkuntza-beharren heterogeneotasunari erantzuteko antolatzen dira, eta hezkuntza-beharren mende egoten dira giza baliabideak eta baliabide materialak —testuinguru arruntean kokatuak—.
- **Curriculum zabala eta malgua**. Curriculuma ikasle bakoitzari egoki dakiok. Egokitzapenak hainbat arlotan egin

(5) Ainscow eta Booth: *Index for inclusion*. 2002. Centre for Studies on Inclusive Education (CSIE) Bristol, Erresuma Batua.

daitezke: proposatutako helburuetan, horietara iristeko alternatibetan, ikasketa-estrategietan, etab. Neurri-sorta handia dakar berarekin: maila anitzeko jarduera-proposamena, ikaskuntza-teknika kooperatiboak erabiltzea, epe laburreko helburuak zehaztea, ebaluazio jarraitua, desberdintasunak ulertzea sustatuko duten estrategiak, etab.

- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesu elkarregilea. Lana talde txikitan egitea errazten da, berdinaren arteko ikaskuntza erraztu eta ikasleen gaitasunak eta ahalmenak babesten dira.
- Irakasleentzako babesa. Ikasgela inklusibo bat zuzentzeko konpetentzia profesionala areagotzeko, irakasleen arteko (tutoreak, kontsultariak, laguntzako irakasleak, etab.) babes-sare naturalak bultzatzen dira. Horretaz gain, aniztasunarekin errespetuzkoak izango diren testuinguruetan, talde-laneko estrategiak, ikasteko formak eta irakasteko erak garatzeko prestakuntza azpimarratzen da.
- Familien partaidetza. Familien partaidetza eta lankidetzak, komunikazio onaren eta ikaskuntza-helburuen adostasunaren bidez. Familiak seme-alabari buruz emandako informazioa kontuan hartuz koordinatzen eta planifikatzen da.



III. Europar Batasunak hezkuntzari buruz emandako gomendioak

A. EURYDICE txostena, "Special Needs Education in Europe"⁶

"Hezkuntza-premia Bereziak Europan" dokumentua Hezkuntza Bereziaren Garapenerako Agentzia Europarrak egin zuen. Hiru kategoriatan sailkatzen ditu herrialdeak, politikaren eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak integratzeko hezkuntza-praktika handiagoen edo txikiagoen arabera.

Lehen kategorian ("alde bateko ikuspegia" ere deitzen zaio), ikasleen gehiengoa hezkuntza arruntean barneratzeko politika-jarduerak eta hezkuntza-praktikak garatzen dituzten herrialdeak daude. Formula hori eskola arruntera bideratutako zerbitzu-aniztasunen eta baliabide zentralizatuen sorreran oinarritzen da.

Bigarren kategorian (edo "zenbait aldetako ikuspegia"), ikaslearen barneraketari buruzko planteamendu ugari daude, eta zerbitzuak eta baliabideak sistema arruntetik nahiz hezkuntza bereziko ikastetxeetatik ematen dira.

(6) Special Needs Education in Europe. January 2003. Agentzia europarrak egin, EURYDICE Batasun Nazionalen laguntzaz.

Hirugarren kategorian (“*bi aldetako ikuspegia*”), bi hezkuntza-sistema daude. HPB dituzten ikasleak heziketa bereziko ikastetxeetan edo ikasgela berezietan eskolatu ohi dira. Ikasleek, eskuarki, ez diote curriculum arruntari jarraitzen, eta bi sistemak, askotan, legedi desberdinetan biltzen dira.

Azken hamarkadetako hezkuntza-ibilbideak lehen taldean kokatzen du Euskadi, HPB dituzten ikasleentzako hezkuntza-politika inklusiboak dituzten herrialdeen artean; talde horretan daude, esaterako, Danimarka, Italia, Espainia, Suedia eta Erresuma Batua. Azken urteetako legediak⁷ azal dezake ikastetxe berezietan (%0,2) eskolatutako HPB dituzten ikasleen ehuneko baxua, taula honetan agertzen denez.

	ALUMNADO EN ENSEÑANZA OBLIGATORIA	PORCENTAJE ALUMNADO CON NEE	PORCENTAJE ESCOLARIZACIÓN EN CENTROS ESPECÍFICOS	AÑO DE REFERENCIA
Alemania	9.159.068	5,3	4,6	2000/01
Austria	848.126	3,2	1,6	2000/01
Belgika (A) ^a	9.427	2,7	2,3	2000/01
Belgika (F) ^b	680.360	4	4	2000/01
Belgika (H) ^c	822.666	5	4,9	2000/01
Zipre	N/R	5,6	0,7	2000/01
Danimarka	670.000	11,9	1,5	2000/01
Eslovakia	762.111	4	3,4	2001/02
Eslovakia	189.342	4,7		2000
Espainia	4.541.489	3,7	0,4	1999/2000
Estonia	205.367	12,5	3,4	2000/01
EUSKADI	239.171	2,3	0,24	2003/04⁸
Finlandia	583.945	17,8	3,7	1999
Frantzia	9.709.000	3,1	2,6	1999/2000/01
Grezia	1.439.411	0,9	<0,5	1999/2000
Holanda	2.200.000	2,1	1,8	1999/2000/01
Hungaria	1.191.750	4,1	3,7	1999/2000
Irlanda	575.559	4,2	1,2	1999/2000
Islandia	42.320	15	0,9	2000/01
Italia	8.867.824	1,5	<0,5	2001
Letonia	294.607	3,7	3,6	2000/01
Liechtenstein	3.813	2,3	1,8	2001/02
Lituania	583.858	9,4	1,1	2001/02
Luxemburg	57.295	2,6 aprox.	1 aprox.	2001/02
Norvegia	601.826	5,6	0,5	2001
Polonia	4.410.516	3,5	2	2000/01
Portugal	1.365.830	5,8	<0,5	2000/01
Erresuma Batua	9.994.159	3,2	1,1	1999/2000
Txekiar Errep.	1.146.607	9,8	5	2000/01
Suedia	1.062.735	2	1,3	2001
Suitza ^d	807.101	6	6	1999/2000

Iturria: Hezkuntza Bereziaren Garapenerako Agentzia Europarra eta Eurydice sarea.

(8) Euskadiko datuak: Informe Necesidades y accesibilidad de las personas con discapacidad en la CAPV. (a) Alemaniako komunitatea. (b) Frantziako komunitatea. (c) Flandestar edo holandar komunitatea. (d) Estatistiketan ez dira bereizten integrazioan eta berariazko ikastetxeetan dauden HPB dituzten ikasleak.

(7) Hezkuntza-premia bereziari buruzko araudia Euskal Autonomi Erkidegoan. CEI-IDC. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1998.

(8) Haur Hezkuntzako ikasleak ere izan dira kontuan. Ez dira kontuan hartu HPB ez iraunkorrak dituztenak. Eustaten eta “Informe Necesidades y accesibilidad de las personas con discapacidad en la CAPV” laneko datuak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz 2004.

B. Kalitatearen adierazleak Europar Batasunean

“Educación y formación en Europa: sistemas diversos, objetivos compartidos para 2010”⁶ programan dauden Europar Batasuneko herrialdeek hezkuntza-helburu batzuk zehaztu dituzte. Batzuek espreski egiten diete erreferentzia HPB dituzten ikasleei. Hauek dira batzuk:

- *1.2 helburua*: ikasle guztiek, egiaz, oinarritzko gaitasunetara sartzeko aukera izango dutela bermatzea, baita ikasle hauek ere: gizarte-egoera ahuleko ikasleak, behar bereziak dituztenak, eskola-sistema goiz uzten dutenak eta ikasle helduak.
- *2.3 helburua*: Hiritartasun aktiboa, aukera-berdintasuna eta gizarte-kohesioa sustatzea. Adierazleak:
 - Ikasleen, gurasoen eta eskola-kudeaketan interesatutako gainerako guztien parte-hartzea.
 - Gizarte-egoera kaltetuko taldeen prestakuntza, hezkuntzarako sarbidea eta integrazio-ereduak sustatzea.

Horretaz gain, eskola-hezkuntzaren kalitateari buruzko zenbait adierazle definitzen dira, Europako hezkuntza-sistemak ebaluatzeko (Europar Batasunaren Jarduera. Legediaren sintesia). HPB dituzten ikasleen hezkuntza-erantzunean eragiten dutenak soilik aipatzen dira, gainerako guztiak aipatu daitezkeen arren, ohiko hezkuntza-sisteman dagoela kontuan izanik.

- Gurasoen parte-hartzea. Gurasoek ematen duten balio erantsiari eta ekarpenok erabilgarrienak diren egoerei dago-kienez.
- Irakasleen hasierako eta etengabeko hezkuntza eta prestakuntza.

C. Hezkuntza eta Prestakuntza 2010: Etengabeko ikaskuntzarako kompetentzia giltzarriak¹⁰.

Programa horretan, gizarte batek ongi funtzionatzeko ezinbesteko kompetentziak definitzen eta aukeratzen dira. Kompetentzia horiek norbanako guztiek lortu beharreko hezkuntza-helburu gisa planteatzen dira. Honela definitzen dira:

Kompetentzia giltzarriak norbanako guztiek errealizazio eta garapen pertsonalerako, eta gizartean eta lan-munduan barnerratzeko behar dituzten ezagutzen, gaitasunen eta jarrerren multzo funtzio-aniztuna eta besterengarria dira. Kompetentzia horiek garatuta egon beharko lukete derrigorrezko hezkuntza edo prestakuntza amaitzean, eta etorkizuneko etengabeko ikaskuntzaren oinarri izan beharko lukete.

Programa horren ezarpena —kompetentzia giltzarriek jabetzea— hainbat heziketa-testuingurutan proposatzen da, eta, besteak beste, HPB dituzten ikasleei buruzkoa zehazten da:

- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako hezkuntza-horniketa. Onartzen da ikasle guztiek ezingo dituztela kompetentzia horiek guztiak bereganatu, baina, nolabait, kompetentzia giltzarri horietara hurbiltzen diren ahalik ikaskuntza-helburu gehien lortzeko hezkuntza-horniketa izateko eskubidea dute. Horrek adierazten duena da HPB dituzten ikasleek egoki bereizitako eta banakako ikaskuntza-programak jasotzeko aukera izan beharko luketela, kompetentzia horiek jabetu ahal izateko.

(9) Europako Batzordea. Hezkuntza eta kulturako zuzendaritza nagusia. 2004ko azaroa. Educación y Formación en Europa: sistemas diversos, objetivos compartidos para 2010.

(10) Educación y Formación en Europa: sistemas diversos, objetivos compartidos para 2010. Europako Batzordea. Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza Nagusia. Europar Komunitateak. 2002

HPBei buruzko lege-garapena Euskadin

Hezkuntza-sistema bat hezkuntzaren esparru teorikoaren aurrerapenetara eta gizartearen eskaeretara nola egokitzen den jakiteko modu bat hezkuntzako legeak emateko gaitasuna aztertzea da. Ildo horretan, oso garrantzitsua izan da Euskadin, azken urteotan, HPB dituzten ikasleen legediaren garapena. Araudiari esker, paradigma teoriko eraginkorren bilakaerara egokitu ahal izan da hezkuntza-sistema, eta profesionalen esku-hartzea bideratu du ikastetxeetan, HPB dituzten ikasleei dagokienez.

Gizarteratzearen filosofia onartzeak legeak aldatzea eskatzen du, eta helburua hezkuntza-erantzunaren normalizazio-, sektorizazio- eta indibidualizazio-printzipioak praktikara eramatea da. Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Bereziko Planak (1982)¹¹ aldaketa garrantzitsuak planteatzen zituen ordu arteko hezkuntza bereziaren zerbitzuen filosofian eta egituran. Erreferentzia-puntua eskola arrunta da, eta horren inguruan sortu da ikasle guztien integrazioari laguntzeko baliabideen oinarritzko azpiegitura. Ez da hezkuntza-sistema paralelorik egongo (hau da, bat ikasle arruntarentzat eta beste bat ezgaitasunen bat duen ikaslearentzat), hezkuntza-sistema bakarra eta ikasle bakoitzaren ezau-garrietara egokitu behar diren baterako ikasgaiak baizik. Horrekiko koherentzian, ezgaitasunak dituztenen eskolatzea ahalik gutxien murrizten duen hezkuntza-inguruan egin behar dela ezartzen du legeak.

1987an, Heziketa Bereziko Batzordea sortu zen, garatutako planaren esperientzia balioesteko, eta *“Eskola muinbakar eta integratzailea”*¹² txostena egin zuen. Hezkuntza-jardueraren arauari buruzko hausnarketa, proposamenak eta gomendioak jaso zituen txostenean. *Informe Warnock* (1981) lanaren filosofian oinarritu zen txostena; lan horretan jasotzen da, lehen aldiz, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak terminoa; horrek kontzeptuzko aldaketa ekarri zuen ordura arte heziketa berezi moduan ulertzen zenaren esparruan.

EAEko legediak¹³ hezkuntza-premia iraunkorrak eta aldi baterakoak bereizten ditu. Bost hezkuntza-premia iraunkor definitzen ditu: adimen-ezgaitasunak edo/eta garapenaren nahaste orokortuak, gorreriak eta entzuteko urritasunak, ikusteko urritasunak, mugitzeko urritasunak eta garun-paralisiak, eta goi mailako gaitasun intelektualak eragindakoak¹⁴. Hauek dira aldi baterakoak: gizarte- edo kultura-egoera ahulek eragindakoak, eskola-moldegabezia larria, epe luzeko ospitaleratzea eta gaixotasuna, ikasketa-maila motelak eta ikaskuntza-zailtasun garrantzitsuak, eta inteligenzia-maila motelak eragindakoak. Europako herrialde gehienek 6 eta 10 hezkuntza-premia berezi bereizten dituzte.

Europako herrialde gehienetan, termino hauetan deskribatzen dituzte ezgaitasunak: sortzen dituen hezkuntza-premien eta horri modu egokian erantzuteko behar dituen zerbitzuen eta babesen terminoetan. Arlo hori da EAEko araudiak jasotzen duen arloetako bat, hasierako ebaluazioan hautemandako beharren arabera neurriak definitzen dituen berariazko arautegia garatu baita. Arau berezi horien artean jasotzen dira sarrerako curriculum-egokitzapenak eta Curriculum Norbanakoari Egokitze garrantzitsuak¹⁵; curriculum horien erreferentzia curriculum arrunta da.

Curriculum Norbanakoari Egokitzea, HPB dituzten ikasleen ikastetxeen eta profesionalen hezkuntzako esku-hartzea antolatzen duen ardatz bat da. Legediak norbanakoari egokitutako dokumentua egiteko modua arautzen du: hasierako ebaluazioan hautemandako beharretara egokitutako ikaskuntza-helburuak definitzen dira, garapenerako behar-

(11) Plan hori Hezkuntza Sailaren 1982ko irailaren 2ko Aginduan zehazten da. Agindu horrek hezkuntza bereziko irakaskuntzak arautzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoan.

(12) Heziketa bereziko batzordearen txostena: *“Eskola muinbakar eta integratzailea”*, 1989. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.

(13) 118/1998 DEKRETUA ekainaren 23koa, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duena.

(14) ERABAKIA, 1998ko uztailaren 24koa, Hezkuntza Sailordetzarena, aparteko gaitasunak edukitzeagatik heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzuna nondik nora bideratu arautzen duena.

(15) AGINDUA, 1998ko uztailaren 24koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat hurrengo hauek arautzen dituena: alde batetik, curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabariaren baimena eta, bestetik, ez-unibertsitatekoa den hezkuntza-sistemaren etapetan egokitzapen horiek egiteko, garatze-ko eta ebaluatze-ko prozedura.

ko diren baliabideak zehazten dira, baita helburuen lorpena ebaluatzeko moduak ere. Horretaz gain, familiak izan behar duen parte-hartzea arautzen du, eta seme-alabentzako ikastetxea aukeratzeko eskubidea onartzen zaie, beharrezko baliabideak emanez.

Lege-aurrerapena ikaragarria da, integrazioari dagokionez. Heziketa bereziko ikastetxe espezifikoak baliabide-zentro bihurtzea (egungo joera, Europako zenbait herritan) EAEn jada gauzatuta dagoen ibilbidea da. Talde mutiprofesionalk sortuta ekindako baliabide-sarea garatu da eta, orain, HPB dituztenentzako aholkulariak ditu hezkuntza-sistema orokorrari laguntza emateko egituran; esaterako, eskualdeko Berritzeguneak.

Ikastetxeei barneko baliabideak eman zaizkie —giza baliabideak eta baliabide materialak— irakasleen eraginkortasuna hobetzeko, eta ematen duen hezkuntza-erantzunaren kalitatea hobetzeko gaitasuna azpimarratzen da, ikasle guztiak asebetetzen dituen ikastetxea ikastetxe eraginkorra den ustean oinarrituta.

Ikerketaren helburuak

Ikerketa honen helburu nagusia Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan eskolatuta dauden HPB dituzten ikasleei Euskadiko Hezkuntza Sistemak ematen dien erantzun-mota aztertzea da.

Berriazko helburuak:

1. Lagineko Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, Curriculum Norbanakoari Egokituta (CNE) duten ikasleen eta HPB dituzten ikasleen hezkuntza-egoera ezagutzea.
2. Ikastetxeetako profesionalak CNE eta HPB dituzten ikasleei erantzuteko zer hezkuntza-estrategia erabiltzen dituzten deskribatzea.
3. Ikastetxeen eta CNE duten ikasleen familien artean zer harreman ezartzen diren ezagutzea.
4. Familiak emandako hezkuntza-erantzunaz zer asebetetze-maila duten balioestea.
5. CNE eta beste HPB dituzten ikasleekin tutoreek eta laguntzako irakasleek gauzatzen dituzten esku-hartzeen egokitasuna balioestea, erreferentzia gisa eskola inklusiboaren adierazle jakin batzuk hartuta.

Helburu horiek hiru arlotan zehazten dira:

- Elkarretxe osotasunean, ikasle horri erantzuteko funtzionamendua eta antolaketa.
- HPB dituzten ikasleei erantzuten dieten profesionalak, bereziki, ikastetxeetan CNE duten ikasleen tutoreak eta horietara atxikitako laguntzako profesionalak: pedagogia terapeutikoko (PT) irakasleak eta irakasle kontsultariak. Profesional horien funtzioak erreferentzia gisa hartuta, testuinguru arruntean nahiz laguntzako berriazko espazioetan garatzen dituzten zereginak aztertu nahi dira, baita CNE eta HPB dituzten ikasleen arretari ematen dizkioten erantzunak ere.
- Familia-arloa da hirugarren arreta-gunea, ikastetxearekin nola parte hartzen duen eta ikasleen eskolatzearikiko asebetetze-maila zein den ezagutzeko.

IKERKETAREN SINTESIA ETA
HOBETZE-PROPOSAMENAK

1

EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMAK LEHEN HEZKUNTZAN HPB DITUZTENEI EMATEN DIEN ERANTZUNAREN EZAUGARRIAK

- Legedia propioa ari da garatzen eta, horren bidez, hezkuntza-premia bereziei buruzko kontzeptuzko aurrerapen-
tara egoki daiteke hezkuntza-praktika.
- Ebaluazio eta diagnostiko psikopedagogikoen irizpideak homogeneousatzeko, baterako kode bat erabiltzen da:
"Hezkuntza Premia Berezien Kodea"¹¹. Kode horrek erabakiak hartzeko eta baliabideak kudeatzeko informazio era-
bilgarria sintetizatzen laguntzen dio sistemari.
- Hezkuntzaren esku-hartze goiztiarraz hitz egin daiteke, CNE duten ikasle gehienak bi edo hiru urterekin eskolatu
baitziren, eta beharrezko baliabideak zituzten.
- CNE duten ikasleei eskolatzeko-hizkuntza eman ohi zaie banakako laguntza.
- Ikastetxe gehienek ikastetxearen dokumentuetan biltzen eta zehazten dituzte HPB dituzten ikasleentzako arretaren
lehentasunak. Ikastetxearen antolaketan, hezkuntza-erantzuna emateko beharrak ezagutzen eta erabakiak forma-
lizatzen dira.
- Ikastetxe gehienek pedagogia terapeutikoko irakasle bat dute, gutxienez, HPB dituzten ikasleen arretarako.
Horretaz gain, titulartasun publikodun ikastetxe gehienek ikastetxeko irakasle kontsultaria ere badute Lehen
Hezkuntzan.
- HPB dituzten ikasleen eskolatzeko antzekoa da ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan; hala ere, CNE duten ikasle-
ak giza baliabide ugari dituzten ikastetxe jakinetan pilatu ohi dira.
- Ikastetxe guztiek, kanpoko laguntza-baliabide gisa, HPB dituztenentzako aholkularia baten erreferentzia dute; ahol-
kulari hori eskualdeko Berritzegunean egoten da.
- Laguntzako profesionalak prestakuntza- eta espezializazio-maila handia dute. Azken hiru urteotan, prestakuntza-
gaiak aldatu egin dira, ezgaitasunei buruzko prestakuntza espezializatutik, aniztasunaren trataeraren barruan HPB
buruzko prestakuntza orokorragora bideratzeko joera izan da. Eskualdeko Berritzeguneek zeregin garrantzitsua
betetzen dute prestakuntza-jardueren kudeaketari eta antolaketari dagokionez.
- Garatutako prestakuntza-motak eragin handiagoa du norbanakoaren ezagutzaren eguneratzean eta garapenean,
ikastetxe berean lankidetzan aritzen diren profesional-taldeentzako prestakuntzan baino.
- Laguntzako profesionalak denbora gehiago ematen dute ikasgela arruntetik kanpo, ikasgela barruan baino.
Profesional horien esku-hartzea ikaslearen banakako arretara bideratzen da, ikasgelako esku-hartze osorako gai
orokorrei buruzko tutoreentzako aholkularitzara baino areago.
- Ikasgela arruntean CNE duen ikasle bat izatea ez da faktore determinatzailea tutoreek metodologia aldatzeko. Ez
du eskatzen irakasmodua, ikasgelako antolaketa edo maila anitzeko jardueren aurkezpena aldatzeko. CNE, eskuar-
ki, ikasgelako programazio orokorraren paraleloa izan ohi da.
- Tutoreek eskaera berak egiten dizkiete PTko irakasleei nahiz irakasle kontsultariei; beraz, antzeko zereginak bete-
tzen dituzte. Hala ere, PTko irakasleek, ikasleengandik gertuen daudenak garatzen dituzte, nagusiki; bigarrenak,
berriz, irakasleentzako aholkularitzara lotuago dauden zereginetara jo ohi dute.
- Curriculum Norbanakoari Egokitze prozesua tutorearen eta laguntzako irakaslearen arteko lankidetzaren bidez
gauzatzen da. Gehienek ustez, CNE neurri erabilgarria da ikasleen hezkuntza-premiei erantzuteko.

(16) Hezkuntza-premia bereziak diagnostikatzeko kodeak. Ikus 2. eranskina: Terminoen glosarioa.

- Familien ehuneko oso altuak garrantzi handia ematen die, bereziki, seme-alaben ebaluazioari buruzko elkarrizketa pertsonalei, eta ikasgelan berdinekin hobeto integratu ahal izateko, seme-alaben berariazko ezaugarriei buruzko informazioa emateko elkarrizketa orokorre.
- Familia gehienen ustez, giza baliabideak nahiz baliabide teknikoak egokiak eta nahikoak dira. Tutore gehienen ustez, egokiak dira, baina ez behar adinakoak.
- Familiek CNE duten seme-alaben eskolatzeari buruz duten asebetetze-maila oso altua da.

EGOERARI BURUZKO HAUSNARKETA

HPB dituzten ikasleen hezkuntza-erantzuna hezkuntza-sistema arruntean barneratuta dago, eta berariazko baliabide egokiak ditu, bai pertsonalak, bai materialak. Gizarteratzearen helburua lortuta dagoela esan daiteke, neurri handi batean, nahiz eta irakaskuntzaz kanpoko espazioetara ere hedatu behar den. HPBei buruzko hainbat alderdiren arauak erantzunaren antolaketa eta ikastetxe barruko nahiz kanpoko baliabideen horniketa arautu du.

Desberdintasun garrantzitsuak daude, lurraldeen artean, Hezkuntza Premia Bereziak dituzten biztanleria-kopuruaren hausnarketari dagokionez; ziur asko, bakoitzak “Hezkuntza Premia Berezien Kodea” interpretatzeko duen moduak eragiten du hori.

Integrazio-prozesuaren hasieran, ikasle oro ahalik inguru normalizatuenean —ikastetxe arrunta— hezteko helburua ezarri zen; lortuta dagoela esan badaiteke ere, garatu egin behar da, oraindik, eskola inklusiboaren planteamenduetarantz. Horren arabera, ikasle orori ikasgela arruntean berak ere osatzen duen aniztasunaren testuingurutik eman behar zaio hezkuntza-erantzuna.

Urriak dira, oraindik, ikasgela arruntean HPB dituen ikaslea egoteak eragiten dituen aldaketak. CNE ikasgelako programazioaren programa paraleloa da; kasu askotan, tutorea ez den irakasleak garatzen du, neurri handi batean. Edozein kasutan, aurrerapen garrantzitsua izan da, egokitzapena, zati batean, ikasgela arruntean egiten delako, eta ez, osorik, laguntza gelan.

CNE duten ikasleei laguntzako profesionalak ematen diete, batez ere, banakako arreta. Profesional horiek, espezialista-prestakuntza duten aldetik, ikaskuntza-beharrei erantzuten zaiela bermatzen dute. Baina, ikastetxeek helburu nagusi hau bultzatu eta ezarri beharko lukete: erantzun hori lotuago egotea ikasgelako jarduera arruntari; hau da, ikasgela arrunteko programazioan sartu beharko litzateke ikasle batentzat prestatutako CNE, baita aniztasunaren traerarako beste dimentsio batzuk ere.

Eskola inklusiboari bide emango dioten hezkuntza-politikak garatzeko, beharrezkoa da irakasleen prestakuntzaren funtzioa onartzea. Prestakuntza hori gero eta inklusiboagoak diren ikastetxeen funtzionamendua erraztera bideratzen da, eta ikastetxe bereko profesionalen esperientzietatik eta ezagutzetatik abiatuz gara daiteke.

HOBETZE-IRADOKIZUNAK

1. Tutoreentzako aholkularitza areagotzea. Ekintzan oinarritutako prestakuntza ikastetxean

Tutoreak ikasgelako ikasle guztien arduradun sentitzen dira, baita hezkuntza-premia bereziak dituztenena ere; hala ere, tutoreek adierazten dutenez, ikasgela arruntean CNEk bere lekua izateko zailtasun handiena ikasgelaren antolaketan bertan dago, aniztasunaren trataerari bide eman behar baitio.

Horretarako, beharrezkoa da puntu hauei buruzko aholkularitza eta prestakuntza ematea:

- Ikasgelan, taldeko banakoen beharren tratamenduari bide emango dioten praktika inklusiboak garatzen laguntzea tutoreei.
- Ekintzan oinarritutako prestakuntza-mota bat antolatzea ikastetxeetan bertan, aniztasunaren trataera ere lantzeko HPBei lotuta dagoenean ere; profesionalen arteko lankidetzan oinarrituko da.
- Ekintzan oinarritutako prestakuntzara bideratutako aholkularitza sustatzea ikastetxean.
- Prestakuntza-egitura egonkorrak sortzea ikastetxeetan, lan-mintegien modukoak. Ikastetxe bakoitzak dagokion prestakuntza-ibilbide egokiena antolatzeko aukera izan beharko luke. Lan horren buru ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek izan beharko lukete, eta, prozesuaren fase bakoitzean, beharrezko aholkularitza eta laguntzak izan beharko lituzkete.
- Ikastetxearen ekintzan oinarritutako prestakuntzak ikasgelaren behaketan oinarritutako alderdiak jaso ditzake, hezkuntza-praktiken baterako hausnarketarako eta azterketarako baliagarriak izango liritekeenak: eguneroko jardueran sustatzen diren balioak, ikasgelan ikasle guztiei parte hartzeko aukera ematen dieten hezkuntza-praktika garatuak, hobetzeko aukera zer baliabidek ematen duen, banakoaren arretari bide ematen dioten antolaketak-ereduak, erantzun posibleen mailak bideratu dituzten planteatutako jardueren ezaugarriak, zer antolaketak motak errazten duen berdinaren arteko ikaskuntza, nola errazten den ikaskuntza kooperatiboa edo lehiakorra, etab.

2. Orientazio inklusiboari bide emango dioten ikastetxearen proiektu orokorrak sustatzea

Ikastetxeak ikastetxearen proiektu orokorretan parte hartzera bultzatzeko neurriei bide ematea; proiektu horien helburua gero eta sistema inklusiboagoa lortzea izango da. Ildo horretan, erantzun inklusibo bermatu beharko litzaiteke ikastetxearen jarduera eta espazio guztietan; hau da, irakaskuntzako nahiz irakaskuntzaz kanpoko jardueretan eta espazioetan.

3. HPB identifikatzeko irizpideen interpretazioa bateratzea

Lurraldeen arabera azterketan, HPB dituzten subjektuak definitzeko desberdintasunak hautematen dira. Hauek izan daitezke horren eragileak: praktikan, diagnostikorako irizpideak interpretatzeko batasun falta, edo baliabideak lortzera bideratutako interpretazioak. Edozein kasutan, eta egoki irizten diren lurralde desberdintasunak errespetatuz, berrikusi beharreko alderdia da hori, ikasleentzako onurak edo kalteak ez duelako eskolatutako lurraldearen arabera izan behar, eta ez delako diagnostikoa baliabideak lortzeko bortxatu behar.

4. Familiek edo legezko ordezkariak CNE egingo den proposamena ezagutzea bermatzea, eta haien parte-hartzea sustatzea.

Familia gehienek seme-alabarentzako CNEren berri eman zaiela adierazten dute; hala ere, horren garrantzia dela-eta, beharrezkoa da informazioa familia guztiengana iristen dela bermatzea, eta jasota geratzea, gainera, familiek seme-alaben egokitzapenaren proposamenari buruz duten ezagutza.

Familiek ere parte hartu behar dute erabakiak hartzeko prozesuetan, informatuta egon behar dute, eta CNE bat prestatzeko arrazoiak eta horren onurak ezagutu behar dituzte. Jarraipenean parte hartu behar dute, bizitzaren beste dimentsio batzuetako elementuak barneratu ahal izateko; kasu askotan, gainera, zerikusia dute ikastetxearen programarekin.

5. Sistemaren baliabideak ebaluatzea, eta HPB dituzten ikasleei ematen zaien erantzuna ikertzea

Sistemaren baliabideak ebaluatzeko prozesuak egitea, haien eraginkortasuna hobetzeko, Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleei dagokienez.

HPB dituzten ikasleei ematen zaizkien hezkuntza-erantzunen ereduak ikertzea.

6. Praktika onak zabaltzea

Sistematikoki jasotzea eta irakasleen artean zabaltzea ikastetxeetan gauzatzen diren hezkuntza-praktika on inklusiboen esperientziak.

AZTERKETA KUALITATIBOA

2

AZTERKETA KUALITATIBOA

Azken urteotan, Hezkuntza Premia Berezien erantzunaren hezkuntza-esperientzian eta bilakaera teorikoan izandako aurrerapenek kontzeptu-aldaketa eragin dute: ezgaitasun jakinak dituzten ikasleentzako berezitateko eskolak utzi, eta eskola inklusiboaren bidea irekitzen ari da egun, zailtasunak zailtasun. Eskola-mota horretan, ikasgelan bertan dute erantzuna ikasleek dakartzaten aniztasunek, egoera pertsonalek, sozialek, eta abarrek sortutako beharrei egokitutako baliabideen bidez.

“Eskola inklusiboa” terminoak aldaketa-prozesu bati egiten dio erreferentzia. Prozesu horretan, eboluzionatu egiten dira ikastetxeak, bertara joaten diren ikasleen aniztasunaren erantzuna egokitzeko. Baina bada beste interpretazio-modurik ere: “hezkuntza orokorrean, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen parte-hartzea eta ikaskuntza errazteko moduak garatzeko prozesua”, “inklusioa ez da asimilazioa, ez da desberdintasuna eskolako kultura menderatzailean integartzeko edo desegiteko ekintza”¹². Hezkuntza inklusiboa konplexua da, eta aldaketa dakar, ez soilik metodologian, baita hezkuntza-sistemen eta ikastetxeen egituran, antolaketan eta funtzionamenduan ere. “...iruzurra da ikasle guztien ikaskuntza-mailan eta aurrerapenean aldaketa sakonen zain egotea, horretarako bidea irekiko duten ikastetxerik izan gabe; ikastetxe horiek hezkuntza-komunitatearen antolaketari, funtzionamenduari, koordinazioari, parte-hartzeari buruzko politika zehatzen edo kideen etengabeko prestakuntzaren politikaren bidez gauzatu behar dute, besteak beste, zeregin hori”¹⁸.

Printzipio horietako batzuk erreferentzia-puntutzat hartzen dira, euskal hezkuntza-sistema aztertzeke eta kokatzeko HPB dituzten ikasleei ematen zaien erantzunaren arabera. Ondoren zehatzen diren adierazleak erabiltzen ari diren hezkuntza-estrategiak baloratzeko eta gero eta eskola inklusiboagorako joerak ezagutzeko erreferenteak dira:

- Arreta ahalik ingurune normalizatuenean ematea.
- Ikasleen ezaugarrietara egokitutako irakaskuntza.
- Irakasleei laguntza ematea.
- Profesionalen koordinazioa.
- Familien parte-hartzea.
- Familien asebetetze-maila hezkuntza-erantzunari dagokionez.

1. Arreta ahalik ingurune normalizatuenean ematea.

Adierazle horrek inguru arruntean eta hezkuntza-programetan egin behar diren egokitzapenei egiten die erreferentzia; egokitzapen horiek ikasle guztiek eskolan osotasunez eta modu aktiboan parte hartzeko gauzatzen dira. Ikasleei inguru arruntean arreta emateko beharrezko aldaketen eta berrikuntzen kudeaketaren buru ikastetxeko zuzendaritza-taldeek izan behar dute, talde horiek baitira ikasleen beharrei ikastetxearen orokortasunetik erantzuteko azpiegitura erraz dezaketenak. Ikastetxeetako dokumentuetan aniztasunaren tratuarekin lotutako hezkuntza-planak eta -praktikak biltzea formaltasuna ematea, onartzea eta balioestea da, arreta-modu inklusiboetarantz egiteko.

Hauen bidez balioesten da alderdi hori:

- Ikastetxeen hezkuntza-erantzuna antolatzeke irizpideak.
- HPB dituzten laguntzako profesionalen esku-hartzeko irizpideak.
- HPB dituzten ikasleekin esku-hartzeko espazioa.
- Laguntzako profesionalen hezkuntza-jarduerak.
- Integrazioa: fisikotik eta sozialetik, integrazio funtzionalera.

(17) Mel Ainscow (2001) Desarrollo de escuelas inclusivas. Madril. Narcea.

(18) Gerardo Echeita eta Marta Sandoval (2002) Educación inclusiva o educación sin exclusiones. Revista de Educación, 327. zk., 31.-48. or.

Arkitektura-oztopoak kentzea ezinbesteko baldintza da ezgaitasunen bat duten ikasleei inguru normalizatuan arreta emateko. Lagineko ikastetxeen artean, kopuru handiak du ikasleen sarrera fisikoa bermatzeko beharrezko ekipamendua (maldak edo/eta igogailua); %70ak, hain zuzen ere.

Lagineko ikastetxeek giza baliabideak ere badituzte HPB dituzten ikasleei arreta emateko: ikastetxeen %90ek baino gehiagok du talde horren beharrei erantzungo dion laguntzako profesional bat, gutxienez.

HPB dituzten ikasleentzako erantzuna modu inklusiboan bideratzen duen ikastetxearen proiektuak ikasle horientzako arreta egokia errazten du. Ildo horretan, Lehen Hezkuntzako ia ikastetxe guztiek (%90ek baino gehiagok) diote ezarrita dituztela HPB dituzten ikasleentzako arreta antolatzeko irizpideak eta lehentasunak. Ikastetxeen erdiak, gainera, idatziz ematen ditu akordioak, nolabaiteko egonkortasuna duten dokumentuetan; ICPan, esate baterako.

Baliabideak antolatzean, ikastetxeek argi eta garbi ezartzen dute arretaren lehentasunezko ikasleak CNE duten ikasleak direla. Ikastetxeen, irakasle kontsultarien eta PTko irakasleen %90en ustez, gutxi gorabehera, CNE duten ikasleek dute erabateko lehentasuna arretari dagokionez.

Banakako arreta emateko planteatzen den lehen esparrua ez da ikasgela arrunta, bertatik kanpoko espazio espezifikoa baizik; laguntza gela, alegia. Gutxi gorabehera ikastetxeen %65en, PTko irakasleen %50en eta irakasle kontsultarien %40ren ustez, banakako arreta emateko lehentasunezko esparrua laguntza gela da, oraindik ere. Tutoreek egiten dituzten eskaeren %70 baino gehiago, gainera, ikaslearentzako ikasgela arruntetik kanporako laguntza eskatzera bideratzen dira. Familiak, ordea, asebateago egoten dira seme-alabentzako arreta laguntzako espazioetan eta ikasgela arruntetan konbinatzen denean.

CNE eta HPB dituzten ikasleen tutoreei dagokienez, laguntzako profesionalen arteko hezkuntza-praktika nagusienak CNE egiteko orientazioa eta laguntza ematea dira; ohiko zereginak da hori irakasle kontsultarien %80rentzat eta PTko irakasleen %50entzat, gutxi gorabehera. Hau da, banakako irakaskuntza eta ikasleari egokitutakoa bermatzeko zereginak dira nagusi, eta arreta ahalik ingurune normalizatuenean ematea errazten duten zereginak gutxiago egiten dituzte. Hona hemen adibide batzuk: klaustroari eta ikasleei irakasle kontsultarien eta PTko irakasleen %35ek soilik ematen die HPBei buruzko informazioa; irakasleari ikasgelako programazioa egiten laguntzea profesional horien %20k gauzatzen duen zeregina da; edo irakasle espezialistentzat jarduerak prestatzea %10era iristen da, gutxi gorabehera. Joera banakako arreta eta ikaslearen premiei egokitutakoa bermatzea da, zeregin horien bidez, baina ez da hain agerikoa arreta hori ikasgela arruntetik ematen denik; hau da, ingurune sozial normalizatuagotik.

CNE duten ikasleekin lotutako zereginik ohikoena bilakaeraren jarraipena egitea, eta haien curriculum-konpetentziak ebaluatzea dira; irakasle kontsultarien eta PTko irakasleen %80k betetzen ditu zeregin horiek. Zeregin hauek, aldiz, gutxiago egiten dira: ikasleak behatzea ikasgelan (PTko irakasleen %20k eta irakasle aholkularien %13k), edo ikasgelako programazioaren jarduerak egokitzea, PTko irakasleen eta irakasle kontsultarien %8k. Beste behin ere, curriculuma ikaslearen premietara egokitzea errazten da, zeregin horien bidez, baina horrek ez du bermatzen arreta inguru arruntan ematen denik, ezta arretaren metodologia behar bezala egokitzen denik ere.

***Ikastetxe
arrunterako
sarrera***

***Baliabideak
ikastetxe
arruntan***

***Ikastetxearen
irizpideak***

***Arretaren
lehentasuna***

***Arretaren
espazioa***

***Laguntzako
profesionalen
praktikak
tutoreekin***

***Ikasleen
jarraipena eta
ebaluazioa***

Lehen Hezkuntzako ikastetxeek, oro har, ikaslearen integrazio fisikoa berma dezakete, eskola-adinean dauden eta ezgaitasunen bat duten ikasleen gehiengoa ikastetxe arruntetan eskolatzeko baliabideak baitituzte. Profesionalen bi taldeek (kontsultariek eta PTko irakasleek) ikasgela arruntan ematen dute arreta, baina beharrezkoa da praktika hori orokortzeko laguntzak sortzea. Hau da, prozesu horri ekin bazaio ere, ez da lortu arreta, nagusiki, ikasgela arruntan ematea.

Laburpena eta iradokizunak

2. Ikasleen ezaugarrietara egokitutako irakaskuntza

Ikastetxeetan fisikoki integratzea lortu ondoren, errazago ezar daitezke jarduera inklusiboak desberdintasunak ikaskuntza-aukeratzen hartzen badira, eta ez konpondu beharreko arazotzat, ikasleek parte hartzeko oztupoak ikasgelako programazioen ikuspegitik aztertzen direnean, eta eskuragarri dauden baliabideak inguru arruntetako ikaskuntza bultzatzeko erabiltzen direnean.

Zaila da, jakina denez, aniztasunari ikaskuntza-helburu malguen, maila anitzeko jardueren eta lankidetzako ikaskuntza-tekniken bidez erantzungo dien programazioak diseinatzeko estrategiak garatzea. Bibliografian ikusten denez, ohikoa da, oraindik ere, laguntzako profesionalak tutoreekin batera egitea ikasle bati egokitutako curriculum.

Ainscow-ek dioenez, zaila egiten zaie irakasleei erreferentzia-esparruan, eskola oso baten plangintzan, heziketa bereziaren testuinguruaren emaitza den erantzunaren banakako esparrua barneratzea. Horrela, bada, laguntzako profesionalak ikasgelatik joaten direnean, arrunta da tutoreek ez jakitea nola erantzun ikasgelan HPB dituzten ikasleei.

Egoera baloratzeko, puntu hauei buruz jasotako datuak hartzen dira kontuan:

- Laguntzako profesionalak erantzuna indibidualizatzeko esku-hartzean ematen duten denbora.
- Banakako esku-hartzerako espazioak.
- Banakako erantzuna ikasgela arruntan txertatzeko zailtasunak.
- Curriculum Norbanakoari Egokitzearen funtzionaltasuna balioestea.

Ikerketa-datuetatik abiatuta, datu hauek lortzen dira: pedagogia terapeutikoko irakasle bakoitzak, gutxi gorabehera, ordubete eta 20 minutu eskaintzen dizkio, ikasgela arruntan, CNE duen ikasle bakoitzari, eta 4 ordu ikasgela arruntetik kanpo. Denbora hori erantzun indibidualizatura bideratzen da, egindako egokitzapenean zehaztutakoaren arabera.

Irakasle aholkulariek eta PTko irakasleek aipatzen dituzten arretarako batez besteko denborak tutoreek CNE duten ikasleekin profesional horiek ematen dutela dioten denbora erreala baino baxuagoak dira. Horien arabera, PTko irakasleak 2 ordu eta 10 minutuz ematen diete arreta ikasgela arruntan, eta 4 ordu eta 55 minutuz laguntza gelan, astero, lagineko ikasle bakoitzari. Ikasgela arruntan, hezkuntza-erantzuna ikaslearen premietara egokitzen denbora gehien ematen duten laguntzako profesionalak PTko irakasleak dira (%28): 1 eta 5 ordu artean astero.

Laguntzako profesionalak: erantzunaren indibidualizazioa

En ikasgela arrunteko programazio orokorrean CNE bat integratzea errazteko ikasgelan egin beharreko egokitzapenei dagokienez, tutoreen %36k uste du zeregin erraza dela, edo ez duela aparteko zailtasunik. Ehuneko handiago baten ustez (tutoreen %58), ordea, zeregin zaila edo oso zaila da CNE baten garapena ikasgelako programazioan txertatzea.

Tutoreei ikasgelako programazio arruntean CNE bat txertatzea zailtzen duten arrazoiak zein diren galdetzen zaienean, %33k ikasgelan aniztasunaren trataeraren zailtasuna ematen dute arrazoi nagusitzat. Hala ere, tutoreen %39k txertatzen ditu ikasgelako programazioan CNEaren helburuak eta edukiak. Hala ere, zeregin zaila iruditzen zaiela aitortu arren, laguntzako profesionalen %20ri soilik eskatzen zaio ikasgelako programazioa egiten laguntzeko.

Zailtasunak dituela onartzen bada ere, laguntzako profesionalen eta tutoreen %75ek baino gehiagok uste du CNEak baliagarriak direla programazio didaktikoa egiteko, helburuak lortzeko, eta ikasleen hezkuntza-premiak ezagutzeko. CNE integrazio sozialerako tresna erabilgarria ote den galdetuta, iritziak ez du hainbesteko adostasunik (laguntzako profesionalen %40 eta tutoreen %56).

Laguntzako profesionalen zereginak curriculumak indibidualizatzeko erabiltzen dira, baina ez dute, bere baitan, arreta bermatzen ingurune arruntean, eta ez dira bideratzen ikasgelan hori gauzatuko duten metodologia-neurriak etengabe garatzera.

Ohiko ikasgelan fisikoki integratzea normalizatzen ari da, ikaslea bertan egoten baita, laguntza gelara joaten denean izan ezik. Hala ere, bide garrantzitsua dago egiteke, oraindik, baterako ikaskuntzari erreferentzia egiten dion integrazio funtzionala, eta, laguntzako profesionalaz, edo gabe, ikasgela barruan ikasteko beharrezko guztia ematea lortu arte.

CNE ikasgelan egokitzeko zailtasunak

CNEren balorazioa

Laburpena eta iradokizunak

3. Irakasleei laguntza ematea

Irakasleen etengabeko prestakuntza kalitatearen adierazletzat hartzen da, hezkuntza-erantzuna ikaslearen behar zehaztutara egokitzeko aukera ematen duten aldaketen sustatzailea izan daitekeen heinean. Banakako prestakuntzari garrantzirik kendu gabe, hori bezain beharrezkoa edo hori baino beharrezkoagoa da irakasleen ikastetxeko talde gisako prestakuntza, bai profesionalaren lankidetzaren areagotzeko, bai ikasleen beharrei orokortasunetik ekiteko. Ezinbestekotzat hartzen da, gainera, irakasleak aholkatzeko babes-sarea izatea, berrikuntza eta ikasgelako egoeretara egokitutako hezkuntza-erantzunak praktikan jartzeko antolamendua erraztu nahi badira. Babes- eta lankidetzaren sentimendua oinarritzeko da ikastetxeak sendotzeko eta irakasleen autoestimua hobetzeko.

Puntu hauek izaten dira kontuan alderdi hori balioesteko:

- FPrestakuntza eta esperientzia HPB dituzten ikasleekin.
- Ikastetxeko prestakuntza.
- HPB dituzten ikasleen tutoreentzako babes-sarea.
- Ikastetxe barruko eta kanpoko aholkularitza.

Ikastetxe arruntetan HPB dituzten ikasleei arreta ematen dieten profesional guztiak hasierako prestakuntza bera dute, funtsean. Gehienek Irakasle-ikasketak egin dituzte. HPB dituzten ikasleen laguntzako profesionalek, gainera, pedagogia terapeutikoko espezializazioa dute, edo horretarako gaikuntza; esaterako, irakasle kontsultariak.

Geroko ikasketei dagokienez, laguntzako profesionalen erdiek (kontsultariak eta PTko irakasleak) lizentziatura bat ere badute; lanpostuaren garapenarekin lotutako autoprestakuntza-ibilbide bati eutsi dioten profesionalak dira. Hori lagineko CNE duten ikasleen tutoreen prestakuntzaren bestelakoa da: tutoreen %14k soilik egin ditu, ondoren, araututako ikasketak.

Azken hiru urteotan, HPBei buruzko prestakuntza-jardueretako parte-hartzeari dagokionez, desberdintasun garrantzitsuak daude. Irakasle aholkularien %91k eta PTko irakasleen %80k hartu du parte hezkuntza-sistemak sustatutako prestakuntza-jardueretan; parte-hartzea txikia da, ordea, CNE duten ikasleen tutoreen artean (%13). Kontuan izan behar da tutoreek denbora gutxiago dutela prestakuntza irakaskuntza-ordutegian egiteko; laguntzako profesionalek, ikasgelarik ez dutenez, ordutegi barruan egin ditzakete prestakuntza-jarduerak. Nabarmendu beharrekoa da, gainera, tutoreek asebetetze-maila baxua agertzen dutela jasotako prestakuntzarekiko, eta laguntzako profesionalek, berriz, positiboki balioesten dutela.

Tutorea da CNE duten ikasleen barneraketaren irudi giltzarria; hala ere, gai horiei buruzko prestakuntza espezifiko gutxien egin duen profesionala da. Laguntzako profesionalek, berriz, banakako prestakuntza-ibilbide zabalagoa dute, eta horien parte-hartzea handiagoa da hezkuntza-sistemak bultzatutako prestakuntza espezifikoan.

Lehen Hezkuntzako ikastetxeen %40k egin ditu, gutxi gorabehera, gai espezifikoari buruzko prestakuntza-jarduerak, azken hiru urteotan; esaterako, CNEren prestakuntza eta ezgaitasunak, eta, bereziki, hitzaldien bidez burutu dira. Ikastetxeen %72k aniztasunaren tratamendu orokorrekin lotutako gaiak landu ditu, eta gai horiek, nagusiki, ikastetxeetan egindako mintegien bidez jorratu dira. Gai horien bidez, ikastetxeak eta irakasleek ikasleei modu egokian erantzuteko dituzten zailtasunak landu daitezke.

Irakasleek, oro har, esperientzia handia dute HPB dituzten ikasleen hezkuntza-tratamenduan, bereziki, laguntzako profesionalek. Horien artean, %40k 10 urte baino gehiagoko esperientzia du, eta %25 inguruk 6 eta 10 urte artekoa. Lagineko Lehen Hezkuntzako tutoreen artean, esperientzia murriztagoa da, nahiz eta tutoreen %40 inguruk duen 2 eta 5 urte bitarteko esperientzia, ikasgeletan HPB dituzten ikasleei arreta ematen.

CNE duten ikasleen tutore gehienek ikastetxeko irakasle kontsultarien eta PTko irakaslearen laguntza eskatzen eta jasotzen dute. Profesional horien bi zeregin nagusiak tutoreei aholkularitza orokorra ematea eta CNE egiten laguntzea dira. Hala ere, tutoreei ikasgelako programazioa egiteko laguntza ematea eta jarduerak irakasle espezialistari egokitzea oso gutxitan betetzen diren zereginak dira. Laguntza horiek bermatuko lukete, hain zuzen ere, ikasleei arreta ikasgelako orokortasunetik ematea, eta ez modu paraleloan garatzen diren bi programen bidez: ikasgelako programazioa, batetik, eta CNE, bestetik.

Profesional ibiltarien laguntza ere jasotzen dute tutoreek; esaterako, eskualdeko logopedena eta Berritzeguneko HPBen aholkulariena. Lagineko ikastetxe ia guztietan esku hartzen dute profesional horiek. Tutoreen %80ren iritziz, baliabideak egokiak dira ikasgelan izaten diren arazoetarako, baina, erdientzat ez dira nahikoak eta ugaritu egin beharko lirarteke.

Formación inicial

Geroko ikasketak

HPBei buruzko prestakuntza-jarduerak

Ikastetxeko prestakuntza

Lanbide-esperientzia

Ikastetxearen barneko laguntza-sarea

Ikastetxearen kanpoko laguntza-sarea

Irakasleek HPBei buruzko prestakuntza-prozesuari jarraitzen diote, eta etengabeko prestakuntza horri bide ematen dion egitura dago sisteman. Tutoreak dira parte-hartze txikiena dutenak, eta hori bultzatu egin beharko litzateke. Nahikotasunezko laguntza- eta prestakuntza-sarea dago, baina ikasgelaren jardura orokorrean osotasunean eragiten ez duten prestakuntza- eta aholkularitza-alderdiak lantzen ditu. Gehiago erantzuten da banakako HPBen espezifikotasunetik. Irakasleentzako aholkularitza-lanak ikastetxearen barneko eta kanpoko baliabideen bidez gauzatzen dira, eta, batez ere, CNE egiteko laguntza ematen da.

HPBen gai espezifikoak eta aniztasunaren trataerari buruzko prestakuntza ez da modu bateratuan lantzen, ikuspegi bakar batekin, irakasleari segurtasuna eta klabeak emateko eta ikasgelan jardura inklusiboak gauzatzeko.

Laburpena eta iradokizunak

4. Profesionalen koordinazioa

Irakasleek hitzarmenak lortzeko izan beharreko parte-hartze aktiboari egiten dio erreferentzia; akordio horien bidez, informazioa partekatu eta baterako jardura-plana diseinatzen da, ikaslearekin egiten den esku-hartzeari koherentzia emateko. Koordinazioak baterako helburuak sortzea, desberdintasunak ebatzea, eta helburuak eta ekintzak ezartzeko parte-hartzea estimulatu eta, horien bidez, eraginkorragoa da premiei ematen zaien hezkuntza-erantzuna.

Ikastetxeko profesionalen arteko koordinazioa elementu erabakigarria da hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasle- en pedagogia-ekintza antolatzeko. Elementu horri emandako garrantzia zehazteko datu bat ikastetxeen koordinazioari eskainiko dioten antolaketa eta denbora aurreikusita duten egiztatzea da, bai zuzenean inplikaturako profesionalen artean, bai ikasleen familiekin.

Alderdi hori baloratzeko, datu hauek izaten dira kontuan:

- Profesionalen arteko koordinazioari eskainitako denbora.
- Familiekin egiten diren koordinazio-jarduerak.
- CNEren garapenean sortutako koordinazio-moduak.

Ebaluazioan jasotako datuen arabera, Lehen Hezkuntzako ikastetxe gehienek denbora-tarteak ezartzen dituzte, ohiko ordutegian, HPB dituzten ikasleei arreta ematen dieten profesionalak elkarrekin koordinatzeko; desberdintasunak daude, ordea, ikastetxeen artean: publikoan ikastetxeen %93k eta itunpekoan %78,4k. Bestalde, eta neurri txikiagoan bada ere, familiekin koordinatzeko denbora ere hartzen da; gehiago itunpekoan (%76,5) publikoan (%56,6) baino.

CNE, egitea erabakitzen den unetik, profesionalen arteko lankidetzaren maila proban jartzen duen tresna da, garapen-faseetan parte hartzea eta zereginak banatzea eskatzen baitu: helburuak definitzea, edukiak, materialak eta jarduerak egokitzea, eta, azkenik, CNE bera ebaluatzea.

Según Bildutako datuen arabera, lankidetzaren ohikoena tutorearen eta PTko irakasleen eta kontsultariaren artekoa da, neurri desberdinetakoa bada ere, prozesuaren fasearen arabera:

Koordinazioa

CNE: parte-hartzaileak eta lantzen diren gaiak

prestakuntzaren, garapenaren edo jarraipenaren arabera. Kotsultaria gehiago koordinatzen da CNEren helburuak definitu, edukiak egokitu eta CNE ebaluatu behar direnean; PTko irakasleak, berriz, ikasgelako materialak eta programazioa egokitzen parte hartzen du, aurreko zereginak betetzeaz gain. Tutoreak fase guztietan hartzen du parte eta, eskuarki, baita familiekin ere.

CNE jakin baten eraginkortasunaren jarraipenari eta balorazioari dagokionez, bat datoz guztiak honako hau adieraztean: zereginak lankidetzaren bidez egiten dituzte PTko irakasleek, kotsultariek eta tutoreek. Zeregin horien aldizkakotasuna hiruhilekoa izan ohi da; hala ere, askotan egiten dira asteko koordinazioak, ziur asko, CNE beraren jarduerak prestatzeko eta garapen-materialak egokitzeko, balioesteko eta berrikusteko baino areago.

Hezkuntza-premien batekin zuzeneko lotura duten beste hezkuntza-eragile batzuk logopeda eta fisioterapeuta dira. Hezkuntza-baliabide horiek behar dituztela dioten familien erdiekin horiekin koordinatzen direla diote. Seme-alabak laguntzailea (hezkuntza-laguntzako espezialista) duela dioten familien erdiak baino gehiagok harekin koordinatzen direla diote.

Eskola-komunitateko kideen arteko lankidetzatik harago, lankidetzari hori beste profesional batzuegana heda daiteke. Profesional horiek eskualde- edo lurralde-eremutik ere hartzen dute esku, eskolaz bestelako testuinguruan; esaterako, osasun-edo gizarte-espazioan. Tutoreen %12k adierazten duenez, aldian-aldian biltzen dira osasunarekin lotutako beste instantzia batzuekin: Osakidetzarekin, Haur Psikiatriako Unitateekin, etab. %22, berriz, hezkuntza-sareko beste zerbitzu batzuekin —Itsuentzako Baliabidetegia (IBT)— edo beste ezgaitasun batzuekin lotutako elkarteekin biltzen dira.

Ikastetxe gehienek zehaztu egiten dituzte, dokumentuetan, koordinazio-denborak. Hori ohikoagoa da ikastetxeko profesionalen artean (PTko irakaslea, kotsultaria eta tutorea), baina beste zerbitzu batzuekin (Berritzeguneetako HPB dituztenen aholkulariak eta zerbitzu komunitarioak) sistematikoki kolaboratzeko joera ere ikusten da. Bileren horien gai nagusia CNE izaten da.

Hausnarketa horiek CNE ikasgelako aniztasunaren trataeraren zati gisa barneratzea erraztuko duten metodologietarantz bideratu beharko lirateke.

**Hezkuntzako
beste eragile
batzuekin
koordinatzea**

**Zerbitzu
komunitarioekin
koordinatzea**

**Laburpena eta
iradokizunak**

5. Familien parte-hartzea

Eskola inklusiboarentzat, ezinbestekoa da familien parte-hartzea kalitatezko hezkuntza lortu ahal izateko. Parte-hartze hori hezkuntza-prozesu guztian eman beharko litzateke; hau da, bai plangintza egiteko garaian, bai garapenean eta ebaluazioan. Familien eta ikastetxearen artean, komunikazio ona izatea eskatzen du, informazioa bi noranzkoe-tan trukatzeko. Aniztasunari egoki erantzuteko, gurasoekiko lankidetzara ireki beharra dauka ikastetxeak, baita erakundeekiko eta komunitatearekiko lankidetzara ere.

Puntu hauek izaten dira kontuan alderdi hori balioesteko:

- Irakasleekiko koordinazioa.
- Jarduera osagarrietan eta eskolaz kanpokoetan parte hartzea.

Las Ikerketaren lagineko familia guztiek CNE duen seme-alabaren bat dute, eta, familiek diotenez, irakaslearen eta familien arteko komunikazio-bide ohikoena elkarrizketa pertsonala da. Bilerak edo elkarrizketak, gehienetan, tutorearekin egiten dira; ehunekoia zerbait txikiagoa da laguntzako irakasleekin egiten diren bileretarako eta elkarrizketetarako.

Familiek, eskuarki, garrantzi handia ematen diote ikastetxeak deitzen duen edozein bilerari. Bilerei ematen zaien garrantziak gora egiten du ikastetxeko ohiko gaietatik kideak sentibiltzatzen laguntzeko gaietara igarotzean, eta, beraz, ikasgela arruntean seme-alaben integrazioa hobetzeko gaietara igarotzean. Lagineko familien %90ek garrantzi handiagoa ematen die seme-alaben bilakaerari buruzko elkarrizketa pertsonalei.

Familia gehienei seme-alabaren curriculuma jasotzeko CNE bat egitearen beharrari buruzko informazioa eman bazitzairen ere, %10ek baino gehiagok ez zuten informazio egokia jaso.

Bilerak, oro har, hiru hilabetean behin egiten dira. Badirudi, bada, ikaslearen jarraipen orokorra egiteko direla (ikasturteko hiru ebaluazioen amaierarekin bat etorriz). Aipatzekoa da familien %30ek irakaslearekin noizean behin biltzen direla esaten duela. Horrek adieraz dezake ikasleari eragiten dion edozer gertaera izaten denean, harremanetan jartzen direla irakaslea eta familia, elkarrekin jorrazteko.

Bileren helburu nagusia familiei seme-alabek ikastetxean gauzatzen duten hezkuntza-prozesuari buruzko informazioa ematea da. Maila apalagoko helburua izango da familia-esparruan haurrak zer bilakaera duen edo gurasoek zer asebetetze-maila duten ezagutzea. Familiek bileretaz duten iritzia bat dator tutoreek adierazitakoarekin.

Familiek jarduera osagarrietan (eskola-orduetako festak, ibilaldiak, etab.) eta eskolaz kanpoetan duten parte-hartzeari dagokionez, parte-hartzearen ehuneko baxuak familien eta ikastetxearen arteko "parte-hartzearen kultura" ezari lotuta egon litezke.

Familien erabateko parte-hartzea hezkuntza-prozesuan hartzen diren erabaki guztietan parte hartzea da, plangintzatik hasi eta ebaluaziora arte. Familien funtzioak, ordea, harkorra izaten jarraitzen du, nagusiki. Oraindik ere, aurrera egin behar da eskola inklusiboak aldarrikatzen duenean, familien hezkuntza-prozesuko parte-hartzeari eta gurasoek seme-alaben hezkuntzari buruzko informazioa kontuan hartzearen garrantziari dagokionez.

Familia batzuek ez dakite seme-alabaren curriculuma CNE batean jasotzen dela, eta horri buruzko informazioa familia guztiengana hedatu beharko litzateke.

Irakasleen eta familien arteko bilerak

Gaiak

Bileren maiztasuna

Bileren helburua

Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak

Resumen y sugerencias

6. Familien asebetetze-maila hezkuntza-erantzunari dagokionez

Eskolak familien lankidetzara behar du, hezkuntza-erantzun zehar ikasleek ezaugarriak ezagutzeko eta horiei erantzuteko. Horretaz gain, laguntza-ingurune bat sortzea errazten du familiekiko lankidetzak, eta ikastetxeak hezkuntza-komunitateari irekitzen dizkio. Hezkuntza-prozesuan, familiaren eta ikastetxearen arteko harreman ona eta baterako ardura emaitza onak lortzen dituzten hezkuntza-sistemen adierazleetako bat da. Gainera, erantzunaren edo zerbitzuaren kalitatea baloratu nahi duen sistema orok erabiltzailearengan sortzen duen asebetetze-maila neurtu behar du. Emaitza irakaskuntza-ikaskuntza prozesua hobetzeko oinarritzeko ildo bihurtzen da ikastetxeen kasuan.

Familien asebetetze-maila alderdi hauekiko aztertzen da:

- Hezkuntza-planteamenduak eta esku-hartzeko espazioak.
- Banakako bilerak profesionalekin.
- Hezkuntza-baliabideak, giza baliabideak eta baliabide materialak.

Familien ustez, seme-alabei ematen zaien hezkuntza-programa egokia da, batez ere, esku-hartzea ikasgela arrunten eta laguntza gela artean orekatzen bada. Familia gehienek ustez, egokia edo oso egokia da seme-alabek jasotzen duten arreta. Lagineko familien %88 oso gustura dago ikasgela arrunten izaten den esku-hartzearekin, eta %93 asebeteta dago laguntza gela jasotzen dutenarekin. Hala ere, familien %70ek baino gehiagok uste du laguntzak hobetu egin behar direla, seme-alabak ikasgelatik kanpoko jardueretan integratu, eta erabateko sozializazioa eta integrazioa errazteko.

Familien %75 bat dator ikastetxeak seme-alabentzat dituen helburuekin eta itzaropenekin.

Familien %99k asebetetze-maila altua agertzen du ikastetxeko profesionalekin izaten dituen banakako elkarrizketekiko. Ona iruditzen zaie ikastetxearekin duten komunikazioa, eta konfiantza dute irakasleengan. Bilerekin integrazio- eta ikaskuntza-prozesuari buruz orientatzeko eta informazioa trukatzeko balio dute, nagusiki; familia-eremuan seme-alabak izandako bila-kaerari buruzko informazioa jasotzeko ere balio du, maila txikiagoan bada ere.

Familien %73ren ustez, egokiak eta behar adinakoak dira seme-alabek erabiltzen dituzten baliabideak, bai sARBIDEKOAK, bai ikastetxearen laguntzako baliabide pertsonalak. Familiek (%86) diotenez, entzun egiten zaie seme-alabek behar dituzten laguntzako baliabideei buruzko erabakietan.

Oro har, oso gustura daude familiak seme-alabei ematen zaien hezkuntza-arretarekin, baina oso gutxitan eskatzen zaie balorazioa, tutoreekin izaten dituzten bileretan.

Uste dute laguntzak hobetu egin beharko lirakeela, ikastetxearen irakaskuntzaz kanpoko arloetan barneratzeko, eta parte-hartze sozial handiagoa izateko.

Hezkuntza-planteamenduak

Banakako elkarrizketekin

Baliabideekin

Laburpena eta iradokizunak

AZTERKETA DESKRIPTIBOA

3

A. Profesionalen, ikastetxeen eta familien ezaugarriak

I. HPB dituzten ikasleei arreta ematen dieten profesionalen profila

Atal honetan, lagineko Lehen Hezkuntzako ikastetxeetara atxikitako laguntzako profesionalen —irakasle kontsultariak, pedagogia terapeutikoko (PT) irakasleak, entzumen eta hizkuntzako (EHI)¹⁹ irakasleak— nahiz ikasgeletan CNE duten ikasleei arreta ematen dieten tutoreen informazioa aztertzen da.

• Ezaugarri pertsonalak

	LAGUNTZAKO PROFESIONALAK		TUTOREAK
	PTko irak.	Irakasle kontsultariak	
Sexua	%92 emakumeak	%84 emakumeak	%76 emakumeak
Batez besteko adina	42 urte	45 urte	48 urte

Profesionalen hiru taldeetan, emakumeen ehunekoa handiagoa da gizonezkoena baino. Emakumeak dira PTko irakasleen %91,6, kontsultarien %84,5 eta Lehen Hezkuntzako irakasleen %75,9.

Ikerketan parte hartu duten profesionalen artean, batez besteko adina 40 urtetik gorakoa da, eta, tutoreen kasuan, 48 urteraino igotzen da. Ehuneko altuenak 40 eta 50 urte artekoen taldean daude.

• Titulazioa eta laneko administrazio egoera

	LAGUNTZAKO PROFESIONALAK		TUTOREAK
	PTko irak.	Irakasle kontsultariak	
Titulazioa	Hasierako prestakuntza: Irakasle-ikasketak %47k lizentziatura	Hasierako prestakuntza: Irakasle-ikasketak %52k lizentziatura	Hasierako prestakuntza: Irakasle-ikasketak %14k lizentziatura
Administrazio egoera	%75 behin betiko funtzionarioak, behin-behingoak, edo lan-kontratu finkodunak	%75 behin betiko funtzionarioak, behin-behingoak, edo lan-kontratu finkodunak	%93 behin betiko funtzionarioak, behin-behingoak, edo lan-kontratu finkodunak

Profesional gehienek (%82) **oinarrizko hasierako prestakuntza** Irakasle-ikasketak dira. Laguntzako profesionalen ehuneko nahiko altuak hedatu du hasierako prestakuntza, goi-mailako ikasketen bidez. Irakasle kontsultarien erdiak baino gehiagok Psikologiako, Pedagogiako, edo Psikopedagogiako lizentziatura du, PTko irakasleen %46,6ak bezala. %6,7ak bi lizentziatura ditu. Lanpostuari lotutako gaietan, autoprestakuntza-ibilbide bati jarraitu dioten profesionalak dira.

Azterketa honetako tutoreen artean, %14,3k zabaldu du bere prestakuntza goi-mailako ikasketak eginez; aurrerago aipatutako lizentziaturak egin dituzte.

Ikastetxeko atxikipenari dagokionez, PTko irakasleen %79,2k laguntza gelan betetzen du bere funtzioa; %11,2 eta hizkuntza ikasgelara atxikita dago; %3,4k ikasgela egonkor batean egiten du lan, nagusiki, garapenaren nahaste orokorrak dituzten ikasleekin; %2,8, berriz, ikasle gorrentzako taldekatze-ikasgela batera atxikita dago.²⁰

(19) Aurrerantzean, pedagogia terapeutikoko irakasleak aipatzean, entzuneko eta hizkuntzako irakasleak ere bertan sartuko dira.

(20) Ikus ikasgela horien definizioa 2. eranskinean: terminoen glosarioa.

Ikerketa honetan parte hartu duten CNE duten ikasledun tutoreen artean, %62,5 sare publikoko ikastetxeetan dago, eta %37,5 itunpeko ikastetxeetan.

Hau da CNE dituzten ikasleen tutoreen sailkapena, zikloen eta ereduaren arabera:

	% Publikoan	% Itunpekoan	Guztira
LH. 1. zikloa	17,1	19	17,9
LH. 2. zikloa	41,4	42,9	42
LH. 3. zikloa	37,2	38,1	37,5

	% Publikoan	% Itunpekoan	Guztira
A eredia	44,3	45,2	44,6
B eredia	17,1	19	17,9
D eredia	35,7	33,3	34,8


*Ez da kontuan hartu ED-EDE erantzunen ehunekoa²¹

• HPB dituzten ikasleekin duten esperientzia

	LAGUNTZAKO PROFESIONALAK		TUTOREAK
	PTko irak.	Irakasle kontsultariak	
Esperientzia	%62,3: 5 urte baino gehiago %40: 10 urte baino gehiago	%70: 5 urte baino gehiago %41,4: 10 urte baino gehiago	%38,4: 5 urte baino gehiago %40: 2 eta 5 urte artean %31: 1 eta 2 urte artean

Laguntzako irakasleek **HPB dituzten ikasleekin dituzten esperientzia-urteak** aztertzean, arlo horretan esperientzia handia duten kolektiboak direla ikusten da. %70 inguruk, bost urte baino gehiagoko esperientzia du ikasle-mota horrekin; %40k, berriz, 10 urte baino gehiagoko esperientzia du arlo horretan. CNE duten ikasleen tutoreen artean, %40k 2 eta 5 urte arteko esperientzia du HPB dituzten ikasleekin. %31k urte bat eta bi urte arteko esperientzia du; hau da, hezkuntza-ziklo bati dagokiona (hori da tutore bakoitzak ikasle berdinekin eman ohi duen denbora).

1 irudia. Urtetako esperientzia HPB duten ikasleekin



(21) Tauletan ez da kontuan hartu ED-EDE (Ez Daki- Ez Du Erantzuten) erantzunen ehunekoa.


• **HPBei buruzko prestakuntza azken 3 urteotan**

Prestakuntzari dagokionez, profesionalak, azken hiru urteotan, HPB dituzten ikasleentzako erantzunei buruzko prestakuntza-jardueretan izandako parte-hartzea aztertzen da.

	LAGUNTZAKO PROFESIONALAK		TUTOREAK
	PTko irak.	Irakasle kontsultariak	
Formación HPBei buruzko prestakuntza azken 3 urteotan	%80	%91	%13,4
Modalitatea	30 ordu baino gutxiagoko ikastaroak %30 ezgaitasunari buruzko 30 ordu baino gehiagoko prestakuntza	30 ordu baino gutxiagoko ikastaroak	30 ordu baino gutxiagoko ikastaroak
Antolaketa	Berritzegunea: jardueren %60	Berritzegunea: jardueren %70	Berritzegunea: jardueren %25
Asebetetzea	62ren ustez, zabala eta behar adinakoa	78ren ustez, zabala eta behar adinakoa	68ren ustez, behar adinakoa


Ikusten denez, **laguntzako irakasleen** ehuneko oso handiak hartu du parte prestakuntza-jardueretan, ondorengo grafikoak agertzen duen moduan.

2 irudia. HPBei buruzko prestakuntza-jarduerak azken 3 urteotan



Jarraian, prestakuntzako berriazko gaiak eta laguntzako irakasleek gai bakoitzean izandako parte-hartzeen ehunekoak aurkezten dira, grafiko bidez.

3 irudia. Prestakuntza-jardueretako parte-hartzea, gaien arabera



AKAOS: Ahozko Komunikazio Areagotzeko edo Ordezkatzeko Sistemak

CNE: Curriculum Norbanakoari Egokitzea.

HPB IKTetan: Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia ezartzea HPB dituzten ikasleentzat.

Ezgaitasuna: Ezgaitasunei buruzko prestakuntza: adimen-egaitasuna, autismoa, mugimendu-urritasuna edo urritasun sensoriala, etab.

Aipatutako prestakuntza-gaiak bilduz gero, bi kategoria izango ditugu:

- HPBei buruzko prestakuntza orokorra: kaltetua den gizarte-inguruneako ikasleak, Aniztasunaren trataera ikasgelan eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKTak) erabiltzea HPB dituzten ikasleekin.
- HPBei buruzko berriazko prestakuntza: CNE egitea, ezgaitasunak dituzten ikasleen trataera (zenbait nahaste), eta Ahozko Komunikazio Areagotzeko edo Ordezkatzeko Sistemak ezagutzea.

Bi taldeetan (PTko irakasleen nahiz kontsultarien taldean), handiagoa da HPBei buruzko prestakuntza orokorra, HPBei buruzko jardura berriazkoagoetako parte-hartzea baino.

CNE duten ikasleei ikasgelan arreta ematen dieten galdetu zaien **tutoreen artean**, %13,4k soilik egin du HPBei buruzko prestakuntza-motaren bat azken hiru urteetan. Prestakuntza-jardueretan izandako parte-hartze murrizta nabarmentzen da. Hala ere, kontuan izan behar da ikastetxeko laguntzako profesionalen —PTko irakaslea edo kontsultaria— edo eskualdeko Berritzeguneetako HPBko aholkularien zuzeneko aholkularitza jaso dezaketela.


Talde horren prestakuntza-gaiak eta laguntzako profesionalenak berdinak dira: parte-hartze handiagoa aniztasunaren trataeran, ezgaitasun jakinak dituzten ikasleentzako erantzunari buruzko berriazko alderdietan baino.

Prestakuntza-modalitate nagusia 30 ordu baino gutxiagoko ikastaroak egitea izan da. Laguntzako profesionalen %35 inguruk aniztasunaren tratamenduari buruzko 30 ordu baino gehiagoko ikastaroak egin ditu. PTko irakasleen %30 inguruk ezgaitasunak dituzten ikasleen arretari buruzko 30 ordu baino gehiagoko prestakuntza egin du.

Aipatutako **prestakuntzaren antolaketari** dagokionez, parte-hartze garrantzitsua du eskualdeko Berritzeguneak. Kontsultarientzako prestakuntza-jardueren %40 eta PTko irakasleentzako %14 inguru zerbitzu horietan antolatu dira, zuzenean. Horretaz gain, Berritzeguneek beste erakunde batzuekin, ikastetxearekin, Hezkuntza Sailarekin, Unibertsitatearekin edo beste entitate batzuekin batera antolatu eta kudeatu dituzte kontsultariak jasotako prestakuntzaren %30, eta PTko irakasleentzako prestakuntzaren %46. CNE duten ikasleen tutoreek jasotako prestakuntzari dagokionez, eskualdeko Berritzeguneak zuzenean antolatu ditu jardueren %25. Gainerakoak ikastetxeek eta Berritzeguneek antolatu edo/eta kudeatu dituzte, Hezkuntza Sailarekin, Unibertsitatearekin eta abarrekin batera.

Laguntzako profesionalak **prestakuntza-aukererikiko** duten **asebetetze-maila** erdi-mailako dela esan daiteke. Laguntzako kontsultarien %78ren iritziz, behar adinakoa edo zabala da hezkuntza-eskaintza; iritzi hori duten PTko irakasleen kopurua baxuagoa da, %62koa. Prestakuntzaren bat egin duten CNE duten ikasleen tutoreen artean, %68i nahikoa iruditzen zaio, eta %25i eskasa. Talde horretan ez dago prestakuntza-eskaintzak zabalak direla uste duenik.

4 irudia. Prestakuntza-eskaintzari buruzko asebetetzea



Azterketa horren bidez, Lehen Hezkuntzan HPB dituzten ikasleei arreta ematen dieten profesionalen profil hau deskribatu daiteke:

Laguntzako profesionalak Irakasle kontsultaria eta PTko irakaslea

- Gehienak emakumeak dira, 40 urte edo gehiagokoak (irakasle kontsultariaren %80k eta PTko irakasleen %60,7k 40 urte baino gehiago ditu).
- Laguntzako profesionalen %75 inguruk lan-egoera egonkorra du.
- HPB dituzten laguntzako irakasle gehienak (%79,2) "laguntza gela" izenekora atxikita daude ikastetxean.
- Irakasleek esperientzia handia dute HPB dituzten ikasleen heziketan. %70 inguruk 5 urte baino gehiagoko esperientzia du arlo horretan, eta horietatik %40k 10 urte baino gehiagokoa.
- %80k baino gehiagok Magisteritza du hasierako prestakuntza moduan, eta kopuru garrantzitsu batek beste zenbait ikasketak egin ditu gerora. Irakasle kontsultariaren erdia baino gehiago eta PTko irakasleen ia erdia —%46,6— Pedagogian edo Psikologian lizentziatuak dira, hasierako prestakuntza hori izateaz gain. %6,7k bi lizentziatura ditu.
- Ikastaroen bidez, HPBei buruz prestatzen jarraitzen duten profesionalak dira. Irakasle kontsultariaren %90ek baino gehiagok eta laguntzako %80k berriazko prestakuntza-motaren bat egin du azken hiru urteotan.
- HPB dituzten laguntzako profesionalentzako prestakuntza-jardueren antolatetari eta kudeaketari dagokionez, funtzio garrantzitsuak betetzen dute eskualdeko Berritzeguneek.
- Jasotako prestakuntzaren asebetetze-maila ertaina edo altua da kontsultariaren kasuan, eta zerbait baxuagoa PTko irakasleen kasuan. Kontsultariaren %78ren ustez, nahikoa edo zabala da jasotako prestakuntza; PTko irakasleen %62k iritzi bera du.
- Profesional horien profilak (irakasle kontsultariak eta PTko irakasleak) desberdintasunak baino antzekotasun gehiago agertzen ditu.

CNE duten ikasleen tutoreak Lehen Hezkuntzan

- %76 emakumeak dira; batez beste, 48 urte dituzte, Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen batez bestekoa baino altuagoa da hori.
- Irakasle horien administrazio-egoera egonkortasun altukoa da. %84 behin betiko funtzionarioak, behin-behingoak, edo lan-kontratu finkodunak dira.
- Irakasle horien %30ek baino zertxobait gehiagok 1 eta 2 urte arteko esperientzia du HPB dituzten ikasleekin; hezkuntza-ziklo bati dagokiona, alegia.
- Gehienek hasierako prestakuntza Magisteritza da. Tutore horien %14,3, gainera, Pedagogian edo Psikopedagogian lizentziatuak dira.
- Azken hiru urteotan, %13,4k soilik egin du berriazko prestakuntza-motaren bat. Horiei buruzko asebetetze-maila nahikotasuneko da parte-hartzaileen %69rentzat.
- Ikastetxea bera eta eskualdeko Berritzeguneak aritu dira prestakuntza-jarduerak antolatzen edo/eta kudeatzen.

II. HPB dituzten ikasledun Lehen Hezkuntzako ikastetxeen profila

Ebaluazioan parte hartu duten ikastetxeen ezaugarriak aztertzen dira, eta alderdi hauek hartzen dira kontuan:

- Ikastetxeen ezaugarri nagusiak.
- HPB dituztenen arretarako dauden giza baliabideak.
- Ikastetxe bakoitzeko CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasleak.

• Ikastetxeen ezaugarriak

Informazioa Ikasketa-buruari igorritako galdeketatik jaso da; %87k erantzun du galdeketa.

Ikastetxe erdiek baino zertxobait gehiagok **beharrezko ekipamendua** du ezgaitasun fisikoak dituzten ikasleen sarbidea bermatzeko, ondorengo taulan islatzen den moduan. Arkitektura-oztopoak kendu dituzten ikastetxeen ehunekoa %70era iristen da; ikastetxe horiek malda edo igogailua dituzte, eta horrek ikasleak eskola-eraikinera sartu ahal izatea bermatzen du.

OZTOPOAK KENDU DITUZTEN IKASTETXEEN EHUNEKOA

Igogailua	Maldak	Egokitutako bainugelak
%55,7	%54,5	%45,5

Ikerketa honetan parte hartu duten Lehen Hezkuntzako ikastetxeek **laguntza tekniko** hauek dituzte arazo sentsozialak, edo mugimendu- eta komunikazio-arazoak dituzten ikasleen curriculum-a egokitzeko eta ikasle horien sarrera bermatzeko.

MATERIAL BEREZIAK DITUZTEN IKASTETXEEN EHUNEKOA

CNE duten ikasleentzako ordenagailu pertsonala	Komunikazio-taula	Frekuentzia modulatuak ikastetxean
%45,5	%10,2	%15,9

Ikastetxe horietako batzuk **ikastetxeko proiektu** jakinetan hartzen dute parte. HPB dituzten ikasleei ematen zaien erantzunarekin zuzeneko loturarik ez badu ere, irakasle-taldeak hezkuntza-zereginari aurre egiteko kalitatezko kultura sortzeko duen interesaren adierazle izan daiteke.

PROIEKTUETAN PARTE HARTZEN DUTEN IKASTETXEEN EHUNEKOA

Hizkuntzen ikaskuntza goiztiarra	Kalitate-proiektuak	IKTen garapena
%72,7	%36,4	%65,9

Ikastetxe horiek **HPBei buruzko prestakuntza-jarduerak** egin dituzte azken hiru urteotan. Hitzaldi bidezko prestakuntza-jarduerak izan dira, nagusiki, eta ondorengo taulan adierazten diren gaien buruzkoak izan dira.

AZKEN 3 URTEOTAN, HPBEI BURUZKO PRESTAKUNTZA EGIN DUTEN IKASTETXEEN EHUNEKOA

Aniztasunaren trataera	CNE curriculum-egokitzapenak	Ezgaitasunen bat duten ikasleak	Gizarte-egoera Kaltetuko ikasleak	HPB dituzten ikasleentzat IKTak	Ahiozko Komunikazioa areagotzeko edo ordezkatz. sistema
%71,6	%44,3	%37,5	%36,4	%37,5	%23,9

- HPB dituztenen arretarako giza baliabideak

LAGINEKO IKASTETXE-KOPURUA ETA BALIABIDE BEREZIAK


	Ikastetxe-kopurua	Irakasle kontsultari-kopurua	PTko irakasle-kopurua
Publikoa	53	46	133
Itunpekoa	48	—	74
Guztira	101	46	207

Erreferentzia: Hezkuntza Ordezkaritzen datu-basea

Kontsultarien %100 sare publikoko ikastetxeetan dago. Sare publikoko ikastetxeen %86,7k kontsultaria du; lagineko ikastetxe publikoko 7 ikastetxe soilik dira profesional hori ez dutenak.

Lagineko Lehen Hezkuntzako ikastetxeen %90ek baino gehiagok PTko irakasle bat du, gutxienez.

5 irudia. PTko irakasleak dituzten ikastetxeen ehunekoa



Sare publikoko ikastetxeek biltzen dute PTko irakasleen kopuru handiena. Arrazoietako bat sare horretan HPB dituzten ikasle batzuen arretarako **sortutako baliabide bereziak** izan daitezke; esaterako, ikasgela egonkorak —eskuarki, garapenaren nahaste orokorrak edo adimen ezgaitasun larriak dituzten ikasleentzat— edo ikasle gorrentzako taldekatze-ikasgelak²².

IKASTETXEEN, ETA IKASGELA EGONKORREN ETA IKASLE GORRENTZAKO TALDEKATZE-IKASGELEN EHUNEKOA

	Ikasgela egonkor bat	2 ikasgela egonkor	2 ikasgela egonkor baino gehiago	Ikasle gorrentzako taldekatze-ikasgela bat
Publikoa	%11,8	%2	%3,9	%9,8
Itunpekoa	%8,1	—	—	%5,4

Se analizan también los **recursos humanos externos al centro** que intervienen en el mismo para asesorar en la respuesta educativa al alumnado con NEE.

KANPOKO AHOLKULARIEK ESKU HARTZEN DUTEN LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN EHUNEKOA

Berritzeguneko HPBen aholkulariak	Eskualdeko logopeda	Eskualdeko fisioterapeuta	Itsuentzako baliabidetegia (IBT)	Elkarteak: Down, Aspace, Gautena...
%99	%84	%44	%29,5	%39,8

(22) Ikasgela egonkorak, gorrieria duten ikasleentzako taldekatze-ikasgelak. Ikus 2. eranskina: Terminoen glosarioa.

• CNE eta HPB dituzten ikasleak, eta ikastetxearen baliabideak

Lagineko Lehen Hezkuntzako ikastetxeek ikasle hauei ematen diete arreta:

LAGINEKO HPB DITUZTEN IKASLE-MOTAK, SAREAREN ARABERA

	CNE duten ikasleak	HPB duten ikasleak	Guztira
Publikoa	234	376	610
Itunpekoa	97	316	413

* Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzek emandako datuak. Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara bitartean eskolatutako ikasleak hartzen dira kontuan.

HPB dituzten ikasleen sarekako banaketa nahiko orekatua da; CNE duten ikasleak, berriz, sare publikoan daude, nagusi. Hau izan daiteke horren arrazoia: ikasle horietako batzuk egina izaten dute diagnostikoa eskolatzea hastean, eta familia berariazko baliabideak dituzten ikastetxeetara bideratzen da, seme-alabari arreta emateko. Baliabide berezi horiek, bereziki, ikastetxe publikoetan egoten dira, eta horrek dinamika bat sortu ahal izan du goiz diagnostikatutako ikaslearen eskolatzean.

Honela banatzen dira CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasleak eta ikastetxeek ikasle horien arretarako dituzten baliabideak:

HPB DITUZTEN IKASLEAK ETA IKASTETXEKO BALIABIDEAK 3 LURRALDEETAN

	CNE	HPB	BALIABIDEAK IKASTETXEAN	
Araba	91	262	PTko 43 irakasle	8 kontsultari
Bizkaia	150	299	PTko 111 irakasle	30 kontsultar
Gipuzkoa	90	131	PTko 53 irakasle	8 kontsultari

BIZKAIKO LAGINA²³

PT kopurua ikastetxe-ko	PUBLIKOA			ITUNPEKOA		
	Ikastetxe-kopurua	CNE duten ikasle-kopurua	HPB dituzten ikasle-kopurua	Ikastetxe-kopurua	CNE duten ikasle-kopurua	HPB dituzten ikasle-kopurua
PTko irakaslerik ez	3	7	1	2	0	1
PTko irakasle bat	15	31	67	11	9	36
2 PT	4	14	10	9	9	50
3 PT	6	23	41	4	6	39
4 PT	3	24	25	0	0	0
5 PT edo gehiago	3	27	29	0	0	0

Bizkaian, lagineko CNE duten ikasleen %84 sare publikoko ikastetxeetan dago eskolatuta. %40,4 PTko 4 irakasle edo gehiago dituzten 6 ikastetxe publikoetako batean dago eskolatuta. Sare publikoan, CNE duten ikasleen %24,6ri PTko irakasle bat duten ikastetxeetan ematen zaie arreta.

HPB dituzten ikasleak modu orekatuagoan banatzen dira bi sareetan; hala ere, sare publikoan dauden HPB dituzten ikasleen ehunekoa zertxobait altuagoa da (%57,8).

(23) Lurralde bakoitzeko datuak lagineko Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietako HPB dituzten ikasle guztiei buruzkoak dira, 6. mailakoak barne. Informazio-iturria: Lurralde Ordezkaritzak.

GIPUZKOAKO LAGINA

PT kopurua ikastetxeko	PUBLIKOA			ITUNPEKOA		
	Ikastetxe- kopurua	CNE duten ikasle-kopurua	HPB dituzten ikasle-kopurua	Ikastetxe- kopurua	CNE duten ikasle-kopurua	HPB dituzten ikasle-kopurua
PTko irakaslerik ez	0	0	0	2	5	3
PTko irakasle bat	5	10	22	5	10	20
2 PT	1	0	6	5	18	19
3 PT	2	8	11	1	8	2
4 PT	0	0	0	2*	0	10
5 PT edo gehiago	2	31	38	0	0	0

* Ikastetxe batek PTko 4 irakasle baino gehiago ditu; ez da CNE edo HPB dituzten ikaslerik zenbatu, Bigarren Hezkuntzan baitaude eta, hori dela-eta, ez dira laginean sartzen.

Lagineko Gipuzkoako ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan antzera banatzen dira CNE dituzten ikasleak: %54,4 sare publikoan dago, eta %45,5, itunpekoan. Publikoan eskolatutako ikasleen %63 baliabide-kopuru bat duten (PTko 5 irakasle edo gehiago) bi ikastetxetan biltzen dira.

Lagineko ikastetxe publikoetan arreta jasotzen duten HPB dituzten ikasleen ehunekoa zerbait altuagoa da ikastetxe publikoetan (%58,7), itunpekoetan (%41,2) baino.

Gipuzkoako CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasleen lagineko ikastetxe publikoetako eta itunpekoetako banaketa orekatu horren arrazoia lurraldeko elkarteek integrazioaren hastapenean bete zuten lanean egon daiteke.

ARABAKO LAGINA

PT kopurua ikastetxeko	PUBLIKOA			ITUNPEKOA		
	Ikastetxe- kopurua	CNE duten ikasle-kopurua	HPB dituzten ikasle-kopurua	Ikastetxe- kopurua	CNE duten ikasle-kopurua	HPB dituzten ikasle-kopurua
PTko irakaslerik ez	—	—	—	—	—	—
PTko irakasle bat	2	4	18	7	32	136
2 PT	1	2	9	—	—	—
3 PT	—	—	—	—	—	—
4 PT	—	—	—	—	—	—
5 PT edo gehiago	5	53	99	—	—	—

Lagineko Arabako ikastetxeetako CNE duten ikasleen %65 sare publikoan dago eskolatuta. Portzentai horretako gehienak (%89,8, hain zuzen ere) 5 ikastetxe publikotan daude, eta giza baliabide garrantzitsuak dituzte (PTko bost irakasle edo gehiago) ikastetxe horiek.

Arabako CNE duten ikasleak berdin banatzen dira titulartasun publikoko eta itunpeko ikastetxeetan. Nabarmentzekoa da PTko irakasle bat duten ikastetxeetan arreta jasotzen duten HPB dituzten ikasle-kopurua.

Arabako ikasleen integrazio- edo barneratze-mota lurralde horretako integrazioaren hastapenen zordun izan daiteke. Lurralde horretan, berariazko ikastetxeak itxi ziren eta ikasleak ikastetxe jakinetan sartu ziren, bereziki, titulartasun publikoko ikastetxeetan. Bertan, ikasleak nahiz baliabide espezializatuak bildu zituzten. Hala erakusten dute datuek: CNE duten ikasleen %77 eta HPB dituzten ikasleen %78 baliabide espezializatu garrantzitsuak dituzten bost ikastetxeetan banatzen dira.

Laburbilduz, eta lurralde bakoitzean CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasle-kopuruari erreparatuz, honako hau ondoriozta daiteke:

- HPB dituzten ikasleak nahiko modu orekatuan banatzen dira bi sareetan (publikoan eta itunpekoan), hiru lurraldeetan.
- Baliabide espezifiko gehiago eta CNE duten ikasle gehiago kontzentratzen dira sare publikoan. Ez da erraza bi sareak alderatzea, errealitate desberdinak baitituzte baliabideei, egiturei eta abarri dagokienez. Ezgaitasunen bat duten ikasleen eskolatzeari ikastetxe publikoetara bideratzeko sortutako dinamika egon daiteke, haiek baitituzte baliabide espezifiko gehien.
- Araban eta Bizkaian, titulartasun publikoko ikastetxeetan barneratutako CNE duten ikasle-kopurua handiagoa da; Gipuzkoan, berriz, banaketa orekatuagoa da bi sareen artean. Lurralde horretan, funtzio garrantzitsua bete dute familien elkarrekin, bai ezgaitasunak goiz hautemateari dagokionez, bai eskolatzeko orientazioari dagokionez. Tradizioz, itunpeko ikastetxeetara eta publikoetara atxikita egon dira, eta horrek eragin ahal izan du nolabaiteko banaketa orekatu hori.
- Araban, ikastetxe espezifikoekin jarraitutako ibilbidea (itxi eta ikasleak eta baliabideak ikastetxe publiko gutxi batzuetan bildu ondoren) CNE duten ikasle gehienak ikastetxe-kopuru murriztean bildu izanaren arrazoia izan daiteke.
- Hiru lurraldeen arteko biztanleria-desberdintasuna kontuan hartuz, nabarmentzekoa da Araban CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasleen kopurua altua dela (Gipuzkoakoaren bikoitza, eta Bizkaikoa baino 63 gutxiagokoa soilik).
- CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasle-kopuruaren desberdintasun horiek pentsarazten dute irizpide desberdinak daudela ikasleak Lurraldeko Ordezkaritzara igortzen diren zerrendetan sartzeko.

III. CNE duten ikasleen familien profila

Galde-sortatik jasotako datuak ikastetxe arruntetan eskolatuta eta curriculum-egokitzapen esanguratsuak behar dituzten hainbat motako hezkuntza-premia bereziak dituzten seme-alaben 104 familiei buruzkoak dira.

Galde-sortari erantzuteko gaztelania erabili du %95ek, eta euskara %5ek. Galdeketa amak soilik erantzun du kasuen %55,8an, aitak soilik %5,8an, biek %28,8an, eta beste norbaitek kasuen %4,8an. Azken ehuneko horixe da erantzun ez dutenen ehunekoa ere.

SEME-ALABEN EZAUGARRIAK

- **Sexua**

Lagineko familietan hezkuntza-premia bereziak dituzten seme-alaben artean, 71 mutilak (%68,3) dira, eta 33 neskak (%31,7).

- **Ezgaitasun-mota**

EZGAITASUNA	Ikasle-kopurua	Ehunekoa
Psikikoa	49	47,1
Fisikoa	15	14,4
Sentsoriala (entzumena+ikusmena)	19 (12+7)	18,3
Besterik*	19	18,3
EZ/EDE	2	1,9
GUZTIRA	104	100

* Zenbait ezgaitasun, edo ezgaitasunarekin lotutako arazoak

- **Eskolatzeko-adina**

Eskolatzeko-adina	Ehunekoa
2 urterekin	42,3
3 urterekin	44,2
4 urterekin	4,8
5 urterekin	3,8
EZ/EDE	4,8


- **Modelos lingüísticos de escolarización**

	A eredia	B eredia	D eredia
CNE duten ikasleak	45 (43,3%)	21 (20,2%)	37 (35,6%)

- **Hezkuntza-premia bereziak**

Las Ezgaitasunak, hezkuntzan, sistemak erantzun beharreko hezkuntza-premia berezi moduan definitzen dira. Ehuneko altuenak eskola-atzerapenarekin eta hezkuntzaren eta komunikazioaren garapenarekin lotutako beharrei dagozkie. Familia horietan CNE dituzten haurren %49k zailtasun espezifikoak ditu irakurtzen eta idazten ikasteko. Zailtasun-motak ez dira beste edozeinen baztertzailak.

6 irudia. CNE duten ikasleentzako zailtasun arloak. Ehunekoak



• Eskolaz kanpoko eta aisialdiko jarduerak

Familia horien haurrek eskolaz kanpoko jarduera hauek egiten dituzte:

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK EHUNEKOA

	Ikastetxean	Elkartean	Errekuperazio-klaseak	Eskolako lanak
1 ordu baino gutxiago astean	10,6	13,5	8,7	29,8
1edo 2 ordu astean	16,3	6,7	19,2	47,1

Haurren %50ek ez dio denborarik ematen kirolari. Familiek diotenez, astean telebista ikusten ematen duten denbora murrizta da; %70ek telebista astean bi orduz ikusten du, gehienez ere.

AISIALDIKO JARDUERAK


	Kirolak	TB ikustea
1 ordu baino gutxiago astean	22,1	32,7
1 edo 2 ordu astean	25	37,5

FAMILIA-NUKLEOAREN EZAUGARRIAK

• Seme-alaben kopurua

Honela banatzen da familien seme-alaben kopurua:



7 irudia. Seme-alaba kopurua familian. Ehunekoak



Etxean bizi den jende-kopuruari dagokionez, gehiengoa dira 4 kidez osatutako familia-nukleoak: familien %45,2 aitak, amak eta bi seme-alabak osatzen du.

• **Gurasoen adina**



Hau da lagineko gurasoen adin-banaketa



Aiten batez besteko adina 44 urtekoa da (1960an jaiotako) azterketa egin den unean. Amen batez besteko adina, berriz, 41 urtekoa da (1963an jaiotako).

• **Gurasoen ikasketak**



Ondorengo grafikoek aitek eta amek egindako ikasketak altuenak agertzen dituzte:



Alderatuz, batxilergoa eta erdi-mailako unibertsitate ikasketak dituzten amen ehunekoa aitena baino altuagoa da; aiten artean, bestalde, altuagoa da ehunekoa goi-mailako unibertsitate ikasketei erreparatuz gero.

• **Gurasoen lan-egoera**

Taulan, lagineko gurasoek galde-sorta betetzean zer lan-egoera zuten jasotzen da.




Lagineko amen erdiak soilik du ordaindutako lana; aiten kasuan, berriz, %79k.

- **Elkarteetako kide izatea**

Ezgaitasunekin lotutako erakundetako kide diren lagineko familien ehunekoa ondorengo grafikoan agertzen da.

14 irudia. Elkarteetako kideen ehunekoa




Ezgaitasunekin lotutako elkarteetara lotuta edo bertako kide diren familien ehunekoa %50era iristen da ia-ia.

- **Hezkuntza-prozesuaren jarraipena**

Galdetutako familien erdiak baino gehiagok dio ama dela seme-alaben eskola-jarraipenaz arduratzen dena. Familien %36ren kasuan, bi gurasoak dira horretaz arduratzen direnak.

CNERi buruzko kapituluan, familiek seme-alaben hezkuntza-erantzunari buruzko asebetetze-mailari eta eskolatzeko parte-hartzeari buruzko informazio zehatzagoa jasotzen da.

15 irudia. Eskola-jarraipena



Lagineko CNE duten ikasleen familien profil orokorra ondorengo dela ondoriozta daiteke:

- Familia gehienak bikoteak eta bi seme-alabek osatzen dituzte, eta, ondoren, seme-alaba bakarreko familiak aurkituko ditugu. Familia ugarien ehunekoak nabarmen egiten du behera.
- Aitek, oro har, etxetik kanpo egiten dute lan; lehen mailako ikasketak edo/eta batxilergoa, eta lanbide heziketa egin dituzte eta, batez beste, 44 urte dituzte.
- Amen erdiak soldata jasotzen du etxetik kanpo lan egiteagatik; gehienek lehen mailako ikasketak egin dituzte, eta aiten kasuan baino ehuneko handiagoak egin du batxilergoa edo lanbide heziketa. Amek, batez beste, 41 urte dituzte.
- Asoziazionismo-maila, hau da, ezgaitasunekin lotutako taldeetako kide izatea, %50era iristen da, gutxi gorabehera.
- Ama da, nagusiki, seme-alabaren eskolatzearen jarraipenaz arduratzen dena.


B. Hezkuntza-erantzunaren azterketa

Eskola inklusiboaren esparruan, ikastetxea profesionalak, ikasleek eta familiek osatutako sistematzat hartzen da. Familien eta ikasleen premiak eta ikastetxeko planteamendu orokorrek profesionalak erabiltzen dituzten estrategiak baldintzatzen dituzte eta ikasleek jasotzen dituzten erantzun-motei eragiten diete; beraz, interesgarria da hori aztertzea.

Beheko grafikoa, azterketaren hiru esparruak ageri dira:

- **Ikastetxeak, oro har**, eskola inklusiboaren printzipioei jarraituz HPB dituzten ikasleak onartzen ditu eta bakoitzaren beharrei edo premiei egokitutako hezkuntza-erantzun egokia eman behar du.
- **Profesionalak**, CNE eta beste HPB batzuen bidez ikasleez arduratzen direnak eta premia horiei zenbait **metodologia-estrategia** erabiliz ekiten dietenak: CNE duten ikasleen tutoreak eta ikastetxeko laguntzako profesionalak, irakasle kontsultariak eta PTkoak.
- Azkenik, **CNE**, hezkuntza-sistemak martxan jarritako sistema bat baita, zenbait ikasleri erantzuteko, eta horren garapenean hezkuntza-administrazioak, ikastetxeak, profesionalak, familiak eta ikasleak berak hartzen baitute parte.

Familiak elementu aktiboa dira ikasleari heziketa eta prestakuntza emateko; familien eskaeren, beharren, parte-hartzearen eta asebetetasunaren azterketa zeharka egiten da aurreko esparruetan.



I. Ikastetxeak: hezkuntza-erantzuna antolatzeko planteamenduak

HPB dituzten ikasleei emandako hezkuntza-erantzuna balioztatzeko erreferentzia bat ikastetxeetan hezkuntza-arreta antolatzeko aukera ematen duen aurretiazko planteamendu orokorrik badagoen aztertzea da. Agertzen diren hezkuntza-beharrez arduratzeko irizpideak eta lehentasunak argi eta garbi adierazten dituzten irakasleak horri buruzko hausnarketa egin eta erabakiak hartu dituen taldea da. Horregatik, irizpideak aztertzen dira, nola eta non adierazten diren eta dituzten hezkuntza-baliabideak erabiltzeko zer lehentasun dituzten.

1. HPB DITUZTEN IKASLEEN ARRETA ANTOLATZEKO IKASTETXEAREN IRIZPIDEAK

Ikasketa-buruen iritziz, Lehen Hezkuntzako ia ikastetxe guztiek dituzte hezkuntza-erantzuna antolatzeko eta CNE eta HPB dituzten ikasleei arreta emateko irizpideak definituta.

HPB DITUZTEN IKASLEEI LAGUNTZA EMATEKO IKASTETXEKO IRIZPIDEAK

BAI	EZ
%90,9	%9,1

Ikastetxe askotan, ezarritako irizpideak idatziz jasotzen dira ikastetxeko dokumentu batean baino gehiagotan. Laguntza gelako programazioa, ikaslearen CNE eta ikastetxeko urteroko plangintza dira hezkuntza-erantzuna antolatzeko irizpide nagusiak biltzen dituzten dokumentuak. Laguntzako profesionalek ematen dituzten horri buruzko datuak eta Ikasketa-burutzarenak bat datoz.

HPB DITUZTEN IKASLEEN ARRETARAKO IRIZPIDEAK BILTZEN DITUZTEN DOKUMENTUAK

ICP	Ikastetxeko urteroko plana	Ikaslearen CNE	Zikloko programazioa	Laguntza gelako programazioa
%56,3	%77,55	%87,55	%37,5	%91,3

Lehen Hezkuntzako ikastetxe horien erdiak baino gehiagok ikastetxean nolabaiteko egonkortasuna duten dokumentuetan gordetzen dituztela ikusten da; ICPn, esate baterako. Gainera, askok urtero berrikusten diren beste dokumentu batzuk erabiltzen dituzte, eta, beraz, une jakin batean izan daitezkeen beharrei molda dakizkieke.

Lagineko ikastetxeek CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasleei laguntzeko antolaketari buruzko **irizpideen berrikuspena** egiten dute. Ia ikastetxe guztiek egiten duten urteroko berrikuspenak ikasturte bakoitzeko egoerari erantzuteko irizpideen egokitzapen bat dela adierazten du.

HPB DITUZTEN IKASLEEI LAGUNTZA EMATEKO IKASTETXEKO IRIZPIDEAK BERRIKUSTEA

Urtero	2 urtetik behin
%98,7	%1,3

2. IKASTETXEAREN LEHENTASUNAK HEZKUNTZA-ERANTZUNA ANTOLATZEAN


Lagineko Lehen Hezkuntzako ikastetxeek CNE duten ikasleei arreta ematea lehentasunezkoa dela adierazten dute, argi eta garbi. "Oso lehentasunezkoa eta nahikoa lehentasunezkoa" iritzitakoari dagozkion ehunekoak aztertuta, ikastetxeen %96,3an, CNE duten ikasleek gehieneko lehentasuna dutela ikusten da baliabideen arretan eta banaketan (%3,8k ez dio erantzun gai horri).

Ondoren, eskola-atzeratasuna duten ikasleak eta hizkuntzarekin arazoak dituztenak daude; biek ere antzeko lehentasuna dute. Azkenik, arreta-lehentasunari dagokionez, jokaera-arazoak dituztenak daude; hala ere, %66,3 garrantzi-

tsu batek oso beharrezkotzat jotzen du horrelako egoeretan laguntza ematea. Praktikan, horrelako arazoek arduraz dezente eragiten dute, ikasgeletan sortzen den itxuraldatzea dela-eta.


Hezkuntza-sarea aintzat hartuta, itunpeko ikastetxeek eta publikoek patroia berari eusten diote, arreta-lehentasan ordenatzean.

16 irudia. Ikasketa-buruak. Ikastetxeko lehentasan, HPB dituzten ikasleei arreta emateko




Horri buruz, kontsultariak eta laguntzako irakasleak bat datoz ikastetxeetako Ikasketa-burutzekin. Kontsultariaren %100entzat eta PTko irakasleen %90,2rentzat "oso eta nahikoa lehentasaneko" da CNE duten ikasleei ematea arreta lehentabizi.

17 irudia. Kontsultariak. Banakako laguntza emateko lehentasan




18 irudia. PTko Irak. Banakako laguntza emateko lehentasan



Ikastetxeek **esku-hartze esparruari** buruzko zenbait lehentasun ezartzen dituzte, banakako laguntza emateko HPB dituzten ikasleei. Ikastetxeen %90ek “oso eta nahikoa lehentasunezkoa” irizten dio laguntza gelako banakako arretari; horien %73,8ren ustez, lehentasun berekoa da banakako arreta ematea ikasgela arruntean.

Ikastetxeetako PTko irakasleek eta irakasle kontsultariak uste dute lehentasun handiagoa duela laguntza gelan banakako arreta emateak, haien artean aldeak izan arren. Ikasgela arruntean banakako arretari emandako lehentasunari dagokionez, hiru profesionalen ehunekoak antzekoak dira, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan.

19 irudia. Lehentasunak. banakako arretarako esparruak “oso lehentasunezkoa”.



Ikastetxeko profesionalen arteko koordinazioa elementu erabakigarria da hezkuntza-erantzuna antolatzeko. Lehen Hezkuntzako ikastetxeen %86,4k, ikastetxeko ordutegiak egiten dituenean, HPB dituzten ikasleei arreta ematen dieten profesionalak elkarrekin koordinatzeko denbora-tarteak ezartzen ditu.

CNE duten ikasleen **familiekiko koordinazioa** eta haiekin aldizka harremanak izatea “oso lehentasunezkoa” da laginekiko ikastetxeen %65ean. Ikastetxeen %55ek “oso lehentasunezkoa” jotzen du **ikastetxeko ikasle arruntekin lantzea** integrazioarekin lotutako **balioak**; esate baterako, begirunea, elkartasuna eta elkarrenganako laguntza.

Beste alderdi batzuei lehentasun txikiagoa ematen diete; esate baterako, HPB dituzten ikasleei laguntza ematea gizarte-jardueretan —jangelan eta patioan, adibidez—, jarduera horietan parte hartzen dutela ziurtatzeko. Hori erakusten dute, hain zuzen, hurrengo taulako ehunekoak.

IKASTETXEAREN LEHENTASUNAK, IKASLEEI ARRETA EMATEAN. EHUNEKOAK

	Oso lehentasunezkoa	Nahikoa lehentasunezkoa
HPB dituzten ikasleen familiekin aldizkako bilerak egitea	65%	30%
Integrazioarekin lotutako balioak ikasle arruntekin lantzea	55%	41,3%
Gizarte-jardueretan laguntza ematea: jangelan, patioan...	30%	40%
Jarduera ez-akademikoetan laguntza ematea: eskolaz kanpokoak, jaiak...	28%	43%

Lehentasun horiek oso antzekoak dira sare publikoko eta itunpeko ikastetxeetan. Horren haritik, esan beharra dago CNE duten ikasleen familien %61,5en iritziz ikastetxeko bilerak gai orokorrak lantzeko “oso eta nahikoa garrantzitsuak” direla. Gainera, horien %79k garrantzi handia ematen dio haien haurrak eskolatuta dauden mailetan hezkuntza-premia bereziei buruzko bilere, CNEren azterketa izeneko atalean adierazten den moduan (81. or.).


3. IKASTETXEEK PTKO IRAKASLEEI ETA IRAKASLE KONTSULTARIEI EGINDAKO ESKAERAK

Ikastetxeko irakasle arruntek laguntzako irakasleei egiten dizkieten berriazko eskaerak nolakoak diren aztertzen da, bai CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasleei zuzenean nor bere ikasgelan arreta emateko, bai ikasgelako programazioa oinarri hartuta erantzuteko moduari buruz aholkularitza jasotzeko.

Laguntzako espazioari dagokionez, CNE duten ikasleei ikasgela arruntetik kanpo, berriazko espazio batean —esate baterako, laguntza gelan— arreta emateko eskaera ikasgelan bertan ematekoa baino handiagoa da. Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, profesional horien %20ri bakarrik eskatzen zaie laguntza ikasgela arruntaren barruan emateko.

Horren haritik, familien asebetetze-mailari buruzko atalean 83. or.) deskribatutako moduan, kontsultatutako familien %88,5entzat, laguntza gelako eta ikasgela arrunteko arreta konbinatzea da egokiena.

20 irudia. Ikastetxeak irakasle kontsultariei eta PTKoei egindako eskakizunak




Irakasle kontsultariei eta PTKoei, laguntza ematearekin lotuta, gehien eskatzen dizkieten hiru alderdiak honako hauek dira, ordena honetan:

- Irakurtzeko eta idazteko laguntza
- Eskola-atzeratasunerako laguntza
- CNEren berriazko alderdiak lantzea

Hain zuzen, profesional horien %85 baino gehiagok "askotan eta beti" jasotzen ditu ikasleei irakurtzen eta idazten laguntzeko eskaerak; kontsultarien %89k eta PTKo irakasleen %79,2k "askotan eta beti" jasotzen ditu eskola-atzeratasuna duten ikasleei laguntzeko eskaerak. Hirugarrenik, %70 ingururi CNEren alderdiak lantzeko eskaera egiten zaie.


Hurrengo grafikoan ageri den moduan, beste alderdi batzuekin lotutako eskaerak urriagoak dira; alderdi horietako batzuk honako hauek dira: ikasgelako programazioa egiteko laguntza, norberaren autonomia garatzeko laguntza eta zenbait ikasleren jokaera kontrolatzeko jarraibideak. Dena den, alderdi horiekin lotutako eskaerak PTKo irakasleei egiten zaizkie, batik bat.

21 irudia. Irakasle arruntek kontsultariei eta PTkoei egindako eskakizunak



Ikastetxean kontsultaririk egotearen edo ez egotearen arabera, PTko irakasleek jasotzen dituzten eskaerak ez dira aldatzen, lehentasun-eredu berari jarraitzen diote; hala ere, horietako bakoitzaren ehunekoa pixka bat handiagoa da kontsultaririk ez duten PTko irakasleen kasuan. Hau da, kontsultaririk ez dagoen ikastetxeetan, PTko irakasleek bere gain hartzen dituzte normalean kontsultariei egiten zaizkien eskaerak.

22 irudia. Irakasleek PTkoei egindako eskakizunak, kontsultaria duten eta ez duten ikastetxeetan



II. Profesionalak: hezkuntza-erantzunaren azterketa


CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasleen integrazio-prozesuari lagundu eta bultzada bat emateko irakasleek gehien erabiltzen dituzten antolatze moduak, estrategiak eta irakaskuntza-jarduerak ezagutzea komenigarria da. Horren haritik, laguntzako profesionalen edo espezialisten hezkuntza-jarduerak aztertzeaz gainera, ikasgela arrunteko tutoreek CNE edo beste HPB batzuk dituzten ikasleak izan eta ikasgelako programazioaren egokitzapenak egiten dituztenean garatzen direnak aztertzen dira.

1. CNE ETA BESTE HPB BATZUK DITUZTEN IKASLEEN TUTOREEK GARATUTAKO HEZKUNTZA-JARDUERAK

CNE duten ikasleen 112 tutoreen taldearen hezkuntza-planteamenduetan sakondu aurretik, komeni da jakitea zenbat ikasle dauden ikasgela bakoitzean eta zer-nolako aurretiazko informazioa duten haiei buruz.

Hurrengo grafikoan ageri dira bildutako datuak. Hortik ondorioztatzen da lagineko tutoreen %67,5ek ikasgelako 16 eta 25 ikasle bitartean dituela. %11 inguruk 26 eta 30 ikasleko taldeak ditu, araudiak uzten duen gehienezko kopurua, alegia. Kasu horietan guztietan CNE duen ikasle bat dago ikasgelako taldean.

23 irudia. Ikasle-kopurua taldeko



Irakaskuntza-jarduera on bat ikasleei buruzko informazioa biltzea da, erlazio-prozesuan eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan behar bezala esku hartzen laguntzeko. Informazio horren artean ikasketen historiala, eskolatzearen hasiera, hezkuntza-ibilbidea eta abar daude.

Ikasgeletan CNE duten ikasleak dituzten tutoreek iragarri dute horien %73,6k mailaren bat errepikatu duela. Horien %29,5ek Haur Hezkuntzan errepikatu du maila, eta %31,3k, Lehen Hezkuntzako lehen zikloan. Beraz, CNE duten ikasleen lagineko %60,8k mailaren bat errepikatu zuen, oso adin txikikoa zenean.

Errepikapen kopurua	Ikasleen ehunekoa
Maila bat	64,8
2 maila	8,8

• Metodologia-planteamendu orokorrak ikasgelan

Tutoreen taldearen ikasgeletako metodologia- eta antolaketa-planteamenduak aztertu dira, lanerako modu arruntenean berri izateko, banakako lana edo talde homogeenoztat prestaturakoa bultzatzen den, edo txokoetako²⁴, tailetako edo interesguneetako jarduerekin lotutako beste antolatze modu batzuk zenbateraino dauden orokortuta.

(24) Ikus mota horretako metodologia-antolaketa definizioa 2. eranskinean: Terminoen glosarioa

Ohikoa da ikasgelako diferentzia indibidualari egokitutako irakaskuntza-jarduera erabiltzea. Tutoreen herenak baino gehiagok berresten dute hori; izan ere, *beti* banakako metodologia erabiltzen dutela diote, jarduera eta material egokituak dituen, ikasle bakoitzaren berezitasunei egokitutako banakako jarduera praktikara eramatea oso zaila izan arren. Beheko taulan, “*askotan eta beti*” erabiltzen duten metodologia-motaren ehunekoak ageri dira.

IKASGELA ARRUNTEKO TUTOREEN METODOLOGIA-LEHENTASUNAK

Egokitutako jardueren eta materialen bidezko banakako lana	71,4
Talde heterogeneoetako lana	41
Txokoetako lana, tailerrak edo proiektuak	17,8
Talde homogeneoetako lana	16,1

Ikasgela metodologikoki antolatzeke moduarekin lotutako lau lehentasun horien arteko korrelazioa handia da, eta irakasleek lan egiteko hainbat modu erabiltzen dituztela adierazten du, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko egoerak eta jarduerak lantzeko moduen arabera.

Txokoetako lanaren eta banakako lanaren arteko korrelazioa handia da (0,8). Beraz, ondoriozta daiteke metodologia horrek gehiago errazten duela banakako lana eta ikasleei egokitutakoa talde homogeneoetan edo heterogeneoetan antolatutakoa baino. Lan egiteko modu horri eta interesguneetan oinarritutako metodoei esker, zenbait ikasketa-eritimo errespetatzeaz gain, taldeko lana eta horrek dakarren guztia bultzatzen da.

• Ikasgelako metodologia-planteamenduak, CNE duten ikasleak badaude

Metodologiarik erabiliena eta ikasgelan lan egiteko modua aztertzen dira, CNE duen ikasle bat dagoen kasuetarako.

Aurreko kasuan bezala, planteamendurik orokorra CNE duen ikaslearekin banakako lana egitea da, materialak eta jarduerak egokituz. Hori egiten du tutoreen %80k baino gehiagok. Tutoreen %39,2k ikasgelako programazioan jasotzen ditu CNE bat duen haurrentzako definitutako berariazko helburuak eta edukiak.

CNE DUTEN IKASLEEN TUTOREEK ERABILITAKO IKASGELAKO METODOLOGIA. EHUNEKOAK

Egokitutako jardueren eta materialen bidezko banakako lana	81,2
Talde homogeneoetako lana	6,3
Talde heterogeneoetako lana	33
Txokoetako lana, tailerrak edo proiektuak	13,4
CNEaren edukiak eta helburuak ikasgelako programazioan sartuta	39,2


CNE duten ikasleak egotearen edo ez egotearen arabera erabiltzen diren ikasgelako estrategiak alderatuta, oro har, antzeko proportzioan lantzen dira, ikasgelan CNE duten ikasleak egon ala ez. Hau da, metodologia jakin bat (banakako lana, kasu honetan) nahiago izatea ez da ikasgelan CNE duten ikasleak egotearen araberakoa. Segur aski metodologia-aukera horiek nahiago izatearen arrazoiak aurretiko pedagogia-planteamenduak eta askotariko ikasleei ikasgelatik erantzuteko lan-esperientzia luzean zehar finkatutako jarduerak dira. Lana talde homogeneoetan egiten denean soilik ikusten dira aldeak. Irakasleek diotenez CNE duten ikaslerik ez badago neurri handiagoan egiten da lan talde homogeneoetan.

• Irakasleek erabiltzen dituzten ikastetxeko baliabideak

CNE duten ikasleen irakasleen esku jarritako baliabideen artean kontsultaria dago, sare publikoko ikastetxeen %90ean.

Kontsultaria duten ikastetxeetako irakasleen %80k profesional horren laguntza jasotzen duela dio.

24 irudia. Tutoreek erabiltzen dituzten baliabideak




PTko irakasleak, berriz, ikastetxe guztietan daude. Ikasgelan CNE duten ikasleak dituzten irakasleen %88,4k haien laguntza eskatu izan duela dio.

Irakasleen esku dauden beste baliabide batzuk baliabide espezializatuak behar dituzten ikasleentzakoak dira; gutxi batzuentzat direnez, ikastetxe batzuetan bakarrik daude. Esate baterako, entzumenerako eta hizkuntzako ikasgelak, ikasgela egonkorak, gortasuna duten ikasleentzako ikasgelak eta hezkuntza-laguntzako espezialistak (laguntzaileak).

• Irakasleek erabiltzen dituzten eskualdeko baliabideak

Eskualdeko beste baliabide batzuk ere irakasleen esku daude, eta horiek erabiltzea ikastetxeko eta ikasgelako beharren araberakoa eta hezkuntza-arreta berezia eskatzen duten ikasleak egotearen araberakoa da. Baliabide horiek fisioterapeuta eta HPBetako Berritzeguneko aholkularia dira; normalean, ikastetxearen eskualdeko Berritzegunean egoten dira.

25 irudia. Eskualdeko baliabideen laguntza



Zenbait baliabide —fisioterapia, esate baterako— gutxi erabiltzen dira, eta hori bat dator ezgaitasun horri buruzko datuekin (45. or.). Fisioterapeuta arazo fisikoak dituzten ikasleez arduratzen da.


Berritzeguneetako HPBetako aholkulariek irakasle horien %46,4ri ematen diete laguntza. Ehuneko hori nahikoa txikia da; agian, ikastetxean bertan laguntzarako tarteko beste profesional batzuk daudelako, ikasleei aholkuak emateko. Esate baterako, kontsultariak eta PTko irakasleak. Ondoriozta liteke HPBetako aholkularien lana hasierako diagnostikoa egitea dela, HPB dituzten ikasleak eskolatzeko proposamenak egiteko behar diren baliabideak balioestea eta horien kudeaketa egitea. Ezin da alde batera utzi CNE duten ikasleen jarraipenean eta ikastetxearen aholkularitza orokorrean duten parte-hartzea.

• Irakasleek erabiltzen dituzten lurraldeko baliabideak

Beste mota batzuetako baliabideen zerbitzuak lurralde osoa hartzen du, eta, beraz, bertako ikastetxe guztiak. Horien artean daude Okupazio-terapeuta eta Itsuentzako Baliabidetegiak (IBT)²⁵, laguntza lurralde osoan ematen duten ikastetxe autonomo gisa. Gainera, hezkuntza-sistemaz kanpo, gurasoen elkarte asko daude, eta autonomia erkidegoan antolaketa bateratua duten arren, jardute-esparrua lurralde osoa da.

Zerbitzu horiek tutoreei ematen dieten laguntza hurrengo grafikoan ageri da.


26 irudia. Lurraldeko baliabideen laguntza



• Tutoreen parte-hartzea, hezkuntza-erantzuna antolatzeko

Tutoreek zenbait agenterekin batera hartzen dute parte, CNE duten ikasleentzako hezkuntza-erantzuna antolatzeko. Grafikoan ikus daitekeen moduan, lankidetzeta-mailarik handiena laguntzako profesionalen kasuan lortzen da, eta neurri txikiagoan, hezkuntza-zikloko bileren bidez.

27 irudia. Tutorearen parte-hartzea hezkuntza-erantzuna antolatzeko



(25) Ikus baliabide horien definizioa 2. eranskinean: Terminoen glosarioa.

• Baliabideak balioestea


Ikasleei laguntzeko ikastetxeko giza baliabideei buruz tutoreek dituzten iritzia aztertu dira. Bi alderdi balioetsi dira:

- Dauden baliabideak hezkuntza-beharrei egokitzea.
- Zenbat baliabide dauden eskuragarri hautemandako beharrei arreta emateko, eta nahikoa diren ala ez erabakitzea.


CNE duten ikasleen irakasle-tutoreen %80k uste du erabilgarri dauden giza baliabideak egokiak direla hautemandako problematikari erantzuteko.

Tutoreen erdiak, gutxi gorabehera, uste du baliabide horiek ez direla nahikoa eta gehiago behar direla; horien heren bat inguruk soilik uste du nahikoa direla.

28 irudia. Ikastetxeko gizabaliabideak



29 irudia. Laguntza teknikoak eta materialak



Ikastetxeko laguntza teknikoari eta eskuragarri dauden materialei buruzko iritzia antzekoa da: %70en ustez, egokiak dira beharrei aurre egiteko; %33k baino ez du uste nahikoa ez direnik.

Oro har, tutoreen hezkuntza-jarduerak eta CNE duten ikasleak dituzten baliabideen eskaera honelakoak dira:

- Ez dago berriazko metodologia-lehentasunik, lan egiteko moduak ikasgelako egoerei egokitzen zaizkie, ikasleen eta ikasketa-motaren arabera.
- Ikasgelan CNE duen ikasle bat egon arren, ez dira aldatzen lan egiteko modua eta irakaskuntza-ikaskuntza-jarduerak antolatzea.
- Tutoreek gehien eskatzen dutena PTko irakasleen esku hartzea da, eta, ondoren, irakasle kontsultariena, profesional horiek dauden ikastetxeetan.
- Tutoreak ahalik eta gehien parte hartzen du CNE duten ikasleei ikastetxeak eman beharreko hezkuntza-erantzuna antolatzen, eta zikloan, zuzendaritza-taldean eta Berritzegunean gutxiago parte hartzen du.
- Zerbitzuen eskaera gero eta txikiagoa da ikastetxetik urrunago dauden heinean (Berritzeguneak, esate baterako) eta oso espezializatuak direnean; fisioterapeutak, okupazio-terapeutak eta Itsuen Baliabidetegiak (IBT) kasu.
- Tutore gehienek ustez, giza baliabideak eta baliabide teknikoak egokiak dira, baina ez behar adinakoak dauden beharrei erantzuteko.

2. LAGUNTZAKO PROFESIONALEK GARATUTAKO HEZKUNTZA-JARDUERAK

CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasleei arreta emateko Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan laguntzako profesiona-
lek —irakasle kontsultariak eta PTko irakasleak— gehien garatzen dituzten hezkuntza-jardueren motak aztertzen dira.
Hiru motatako jarduerak bereizten dira, nori zuzenduta dauden aintzat hartuta:

- ikastetxeari, oro har
- CNE duten ikasleen tutore diren irakasle arruntei
- CNE duten ikasleei.


Ikastetxeari zuzendutako hezkuntza-jarduerak

Ikastetxeari zuzendutako irakaskuntza-zereginak dira. Helburua CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasleak integra
daitezela erraztea da eta hezkuntza-erantzunean aholkularitza-lanak egitea.

• Irakasle kontsultariak

- Ohikoenak 3 hezkuntza-zeregin hauek dira:
 - Ikastetxeko baliabideen planifikazioa egitea, HPB dituzten ikasleei arreta emateko; irakasle horien %98k har-
tzen du parte *“beti eta askotan”*.
 - Ikastetxeko HPB hautematea; ikastetxeko kontsultarien %100ek egiten du zeregin hori *“beti eta askotan”*.
 - Ikastetxez kanpoko aholkulariekiko koordinazioa (logopedak, IBT, Berritzeguneetako HPBen aholkulariak eta
abar); kontsultarien %97,8k egiten du.
- Ikastetxeko ikasleei edo klaustroari HPBei buruzko informazioa edota prestakuntza emateko jarduerak dira gu-
txien gertatzen direnak (%39 inguru).


30 irudia. Kontsultaria. Ikastetxe osoari zuzendutako jarduerak



• PTko irakasleak

- Irakasle kontsultariek bat datoz lehendabizi garatu beharreko zereginen dagokienez; hala ere, horietako bakoitzaren ehunekoa aldatu egiten da. Gehien garatzen dituzten 3 zereginak hauek dira:
 - Ikastetxez kanpoko aholkulariekiko koordinazioa (logopedak, IBT, Berritzeguneetako HPBen aholkulariak eta abar); %76,9k egiten du *“beti eta askotan”*.
 - Ikastetxeko baliabideen planifikazioa egitea, HPB dituzten ikasleei arreta emateko; PTko irakasleen %74,2k egiten du *“beti eta askotan”*.
 - Ikastetxeko HPB hautematea; irakasle horien %58,4k egiten du.
- Ikastetxeko irakasleei eta ikasleei HPBei buruzko informazioa edota prestakuntza emateko jarduerak dira gutxien egiten direnak, bai eta ICPn egiten parte hartzea ere.

31 irudia. PT. Ikastetxe osoari zuzendutako irakaskuntza-jarduerak



PTko jarduerak amaitzean, ikastetxean kontsultaririk badagoen ala ez kontuan hartuta, hau jakinarazten da:

Kontsultaririk ez badago, PTko irakasleek gehiagotan egin behar izaten dituzte adierazitako zereginak: ia irakasle kontsultariek adina aldiz.

HEZKUNTZA-JARDUERAK, KONTSULTARIA DUTEN ETA EZ DUTEN IKASTETXEETAN

	PTk kontsultariarekin	PTk kontsultaririk gabe	Kontsultaria
Kanpoko aholkularien koordinazioa	%68,4	%93,5	%97,9
Erantzunaren planifikazioa	%65	%91,8	%97,8
Ikastetxeko HPB hautematea	%45,3	%83,6	%100
Klaustroari informazioa/prestakuntza ematea	%19,7	%57,4	%39,2
Ikasleei informazioa/prestakuntza ematea	%29,1	%54,1	%37
Zikloko edo etapako proiektuak	%39,3	%62,3	%65,2
ICPn parte-hartzea	%35,9	%44,3	%54,3


CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasleen irakasleei zuzendutako hezkuntza-jarduerak

Atal honetan, CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasleen irakasleei zuzendutako zereginen buruz ikertzen da. Aholkularitza eska dezakete ikasgelako programazioa egokitzeko eta CNE egiteko, edo taldeko ikasle batentzako laguntza zuzena eska dezakete.

• Irakasle kontsultariak

- LGhien egiten diren zereginak tutoreei aholkularitza orokorra ematea eta CNE egiten laguntzea dira.
- Ikasgelako programazioa egiten laguntzea eta irakasle espezialistentzako (musika, ingelesa eta abar) jarduerak prestatzea ez dira hainbeste aldiz egiten.


32. Kontsultaria. CNE duten ikasleen tutoreekin irakaskuntza-jarduerak egitea



• PTko irakasleak

- Irakasle kontsultarien zeregin berak dituzte, maiztasuna berdina ez izan arren. Tutoreei aholkularitza orokorra ematea eta CNE egiten laguntzea "beti eta askotan" egiten du PTko irakasleen %56,1ek eta %41ek, hurrenez hurren.
- Gutxien egiten dituzten zereginak ere berak dira: irakasle espezialistentzako (musika, ingelesa eta abar) jarduerak proposatzea eta CNE duten ikasleen tutoreei ikasgelako programazioa egiten laguntzea.

33 irudia. PT. CNE duten ikasleen tutoreekin irakaskuntza-ajarduerak egitea.



Kontsultaririk gabeko ikastetxeetako PTko irakasleek gehiagotan hartzen dute parte tutoreen aholkularitzan; irakasle kontsultarien antzeko ehunekoetara iristen dira.

JARDUERAK CNE ETA BESTE HPB BATZUK DITUZTEN IKASLEEN TUTOREEKIN, KONTSULTARIA DUTEN ETA EZ DUTEN IKASTETXEETAN

	PTk kontsultariarekin	PTk kontsultaririk gabe	Kontsultaria
Tutoreak orientatzea	%46,1	%75,4	%82,6
CNE tutoreekin batera egitea	%33,3	%55,8	%73,9
Ikasgelako programazioa tutoreekin batera egitea	%10,3	%32,8	%23,9
Jarduerak irakasle espezialistekin (ingelesa, musika eta abar)	%6,9	%19,6	%8,7


CNE duten ikasleei zuzendutako hezkuntza-jarduerak

Atal honetako zereginak CNE duten ikasleei zuzenduta daude. Ikaslearen garapenerako berariazko alderdietan banakako laguntza zuzena sartzan da, bai eta curriculum-konpetentziak balioesteko edo ebaluazioaren jarraipenerako zereginak.

• Irakasle kontsultariak

- Zereginik ohikoenak CNE duten ikasleen jarraipena, haien curriculum-konpetentziak ebaluatzea eta txostenak egitea dira.
- Hain zuzen, kontsultariaren %95,6k "askotan eta beti" egiten du CNE duten ikasleen jarraipena. %84,8k ikasleen curriculum-konpetentziak ebaluatzen ditu, eta %78,3k ikasleen txostenak, maiztasun berarekin.
- Gutxi egiten diren zereginak ikasgelako programazioko edo testuliburuko jarduerak egokitzea eta ikasgela barruko behaketa dira.


34 irudia. Kontsultaria. CNE duten ikasleei buruzko irakaskuntza-jarduerak



• **PTko irakasleak**


- Kontsultariaren antzeko zereginak ditu. PTko irakasleen %87,6k "beti eta askotan" egiten du CNE duten ikasleen jarraipena. %75 inguruk ikasleen banakako txostenak egiten ditu eta haien curriculum-kompetentziak ebaluatzen dituzte, maiztasun berarekin.
- Gutxien egiten dituzten zereginak ere berak dira: ikasgelan behatzea eta programazioko edo testuliburuko jarduerak egokitzea.

35 irudia. PT. CNE duten ikasleei buruzko irakaskuntza-jarduerak



Bi profesionalen zereginak alderatuta, gehien egiten den zeregina CNE duten ikasleen jarraipena dela ikusten da; irakasle kontsultariaren eta PTkoen %85en baino gehiagoren zeregin nagusia da. Ondoren, txostenak egitea eta curriculum-kompetentziak egokitzea daude, bi taldeetako lehentasun-ordenan. Datu horiek bat datoz esleitutako eginkizunekin: irakasleei lagundu eta ikasleen curriculum-kompetentzia ebaluatu, hain zuzen ere.

36 irudia. CNE duten ikasleen zereginak egitea. Horiek eiten dituzten laguntzako profesionalen ehunekoa.



Ikastetxean kontsultariren bat egotearen ala ez egotearen arabera, PTko irakasleen zereginetan aldeak egon daitezkeen aztertzean, kontsultaririk ez dagoenean maiztasuna handiagoa dela ikusten da.

HEZKUNTZA-JARDUERAK CNE DUTEN IKASLEEKIN, KONTSULTARIA DUTEN ETA EZ DUTEN IKASTETXEETAN

	PTk kontsultariarekin	PTk kontsultaririk gabe	Kontsultaria
CNE duten ikasleen jarraipena	%85,5	%91,8	%95,6
Curriculum-konpetentziak ebaluatzea	%75,3	%77	%84,8
Txostenak egitea	%71,8	%78,7	%78,3
Berariazko programak egitea	%77	%83,6	%67,4
Ikasgelako jarduerak egokitzea	%41	%45,9	%47,8
Ikasgelan ikasleei behatzea	%36,8	%44,2	%43,4
Testuliburuko jarduerak egokitzea	%43,6	%50,8	%28,3

Datu horiek osorik aztertuta, honako hau berresten da:

- PTko irakasleek eta kontsultariek betetzen dituzten funtzioetan, antzekotasun gehiago daude alde baino.
- Ikastetxeari eta CNE duten ikasleen irakasleei laguntza eta aholkularitza emateko zereginak antzekoak dira. CNE duten ikasleei zuzendutako zereginak dira, batik bat, desberdinak; PTko irakasleek gehiago izaten dituzte.
- Kontsultaririk gabeko ikastetxeetan PTko irakasleek profesional horren zereginak egiten dituzte; irakasleei eta ikastetxeari lagundu eta aholkularitza ematekoak, bereziki.
- Laguntzako bi profesional-motak —PTko irakasleak eta kontsultariak— dauden ikastetxeetan, alde handiagoa dago biek egiten dituzten zereginetan: kontsultariak tutorea orientatzeko zereginak eta ikasleen konpetentziak ebaluatzeak egiten ditu, eta PTkoak, banakako arreta eta berariazko programen garapena.

Laburpen gisa, honako hau ondorioztatzen da:

HPBei buruzko ikastetxeen planteamendu orokorrari dagokionez:

- Ia ikastetxe guztietan daude definituta CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasleei banakako arreta emateko irizpideak.
- Ikastetxe askok idatzita jasotzen dituzte akordio horiek, zenbait dokumentutan. Ikastetxeko urteroko plan-gintza eta laguntza gelako programazioa dira irizpide horiek biltzeko gehien erabiltzen direnak.
- Banakako arreta ematean, CNE nabarmena duten ikasleek dute lehentasuna.
- HPB dituzten ikasleei banakako laguntza emateko, lehentasunezko zat jotako esparruak, lehendabizi, laguntza gela, eta, ondoren, ikasgela arrunta dira.
- Lehen Hezkuntzako ikastetxe gehienek denbora-tarteak ezartzen dituzte, HPB dituzten ikasleei arreta ematen dieten profesionalak elkarrekin koordinatzeko eta familiekin bilerak egiteko.

Irakasle arruntek laguntzako profesionali egindako eskaerei dagokionez:

- Lehen Hezkuntzako irakasle gehienek eskatzen dute CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasleei ikasgela arruntetik kanpo laguntza eman diezaietela.
- Banakako laguntza emateko ikastetxeko irakasleek gehien eskatzen dituzten alderdiak hauek dira, ordenan: irakurtzeko eta idazteko laguntza, eskola-atzeratasuna eta CNEren alderdiak lantzea.

Laguntzako profesionalak garatutako hezkuntza-jarduerei dagokionez:

- Oro har, integratzen laguntzeko profesionalak —PTko irakasleak eta kontsultariak— antzeko funtzioak dituzte, bereziki **ikastetxe osoari** zuzenduak eta ikasgelan **CNE duten ikasleak dituzten irakasle arrunteei** laguntza eta aholkularitza emateari zuzenduak.
- Ikastetxean HPB hautematea, hezkuntza-erantzuna planifikatzea eta ikastetxearen kanpoko laguntzak koordinatzea dira gehien egiten dituzten zereginak.
- PTko irakasleek eta kontsultariek gehien egiten dituzten zereginak hauek dira: irakasleei laguntzea, CNE duten ikasleen tutoreak orientatzea eta CNE egiten laguntzea.
- Hona hemen **CNE duten ikasleekin** lotutako zeregin ohikoena: ikasleen jarraipena eta ikasle horiei buruzko txostenak egitea.
- Irakasle kontsultarien artean integratzen laguntzeko estrategiak dira nagusi, ikastetxe osoari zuzenduak. PTko irakasleen artean CNE duten ikasleei zuzendutako esku-hartze estrategiak nabarmentzen dira. Alde horiek erraz azal daitezke; izan ere, PTko irakasleen funtzio nagusia CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasleei arreta zuzena ematea da, eta irakasle kontsultariena, ez.

Integratzen laguntzeko profesionali dagokionez (**PTko irakasleak eta kontsultariak**):

- Antzeko funtzioak dituzten bi profesional-mota hautematen dira: PTko irakasleek eta kontsultariek betetzen dituzten funtzioetan, antzekotasun gehiago daude alde baino.
- Kontsultaririk ez dagoen ikastetxeetan, PTko irakasleek kontsultariarenak diren zereginak egiten dituzte; ikasleen curriculum-ebaluazioa eta irakasleei eta ikastetxeari laguntza eta aholkularitza ematea, bereziki.
- Bi motatako irakasleak dauden ikastetxeetan, funtzioak bereiziagoak dira: kontsultariak irakasleak orientatzeko zereginak eta ikasleen konpetentziak ebaluatzeak egiten ditu, eta PTkoak, CNE duten ikasleen banakako arreta eta berariazko programen garapena.

3. ARRETA JASOTZEN DUTEN IKASLEAK ETA LAGUNTZEKO MODUAK

Atal honetan, PTko irakasleek eta kontsultariak batez beste zenbat ikasleri ematen dieten arreta adierazten da, bai eta ziklo bakoitzean arreta jasotzen duten ikasleen banaketa ere. Lortutako datuak azterketa honetako laginari buruzkoak dira. Aipatu dugunez, eta HPB dituzten ikasleek osatutako kolektibo heterogeneoa aztertzeko, ikasleen bi talde²⁶ berezi dira:

1. CNE duten ikasleak
2. Beste HPB batzuk dituzten ikasleak.

Bi taldeak zerrendetan erregistratuta daude, Berritzeguneetako HPBko aholkulariek dagozkien Lurralde Ordezkaritzetara bidaltzen dituzten kode diagnostikoen eta beharrezko baliabideen horniduren bidez.

• Irakasle kontsultariak

Irakasle kontsultarien datuak sare publikoari buruzkoak dira soilik, Lehen Hezkuntzako itunpeko ikastetxeetan ez baitago laguntzako profesional hori.

IRAK. KONTSULTARIA: ARRETA EMANDAKO IKASLEEN BATEZ BESTEKOA ETA ZIKLOKAKO BANAKETA.

	1. zikloa	2. zikloa	3. zikloa	GUZTIRA
CNE dutenak	0,74	1,59	2,98	5,31
CNE ez dutenak	3,93	3,22	2,74	9,79

Kontsultari batek, zuzenean edo zeharka, CNE duten 5 ikasleri eta curriculumaren egokitzapen esanguratsurik behar ez duten 10 ikasleri ematen die arreta, batez beste. Datu horiek interpretatzean, kontuan hartu behar da ikasleei zuzendutako esku-hartze guztiak biltzen dituztela, hots, tutorearen edo hezkuntzan parte hartzen duten beste profesional batzuen **arreta zuzena eta zeharkakoa**²⁷.

• Pedagogia Teraeutikoko irakasleak

PTko irakasleen esku-hartzeari buruzko datuek ikasleei ematen dieten **zuzeneko arreta** adierazten dute, hori baita PTko irakasleen funtzio nagusi bat. Hurrengo taulan adierazten den moduan, PT irakasle batek curriculum CNE batean duten 2 ikasleri eta beste hezkuntza premia berezi batzuk dituzten 5 ikasleri ematen die arreta, batez beste, curriculumaren egokitzapen esanguratsurik ez badute behar.

PTKO IRAK.: ARRETA EMANDAKO IKASLEEN BATEZ BESTEKOA ETA ZIKLOKAKO BANAKETA.

	1. zikloa	2. zikloa	3. zikloa	GUZTIRA
CNE dutenak	0,38	0,68	1,25	2,31
CNE ez dutenak	2,19	1,68	1,53	5,40

Bi kolektiboak alderatuz gero, begi bistakoa da, zenbat ikasleri arreta ematen dieten kontuan hartuta, kontsultarien eragina PTko irakasleena baino handiagoa dela. Kontuan hartu behar dira batzuei eta besteei esleitutako berariazko funtzioak: irakasle kontsultariak, batik bat, ikasleei zeharkako arreta ematen diete irakasle arrunten bidez; PTko irakasleek zuzenean egiten dute lan HPB dituzten ikasleekin.

Gainera, irakasle kontsultarien eta PTko irakasleen arreta izan eta, CNE duten ikasleen batez bestekoa gero eta handiagoa da, zikloetan aurrera goazen heinean; aitzitik, CNE ez dute ikasleen batez bestekoa gero eta txikiagoa da. Eboluzio horren arrazoa izan daiteke lehen zikloan eskolatutako HPB dituzten ikasle batzuek CNE bat behar izatea

(26) Ikus definizioa 2. ERANSKINEAN: Terminoaren glosarioa.

(27) Zuzeneko arreta. Zeharkako arreta. Ikus definizioa 2. ERANSKINEAN: Terminoaren glosarioa.

ondorengo zikloetan, curriculum arruntarekiko desfasea ziklo batekoa baino handiagoa baldin bada. Bestalde, pentsa liteke goiz esku hartzeak hasierako zikloetan ikasle batzuek izaten dituzten hezkuntza-beharren bat orekatzen lagun dezakeela.

PTko irakasleen esku-hartzea aztertzen da, hezkuntza-sarearen arabera.

PTKO IRAKASLEEN ARRETA IZAN ETA CNE DUTEN IKASLEEN KOPURUA

	1. zikloa	2. zikloa	3. zikloa	GUZTIRA
Publikoa	0,40	0,74	1,33	2,47
Itunpekoa	0,32	0,53	1,05	1,9

PTKO IRAKASLEEN ARRETA IZAN ETA HPB DUTEN IKASLEEN KOPURUA

	1. zikloa	2. zikloa	3. zikloa	GUZTIRA
Publikoa	1,69	1,06	0,99	3,74
Itunpekoa	3,25	3,01	2,69	8,95

Sare publikoko PTko irakasleek CNE duten ikasle gehiagori ematen diete arreta itunpeko sarekoek baino. Aitzitik, itunpeko sarekoek HPB dituzten ikasleen kopuru bikoitzari ematen diete arreta, sare publikokoekin alderatuz gero. Alde horien azalpena, neurri batean, bi sareetako CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasleen kopurua desberdina dela da, eta, gainera, kontuan hartu behar da:

- Ez da balioesten zenbat denborako arreta ematen zaien CNE duten ikasleei; ziur asko HPB duten ikasleei emandakoa baino handiagoa.
- Ohikoa da HPB duten ikasleei zuzeneko laguntza ematea (irakurri eta idatzi, hizkuntza eta abar) talde txikitari; aldi, CNE duten ikasleek laguntzako saio gehiago eta banakakoak behar izaten dituzte, alor gehienetan duten curriculum-desfasea dela-eta.
- Itunpeko ikastetxeetako PTko irakasleek, HPB dituzten ikasleei dagokienez, kontsultariaren zereginak egiten dituzte, ikastetxe horietan ez baitago kontsultaririk.

• CNE duten ikasleen arreta, ezgaitasun-motaren arabera

CNE duten ikasleei arreta ematen dieten laguntzako profesionalen ehunekoa adierazten da, duten ezgaitasun-motaren arabera.

IRAK. KONTSULTARIA: ARRETAREN EHUNEKOA, EZGAITASUN-MOTAREN ARABERA*

	Ezgaitasun psikikoa	Ezgaitasun fisikoa	Ikusteko urritasuna	Entzuteko urritasuna	Beste batzuk**
Zeharkakoa	76,5	29,4	11,8	11,8	47,1
Zuzeneko	73,1	3,8	3,8	3,8	26,9

* Ezgaitasunen bat dutenei arreta ematen dieten irakasleen artean kalkulaturia (%74).

** Ezgaitasunarekin lotutako arazoak dituztenak.

Taulan ageri den moduan, lagineko ikastetxeetako kontsultariaren %76,5ek zeharka ematen die arreta (irakasle tutoreen bitartez) ezgaitasun psikikoren bat duten ikasleei, eta %47k, ezgaitasunarekin lotutako arazoak dituztenei. Ikaslearekiko arreta zuzena denean, ehunekoak jaitxi egiten dira, jakina, eta ezgaitasun-mota horri dagokion eragina mantentzen da.

PTKO IRAK.: ARRETAREN EHUNEKOA, EZGAITASUN-MOTAREN ARABERA*

Ezgaitasun psikikoa	Ezgaitasun fisikoa	Ikusteko urritasuna	Entzuteko urritasuna	Beste batzuk**
74,6	16,9	3,5	10,5	39,4

* Ezgaitasunen bat dutenei arreta ematen dieten irakasleen artean kalkulatua (%80).

** Ezgaitasunarekin lotutako arazoak dituztenak.

PTko irakasleei dagokienez, horien %74,6k zuzeneko arreta ematen die ezgaitasun psikikoren bat duten ikasleei, eta %39,4k, ezgaitasun horiekin lotutako urritasunak dituztenei.

Bi profesionalen arreta-lehentasuna bera da, CNE esanguratsua egin behar baita ezgaitasun psikikoren bat duten ikasle guztientzat. Gainera, "beste batzuk" kategorian bildutako kasu asko urritasun anitzei buruzkoak eta horiekin lotutako arazoei buruzkoak dira; azken horietan, gaitasun psikikoari buruzko arazoak ere sar daitezke.

- **Laguntza-modalitatea. Esku-hartzearen alderdiak**

Ondorengo datuek ikasleekin batera lantzen diren alderdien berri ematen dute, bai eta laguntzako profesionalen esku-hartzerik ohikoena zer motatakoa den ere. Bereziki, interesgarria da jakitea ikasgela arruntean edo hortik kanpo ematen den, alderdi berak garatzen dituzten edo horietako bakoitzak eduki desberdinei eragiten dien.

– *Ikasgela arruntean*

IRAK. KONTSULTARIA: IKASGELA ARRUNTEAN ZER JARDUERATAN EMATEN DUEN LAGUNTZA ETA ZENBATETIK BEHIN


	Askotan	Beti	GUZTIRA
Ikasgelako programazioko jard.	26,1	6,5	32,6%
Lan-azturak	19,6	6,5	26,1%
CNEaren alderdiak	8,7	6,5	15,2%
Portaera-kontrola	4,3	8,7	13%

PTKO IRAK.: IKASGELA ARRUNTEAN ZER JARDUERATAN EMATEN DUEN LAGUNTZA ETA ZENBATETIK BEHIN

	Askotan	Beti	GUZTIRA
Lan-azturak	20,8	15,7	36,5%
Ikasgelako programazioko jard.	19,7	14	33,7%
Portaera-kontrola	14	10,1	24,1%
CNEaren alderdiak	14,6	9	23,6%

* Ehuneko horiek kalkulatzean, ez dira aintzat hartu ikasgelaren barruan laguntzarik ematen ez duten profesionalak

37 irudia. Ikasgela arrunteko esku-hartzearen alderdiak



Aztertutako alderdi guztietan, PTko irakasleek kontsultariak baino gehiagotan ematen diete laguntza ikasleei ikasgelaren barruan. Bien arteko aldeak oso handiak ez diren arren, PTko irakasleek gehiagotan lantzen dituzte lan-azturekin eta ikasgelako programazioko jarduerekin lotutako alderdiak; irakasle kontsultariak ere lehentasun berak dituzte, baina alderantzizko ordenan.

Asteko laguntza-denborari dagokionez, adierazitako denbora-tarteetan CNE esanguratsua duten ikasleei profesional horiek ikasgelan ematen dieten esku-hartze zuzenaren ehunekoak jasotzen dira.

CNE DUTEN IKASLEEI IKASGELA ARRUNTEAN LAGUNTZEN EMANDAKO DENBORA. PROFESIOALEN EHUNEKOA

	PTko irakasleak	Kontsultaria
Astean 1 eta 5 h artean	28,1	4,3
Astean 6 eta 9 h artean	3,9	—
Astean 10 h edo gehiago	1,1	2,2

– *Ikasgela arruntetik kanpo*

Testuinguru arrunt horretatik kanpo —normalean, laguntza gelan— laguntza gehien jasotzen duten alderdiak aztertzen dira.

IKASGELA ARRUNTETIK KANPO ZER JARDUERATAN EMATEN DUEN LAGUNTZA BETI IRAK. KONTSULTARIA


	Beti
Irakurri eta idatzi	23,9%
Lan-azturak	21,7%
Matematika	21,7%
Komunikazioa	21,7%
Autonomia	13%
Curriculum berezitua ²⁸	8,7%
Ikasgelako programazioaren edukiak	4,3%
Hizkuntza eta logopedia	—
Psikomotrizitatea	2,2%

PTKO IRAK. BETI

	Beti
Komunikazioa	45,5%
Irakurri eta idatzi	43,8%
Lan-azturak	40,4%
Curriculum berezitua	29,2%
Matematika	24,7%
Autonomia	20,2%
Hizkuntza eta logopedia	17,4%
Ikasgelako programazioaren edukiak	6,7%
Psikomotrizitatea	3,4%

(28) Gorreria edo itsutasuna duten ikasleen curriculum zabaltzeko, edo curriculum arruntaren oso curriculum berezia, ikasleen potentzialtasuna dela-eta.

38 irudia. Ikasgela arruntetik kanpoko esku-hartzearen alderdiak



Aipatutako alderdi guztiak PTko irakasleek lantzen dituzte gehiagotan ikasgela arruntetik kanpo; izan ere, komunikazio-alderdiak eta irakurketarekin, idazketarekin eta lan-azturekin zerikusia dutenei ematen diete laguntza, lehendabizi. Tutoreek emandako informazioa bat dator profesional horienarekin. Ikastetxeak titulartasunaren arabera aztertu dira, esku-hartzean aldaketarik egon den jakiteko, eta ez dagoela ikusi da.

Ikasgelatik kanpoko **asteko laguntza-denborari** dagokionez, PTko irakasleen arretaren ehunekoa kontsultarienarena ia bikoitza da.

CNE DUTEN IKASLEEI IKASGELA ARRUNTETIK KANPO LAGUNTZEN EMANDAKO DENBORA. PROFESIOALEN EHUNEKOA

	PTko irakasleak	Kontsultaria
Astean 1 eta 5 h artean	55,6	39,1
Astean 6 eta 9 h artean	21,3	6,5
Astean 10 h edo gehiago	5,1	—

CNE duten ikasleei laguntzen bi profesionalek ematen duten batez besteko denbora alderatzeko, simulazio bat egin da batez besteko denborak erabiliz.²⁴ Honako hau ondoriozta daiteke:

- Pedagogia terapeutikoko irakasle bakoitzak CNE duten bi ikasleekin esku hartzen du zuzenean; astean 1h eta 20' pasatzen ditu ikasgela arruntean bakoitzarekin, batez beste, eta 4 ordu hortik kanpo.
- Kontsultaria duten ikastetxeetan, horiek CNE duten 5 ikasleri ematen diete zuzeneko arreta, batez beste; astean 30' pasatzen dituzte, batez beste, ikasgela arruntean bakoitzarekin, eta 1h eta 40' hortik kanpo.

LAGUNTZAKO PROFESIOALEN ESKU-HARTZEAREN ORDUAK, HAIEN INFORMAZIOAREN ARABERA

	CNE duen ikasle bakoitzari emandako arreta-denbora	CNE duten ikasleak
PTko irakasleak	Ikasgela arruntean	1h 20'
	Ikasgela arruntetik kanpo	4h
Irak. kontsultariak	Ikasgela arruntean	30'
	Ikasgela arruntetik kanpo	1h 40'

(29) Tarte bakoitzeko batez besteko denbora bere burua tarte bakoitzean kokatzen duen irakasle kopuruaz biderkatu da. Baturaren ehunekoa denbora-unitatetan adierazi da.

Dedikazio-denbora horren osagarri curriculuma CNE batean jasota ez duten HPB dituzten ikasleen arreta-denborak daude.

Laburbilduz, PTko irakasleen %33,1ek CNE duten ikasleei ikasgela arruntean ematen die arreta, eta %82k, hortik kanpo. Bietan, ehunekorik handiena asteen 1 eta 5 ordu arteko tarteari dagokiona da.

Irakasle kontsultarien %6,5ek CNE duten ikasleei ikasgelan ematen die arreta, eta %45,6k, ikasgela arruntetik kanpo. Esku-hartzearen asteko ordu kopuruari dagokionez, PTen kasuan bezala, 1 eta 5 ordu artekoa da.

• Laguntza emateko hizkuntza edo hizkuntzak

HPB dituzten ikasleei laguntza ematean erabiltzen diren hizkuntzen berri izateko, PTko irakasleak kontsultatu behar dira, ikasleei banakako laguntza zuzenean gehien ematen dietenak direlako.

Hurrengo taulan, banakako arreta euskaraz, gaztelaniaz edo bietan jasotzen duten CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasleen ehunekoak ageri dira, baita zein irakasteredutan eskolatuta dauden ere.

A EREDUKO IKASLEAK ETA LAGUNTZAKO HIZKUNTZA. EHUNEKOAK.

	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania
CNE dutenak	0,4	92,3	7,2
CNE ez dutenak	0,4	93,2	6,3

B EREDUKO IKASLEAK ETA LAGUNTZAKO HIZKUNTZA. EHUNEKOAK

	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania
CNE dutenak	5,5	57,7	36,6
CNE ez dutenak	11,7	58,2	30,3


D EREDUKO IKASLEAK ETA LAGUNTZAKO HIZKUNTZA. EHUNEKOAK

	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania
CNE dutenak	58,2	6,4	35,2
CNE ez dutenak	86,8*	2,5	10,7


* PTko irakasle batek dio 70 ikasleri ematen diela arreta.

CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasleak eta laguntzako hizkuntza, grafiko bidez adierazita.


39 irudia. A ereduko ikasleen ehuneko laguntzako hizkuntzako



40 irudia. B ereduko ikasleen ehuneko laguntzako hizkuntzako



41 irudia. D ereduko ikasleen ehuneko laguntzako hizkuntzako



Integrazioari ekin zitzaionean, ikasleei hezkuntza bereziko laguntza ematean, gehien hizkuntza, gaztelania, erabiltzea zen joera nagusia; gaur egungo joera, berriz, eskolatutako hizkuntza erabiltzea da. A ereduan, laguntzak gaztelaniaz ematen zaizkie, batik bat, bai CNE esanguratsua dutenei, bai horren beharrik ez dutenei. B ereduan, gaztelania nagusi den arren, bi hizkuntzatan ere ematen dira laguntzak. D ereduan, laguntzak euskaraz —eskolatutako hizkuntzan— ematen dira, batik bat, eta neurri txikiagoan, bi hizkuntzatan. (Eredu horretan, CNE duten ikasleen %35,2k gaztelaniaz eta euskaraz jasotzen du banakako arreta; horrek badu azalpena: agian, bi hizkuntzetako gaitasun linguistikoak indartu behar dira).

Laburpen gisa, honako hau ondoriozta daiteke:

- Ikasgela arruntetik kanpoko banakako arretari buruzko ehunekoak ikasgela arruntekoak baino handiagoak dira.
- CNE duten ikasleek, ikasgela arruntean, alderdi hauetan jasotzen dute laguntza gehien: ikasgelako programazioko jardueretan eta lan-azturetan.
- Ikasgela arruntetik kanpo gehiagotan ematen da laguntza komunikazioarekin, irakurketarekin eta idazketa-rekin, eta lan-azturekin lotutako alderdietan.
- Laguntza-denbora astean ordubete eta bost ordu artekoa da, gehienez.
- Irakasle kontsultarietako arreta emandako ikasleen ehuneko handiagoa da PTko irakasleek arreta emandako ikasleena baino; nagusiki, azken horiek zeharkako laguntza ematen dutelako, tutoreei aholkularitza emanaz, eta modu horretan emandako arreta ezingo litzateke zuzenean eman.
- CNE duten ikasleei banakako laguntza eskolatze-hizkuntzan ematea da gaur egungo joera.

III. Curriculuma Norbanakoari Egokitzearen (CNE) azterketa, hezkuntza-erantzunaren estrategia gisa.

Curriculuma Norbanakoari Egokitzea (CNE)²⁵ dokumentu bat da; bertan, curriculum arrunteko edo taldeko curriculum orokorreko helburu orokorretatik abiatuta, beharrezko aldaketen berri ematen da, betiere garrantzi txikieneko elementuetatik hasita (metodoak, denborak, ebaluatze moduak, baliabideak eta abar) edukien aldaketak arte, bai eta curriculum arrunteko helburuak aldatu arte ere. Hainbat gaitasunetatik, interesetatik edo motibaziotatik eratorritako behar bereziak dituzten ikasleek planteatutako hezkuntza-behar garrantzitsuei erantzutea da helburua.

CNE bat egitea planteatzeko, bi mailako (ziklo bat) desfase orokorra egon behar du ikasleak adinez egin beharreko mailaren eta benetan duen ezagutza-mailaren artean. Sarritan, curriculuma egokitzapen esanguratsu baten bidez egiteko beharra ikasteko ezgaitasun baten edo arazo larri baten ondorio izaten da, eta horiek "hezkuntza-premia bereziak" dira eskolaren esparruan, eta testuinguru arruntetik erantzuten zaie.

1. CNE GARATZEA


Curriculuma norbanakoari egokitzea hiru fasetan banatu da, eta profesionalen parte-hartzea aztertzen da, zati horietako bakoitzean. Hona hemen hiru faseak:

- Egiteko proposamena
- Egiteko prozesua
- Jarraipena

• Curriculum-egokitzapena egiteko proposamena

Irakasle kontsultarien iritziz, banakako curriculum-egokitzapenak ikastetxeko laguntzako profesionalak eskatuta egiten dira "beti eta askotan": irakasle kontsultariak (%80) eta PTko irakasleak (%65).

Gráfica 42. Kontsultariak. CNE egiteko proposamena




* Datu horrek kontsultaria duten ikastetxeak soilik hartzen ditu kontuan.

(30) "1998ko uztailaren 24ko agindua, curriculumean sartzeko egokitzapenen eta HPB dituzten ikasleen banakako egokitzapen nabariak baimena arautzen dituena 8. art." Hezkuntza-premia bereziei buruzko EAEko araudia. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 1999.

PTko irakasleek erantzuten dutenean, "askotan eta beti" CNE bat egitea proposatzen duten kontsultarien ehunekoa txikiagoa da (%80ren ordez, %62,4), eta PTko irakasleen ehunekoa, berriz, lehengo antzekoa da.

43 irudia. PTko irak. CNE egiteko proposamena




Ikastetxean kontsultaririk ez dagoenean, CNE egiteko proposamena PTko irakasleek egiten dute kasuen %75,4an; beraz, kontsultaririk ez dagoen ikastetxeetan, PTko irakasleak arduratzen dira zeregin horretaz.

Ehunekoa erabat berdina ez izan arren, oro har, ikastetxeetako laguntzako profesionalek CNEak egiteko sustatzailerat daukate beren burua.


Familiak diote esan zitzaiela CNE egin behar zirela seme-alabei. %85,6k dio jakinarazi diotela, baina %10ek dio ez diotela aurrez ezer jakinarazi.

44 irudia. Familiak. CNE egiteko proposamenari buruzko informazioa



Familiak arabera, informazio hori PTko irakasleek eman diete, lehendabizi; ondoren, tutoreak, eta, azkenik, seme-alabek. Nolabaiteko distantziara, grafikoan ikus daitezkeen moduan, ikastetxeetako kontsultaria dago, eta, ondoren, zonako hezkuntza-premia berezietako aholkularia (Berritzegunekoak).

45 irudia. Nork informatu du familia



* Kontsultarien ehunekoa kontsultaria duten ikastetxeei buruzkoa da soilik.

- CNE bat egiteko prozesua

CNE bat egiteko eta garatzeko prozesuan profesionalen parte-hartzea balioesteko, horien lankidetza izan da zenbait fasetan: helburuak definitzean, edukiak egokitzean, materialak eta jarduerak egokitzean, ikasgelako programazioa egokitzean eta CNE ebaluatzean.

Irakasle kontsultarien arabera, adierazitako zereginak egitean gehien gertatzen den lankidetza CNE duten ikasleen tutorearena eta laguntzako profesionalena da.

KONTSULTARIA: LAGUNTZAKO PROFESIOALEN ETA TUTOREEN ARTEKO LANKIDETZAREN EHUNEKOA

Laguntzako profesionalak eta tutoreak

Edukiak egokitzea	63
Helburuak definitzea	54,3
Jarduerak eta materialak egokitzea	52,2
CNEren ebaluazioa	50
Ikasgelako programazioaren edukiak	45,7

PTko irakasleek diote gehien gertatzen den lankidetza adierazitako 3 profesionalen artekoa dela; jarduerak eta materialak egokitzean eta ikasgelako programazioa egokitzean, berriz, lankidetza ohikoena tutoreen eta PTko irakasleen artekoa da.

PTKO IRAKASLEAK: LAGUNTZAKO PROFESIOALEN ETA TUTOREEN ARTEKO LANKIDETZAREN EHUNEKOA

	Tutoreak eta PTko irakasleak	Laguntzako profesionalak eta tutoreak*
CNEren ebaluazioa	29,8	47
Edukiak egokitzea	27	40,2
Jarduerak eta materialak egokitzea	31,5	23,1
Ikasgelako programazioa egokitzea	37,6	23,9
Helburuak definitzea	24,7	41,9

* Kontsultaria duten ikastetxeak soilik hartu dira aintzat.

• CNeren jarraipen-prozesua

Laguntzako profesionalak CNeren jarraipenean eta balioespenean duten inplikazioaren ikuspegia jaso da. "Askotan eta beti" erantzunak soilik hartu dira kontuan, eta, beraz, tauletan ageri diren ehunekoen baturak ez dira ehun.

IRAK. KONTSULTARIA: PARTE-HARTZEA ETA MAIZTASUNA CNEREN JARRAIPENEAN

	Askotan	Beti	GUZTIRA
Laguntzako profesionalak eta tutoreak	26,1	47,8	73,9
Berritzeguneetako aholkulariak	10,9	4,3	15,2

Ikus daitekeenez, irakasle kontsultarien iritziz, kasuen %74an jarraipena lankidetzako profesionalen eta tutoreen artean egiten da. PTko irakasleen iritziz ere CNE duten ikasleen jarraipena profesional horiek egiten dute. Kontsultaririk ez dagoenean, Berritzeguneetako HPBko aholkularien parte-hartzea handiagoa da.

PTKO IRAKASLEAK: PARTE-HARTZEA ETA MAIZTASUNA CNEREN JARRAIPENEAN, KONTSULTARIA DUTEN IKASTETXEETAN

	Askotan	Beti	GUZTIRA
Laguntzako profesionalak eta tutoreak	26,5	30,8	57,3
Asesores/as Berritzegunes	6	1	7

PTKO IRAKASLEAK: PARTE-HARTZEA ETA MAIZTASUNA CNEREN JARRAIPENEAN, KONTSULTARIRIK EZ DUTEN IKASTETXEETAN

	Askotan	Beti	GUZTIRA
PTko irakasleak eta tutoreak	19,7	59	78,7
Berritzeguneetako aholkulariak	21,3	13,1	34,4

Tutoreek adierazten dute PTko irakasleekin koordinatzen direla CNE duten ikasleen jarraipena egiteko, ikastetxean kontsultaria dagoenean, %55,2an; kontsultaririk ez dagoenean, ehunekoa %71,1ekoa da. %40,2k dio aldi behin koordinatzen dela Berritzeguneetako HPBko aholkulariekin.

Jarraipena egiteko, zenbait koordinazio-jarduera egiten dira; besteak beste:

– **Laguntzako profesionalen eta tutoreen arteko koordinazioa**

Profesional horien artean bilerak egiten dira, astean behin, hilean behin edo hiru hiletik behin.

LAGUNTZAKO PROFESIONALAK: TUTOREKIN EGINDAKO BILEREN ALDIZKAKOTASUNA

	Astean behin	Hilean behin	Hiru hiletik behin
Kontsultaria	21,7	28,3	34,8
PTko irakasleak	18	26,4	37,1

TUTOREAK: LAGUNTZAKO PROFESIONALEKIN EGINDAKO BILEREN ALDIZKAKOTASUNA

	Astean behin	Hilean behin	Hiru hiletik behin
Kontsultaria	7,5	19,4	29,9
PTkoak, kontsultaria duen ikastetxean	44,8	28,4	13,4
PTkoak, kontsultaririk ez duen ikastetxean	33,3	35,6	17,8

Irakasle kontsultariak CNE duten ikasleen tutoreekin egiten dituzten bilerak hiru hiletik behin egiten dira, batik bat; bilerak PTko irakasleekin egiten dituztenean, ikastetxean kontsultaria izan ala ez, bilerak maizago egiten dira: astean behin edo hilean behin. Agian, maizago egiten diren bilera horien edukiak ikasgelako jardueren koordinazioarekin du zerikusia, edo PTko irakasleek CNE duten ikasleei emandako banakako arretaren alderdiekin.

– Tutoreen eta beste zerbitzu, entitate eta elkarte batzuen koordinazioa

Beste zerbitzu edo osasuneko entitate publiko batzuekin (Osakidetza, psikiatria-unitateak...) koordinatzen diren galdetu zaie tutoreei eta %12k bakarrik dio aldizka edo noizean behin egiten duela. %22 hezkuntza-sare publikoko beste zerbitzu batzuekin (IBT) edo ezgaitasunekin lotutako elkarteekin koordinatzen da.

– CNE duten ikasleen tutoreen eta familien arteko koordinazioa

CNE duten ikasleen tutoreek eta familiek izaten dituzten bileren berri ematen dute, bai eta dituzten helburuen berri ere. Taulan “askotan eta beti” maiztasuna ageri da.

FAMILIEKIN EGINDAKO BILERETAN “BETI ETA ASKOTAN” LANDUTAKO GAIAK

TUTOREEN iritzia

	Guztira
Seme-alabaren eboluzioaren berri ematea	72,3
Seme-alabaren arretaren berri ematea	67
Laguntza eskatzea	60,7
Familia orientatzea	56,2
Familia-esparruko eboluzioaren berri izatea	53,5
Hezkuntza-helburuak ezartzea	42
Familien asebetetze-mailaren berri izatea	42


FAMILIEN iritzia

	Guztira
Seme-alabaren eboluzioaren berri ematea	80,8
Familiak orientatzea zailtasunei buruz	75
Laguntza eskatzea	69,2
Seme-alabaren arretaren berri ematea	67,3
Hezkuntza-helburuak ezartzea	57,7
Familia-esparruko eboluzioaren berri izatea	52,9
Familien asebetetze-mailaren berri izatea	43,3

CNE duten ikasleen tutoreek adierazten dute familiekin egindako bileretan landutako gaien helburu nagusia hezkuntza-prozesuari buruzko informazioa ematea eta orientatzea dela. Ikaslearen familia-esparruko eboluzioaren edo eskolako hezkuntza-prozesuari buruzko asebetetze-mailaren berri izateko interesa duten tutoreen ehunekoa txikiagoa da.

Informazio hori eta antzeko iturritik lortutakoa alderatzean, bileren helburuei buruzko pertzepzioa ia-ia bera dela ikusten da: seme-alabaren eskola-eboluzioari buruz behar bezala informatuta eta orientatuta daudela uste dute, eta, neurri txikiagoan, familia-esparruko eboluzioari buruzko informazioa edo seme-alabak jasotako hezkuntza-erantzunaren asebetetze-mailari buruzkoa biltzen da.


46 irudia. Tutoreen eta familien arteko bileren helburua



– Ikastetxearen eta familien arteko koordinazioa


Ikastetxearen eta familien arteko komunikabiderik erabiliena tutorearekin edo PTko irakaslearekin elkarrizketa pertsonala egitea da. Familien ehuneko altu batek dioenez seme-alabaren tutorearekin eta laguntzako profesionalarekin izan ohi dituzte harremanak.

47 irudia. Irakasleen eta familien arteko banakako bilera



Ikasgela arrunteko bilera orokorretara lagineko familia gutxiago joaten dira. %53,8k dio "askotan edo nahikoa aldiz" joaten dela, %26k "batzuetan" joaten dela eta %16,3k ez dela inoiz joaten ikasgela arrunteko gurasoen bileretara. Familia horientzat elkarrizketa pertsonalak oso garrantzitsuak dira, seme-alabei buruzko gaiak lantzeko.

48 irudia. Elkarrizketa pertsonalen garrantzia



La Familia gehienek diote oso erraz jartzen direla harremanetan irakasleekin, seme-alabek arazoren bat izan dutenean edo haiei buruzko alderdi batez hitz egiteko beharra dutenean. Gurasoen %96,2k dio oso erraza dela harremanetan jartzea, eta, hala badagokio, elkarrizketa hitzartzea. Izandako elkarrizketen asebetetze-maila oso altua da. Hori dio familien %99k.


Bilera aldizkakotasunari dagokionez, familia gehienak hiru hiletik behin joaten dira bileretara; horrez gain, noizean behingo bilerak eta ikasturte-hasierakoak eta -amaierakoak egin daitezke.

FAMILIEN ETA IRAKASLEEN ARTEKO BILEREN MAIZTASUNA

Maiztasuna	Ehunekoa
Ikasturte-hasieran eta -amaieran	18,3%
Hiru hiletik behin	72,1%
Noizean behin	30,8%
ED/EDE	1,9%


Ikastetxearen funtzionamendua eta hezkuntza-sistema lantzen den bilerekin ematen dieten garrantzia erakusten da hurrengo grafikoan.

49 irudia. Bilera orokorren garrantzia



Familiak garrantzi handiagoa ematen diete informazio-bilerei, seme-alabak ikaskideekin hobeto integratzeko alderdiei buruzkoak direnean.

50 irudia. Ikasgelan integratzeari buruzko informazioaren garrantzia



Ikastetxeak antolatutako beste jarduerak osagarri batzuetan familien parte-hartzea edo lankidetzak nabarmen jaisten da; esate baterako, ibilaldietan, jaietan, eta eskolaz kanpoko jardueretan, kirol-, musika- eta antzerki-jardueretan.

ZENBATERAINO LAGUNTZEN DUTEN LANKIDETZA-JARDUERA OSAGARRIETAN: IBILALDIETAN, JAIETAN...


Asko	3,8
Nahikoa	11,5
Zerbait	30,8
Batere ez	35,6
ED/EDE	20,2

ZENBATERAINO PARTE HARTZEN DUTE ESKOLAZ KANPOKO JARDUERETAN: KIROL-, MUSIKA-, ANTZERTI-JARDUERETAN...

Asko	1,9
Nahikoa	13,5
Zerbait	22,1
Batere ez	45,2
ED/EDE	17,3

El Hurrengo grafikoan, laburbilduta ageri da familien eta CNE duten seme-alaben hezkuntzan esku hartzen duten hezkuntza-agenteen arteko koordinazio-mota.

51 irudia. Familien eta hezkuntza-agenteen arteko koordinazioa



* Kontsultaria duten ikastetxeak soilik jaso dira.

Laburbilduz, familiak, normalean, tutoreekin eta PTko irakasleekin biltzen dira. Ikastetxeek kontsultaririk ez dutenean, adierazitako profesionalekin egiten diren bileren ehunekoa handiagoa da. Familien %88,5ek garrantzi handia eta nahikoa garrantzi ematen die seme-alaben berariazko gaiak lantzeko elkarriketa pertsonalei, eta elkarriketak erraz hitzartu ditzakeela dio; %96,2k dio oso erraz hitzartu duela elkarriketa, behar izandakoan.

2. FAMILIEN ASEBETETZE-MAILA


Arreta-espazioei dagokienez, familia gehienek nahiago dute ikasgela arrunteko eta laguntza gelako laguntza uztartzea, eta laguntza hori ikastetxeko beste espazio eta jarduera batzuetara zabaltzea. Hori ez dator bat laguntzako profesionalek ikastetxeko lehentasuntzat jotzen dutenarekin; izan ere, ia ez dute islatzen ikasleei irakaskuntzaz kanpoko espazioetan eta jardueretan laguntza emateko lehentasuna.

Laguntza-mota eta familien lehentasunak	Ehunekoak
Banakako arreta ikasgela arruntean soilik	17,3%
Arreta espezializatua laguntzako ikasgelan soilik	28,8%
Laguntzako ikasgelako eta ikasgela arrunteko arreta uztartzea	88,5%
Ikasgelaz kanpo parte hartzeko laguntza: jangelan, patioan...	71,2%
Jarduera ez-akademikoetan integratzea: jaietan, ibilaldietan	74%

Seme-alabek jasotzen duten benetako **hezkuntza-arretari** buruz duten iritziari dagokionez, lagineko familia askok uste dute ikasgela arruntean (%88,5) eta laguntzako ikasgelan (%93,3k) emandako laguntza egokia edo oso egokia dela. Handia izan arren, Berritzeguneetako HPBen aholkularien arretari dagokion asebetetze-maila txikiagoa da; %69,2rentzat egokia edo oso egokia da, eta %18,2rentzat, defizitariora.

Irakasleekin izandako **elkarrizketei** buruzko familien asebetetze-maila oso altua da; hala dio familien %99k.

52 irudia. Gatazkak irakasleren batekin



Interesgarria da jakitea familiek seme-alaben **irakasleekin gatazkarik** izan duten. Horri dagokionez, gehienek diote (%81,7) ez dutela gatazkarik izan. %14k dio gatazkaren bat izan duela.

Familiek diote seme-alabek behar dituzten laguntzako baliabideei buruzko **erabakietan entzun egiten zaiela**. %86,5en ehuneko handi batek dio entzun egiten zaiela "*beti edo ia beti*", eta %10,6k, "*batzuetan*" entzuten zaiela.

Familien asebetetze-mailaren beste adierazle batzuk seme-alaben familiek eta ikastetxeak dituzten hezkuntza-itxaropenak bat etortzea eta ikastetxez aldatu nahi dituzten dira. Lagineko familien %75ek uste du ikastetxeak seme-alabekiko dituzten helburuak eta itxaropenak eta familiak dituenak bat datozela. %6,7k uste du txikiak direla, eta %3k, handiak direla. Seme-alabak ikastetxez aldatzeari dagokionez, %93k dio ez lukeela egingo edo ez dutela planteatu.

Familien ustez, seme-alabek laguntza gehiago jaso beharko lukete, ikasgelaz kanpoko eskola-jardueretan parte hartzen dutela segurtatzeko; esate baterako, jangelan, patioan eta eskolaz kanpoko irteeretan. Testuinguru horiek heziketako aldi klasikoan moduan araututa ez dagoen ikaskuntza informala aukerak dira, baina ikasteko eta berdinekin integratzeko eta sozializatzeko aukera garrantzitsuak ematen dituzte. Familia gehienek (%71,2) uste dute haien seme-alabek laguntza jaso beharko luketela testuinguru horietan. %74 ados dago seme-alabek jarduera ez-akademikoetan parte hartzearekin; esate baterako, jaietan eta ibilaldietan.

Familien ehuneko handi horrek uste du seme-alabek laguntza gehiago jaso behar luketela irakaskuntzaz kanpoko espazioetan integratzeko, eta hori ez dator bat laguntzako profesionalen balioespenarekin; izan ere, zeregin horiek ikastetxeetarako lehentasun handiegia dutela uste dute.


IKASGELATIK KANPO PARTE HARTZEKO LAGUNTZAK JASOTZEKO ADOSTASUNARI BURUZKO EHUNEKOAK

	Familiak	Kontsultaria	PTko irakaslea
Jangelan, patioan... parte hartzeko laguntza	71,2	13,6	17,8
Jarduera ez-akademikoak: jaiak, ibilaldiak	74	25	20

• Hezkuntza-baliabideekiko asebetetze-maila

CNE duten ikasleei erantzuteko, hezkuntza-sistemak hainbat baliabide ditu: garraioa, berariazko ikasgelak, auxiliarrak eta abar. Seme-alabek erabiltzen dituzten baliabideen eta horien egokitzapenaren berri ematen dute familiek, eskuragarritasun- eta hezkuntza-beharrei erantzuteko.

53 irudia. CNE duten ikasleen hezkuntza-baliabideak



Familien %73ren iritziz, seme-alabek erabiltzen dituzten hezkuntza- eta eskuragarritasun-baliabideak egokiak eta nahikoak dira.

HEZKUNTZA-BALIABIDEEN BALIOESPENA

Egokiak eta nahikoak	73,1%
Urriak	24%
Ez dira egokiak	1%
ED/EDE	1,9%

3. CNEREN FUNTZIONALITASUNA

• CNERen balorazioa

Atal honetan, CNE bat egiteko hurrengo taulan adierazitako alderdien egokitasunari buruz laguntzako profesionalak eta tutoreek egiten duten balioespena ageri da.


	PTko irakasleak	Kontsultaria	Tutorea
Administrazio-izapidea	40,4	41,3	30,4
Baliabideak lortzeko erabilgarria	65,7	69,6	58
Programaziorako erabilgarria	79,8	82,6	75
Helburuak lortzeko eraginkorra	78,7	78,3	84,8
HPB bereizteko erabilgarria	78,1	82,6	83
Gizarteratzeko erabilgarria	40,4	41,3	56,3

Curriculum egokituta duten ikasleen laguntzako profesionalen eta tutoreen %75ek baino gehiagok uste du CNEak erabilgarriak direla programazio didaktikorako, helburuak lortzeko eta ikasleen hezkuntza-beharren berri izateko.

Baliabideak lortzeko CNEen erabilgarritasunari dagokionez, ados dauden ehunekoak %58 eta %70 artekoa da. CNE administrazio-izapide hutsa dela uste duten irakasleen ehunekoak askoz ere txikiagoa da, bai eta gizarteratzeko tresna erabilgarria dela uste dutenena ere.

Hurrengo grafikoan, CNEen erabilgarritasunari buruzko baiezeko erantzunak soilik biltzen dira. Laguntzako bi motatako profesionalen eta tutoreen iritzia antzekoak direla hautematen da.

54 irudia. CNEren erabilera



• CNE ikasgelako programazioan integratzearen zailtasun-maila

CNE duten ikasleen tutoreari haren lanaren zailtasunari buruz galdetu zaio, curriculum-egokitzapena ikasgela arrunteko programazioan integratzeko arduraduna den aldetik.

Tutoreen %31,3ren ustez zailtasun berezirik gabeko zeregina da. Tutoreen %4,5entzat erraz egiteko modukoa da. Dena den, gehienentzat, %41entzat, zeregin zaila da, eta horien %17rentzat, oso zeregin zaila. Laburbilduz, tutoreen erdia baino gehiagorentzat (%58) ikasgelako programazioan integratutako CNE bat garatzea ikasgelan zeregin zaila edo oso zaila da.

Zeregin konplexua zergatik den galdetuta, jasotako 141 erantzunak honela bil daitezke:

– Ikasgelako aniztasunari erantzutea zaila delako eta hezkuntzan banan-banan esku-hartzeko metodologia-arazoak daudelako (%36,62).

- Ikasleen zailtasunengatik (%9,9).
- Ikasgelako giza laguntzaren faltagatik (%4,96).
- Material egokien faltagatik (%2,12).
- Tutoreentzat gehiegizko esfortzua eskatzen duelako (%2,12).

Ikasgelako programazioan CNE integratzea normala edo erraza dela uste duten irakasleen iritzia aurreko taldeak planteatutako arazoaren konponbidea da berez. CNE eta ikasgelako programazioa uztartzea erraza dela diote, eta horren arrazoiak eman dituzte:

- Ikasgelan giza laguntzak egotea (%25,53).
- Beste profesional batzuen laguntza eta profesional askoren koordinazioa (%5,67).
- Ikastetxeko edo ikasgelako metodologia malgua, banakako arreta emateko (%4,25).
- Egokitutako materialen erabilera (%4,25).

Laburpen gisa, honako hau ondorioztatzen da:

CNE bat egiteko faseei buruz

- Familia gehienek badakite seme-alaben curriculuma Curriculuma Norbanakoari Egokitzea (CNE) delakoan jasota dagoela.
- Ikastetxeko PTko irakasleek eta irakasle kontsultariak beren burua CNEak egitearen sustatzailetzat dute.
- CNE egiteko zereginetan, irakasle kontsultariak eta PTko irakasleek hautematen dute lankidetzarik handiena CNE duten ikasleen tutoreen eta ikastetxeetako laguntzako profesionalen artean ematen dela. Lankidetzako ehunekorik handiena "edukiak egokitzea" eta "CNE ebaluatzea" zereginei dagokie.
- CNEen jarraipena modu koordinatuan egiten da gehienetan, eta laguntzako profesionalak eta tutoreak elkarlanean jarduten dute.
- CNEen jarraipena hiru hiletik behin egiten da, batez beste, laguntzako profesionalen arabera. CNE duten ikasleen tutoreak diote PTko irakasleekin koordinatzen direla gehien.

CNEen funtzionaltasunari buruz

- CNE duten ikasleen laguntzako profesional eta tutore askok uste dute CNEak erabilgarriak direla programazioa egiteko, helburuak lortzeko eta ikasleen banakako hezkuntza-beharren berri izateko.
- Tutoreen %58k uste du CNE ikasgelako programazioan integratzea zeregin zaila edo oso zaila dela.

Hezkuntza-erantzunarekiko familien asebetetze-mailari buruz

- Familia gehienek ustez, egokia edo oso egokia da seme-alabek ikasgela arruntean (%88) eta laguntzako ikasgelan (%93) jasotzen duten arreta.
- Familien ustez, seme-alabei ematen zaien hezkuntza-programa egokia da, batez ere ikasgela arruntaren eta laguntzako ikasgelaren arteko esku-hartzea orekatua bada.
- Ikastetxeko profesionalekin izandako elkarrizketei buruzko asebetetze-maila oso altua da (%99). Ona iruditzen zaie ikastetxearekin duten komunikazioa, eta konfiantza dute irakasleengan.
- Familien %86k dio seme-alabek behar dituzten laguntzako baliabideei buruzko erabakietan entzun egiten zaiela.
- Familien %75ek uste du markatutako helburuak eta seme-alabekiko itxaropenak bat datozela ikastetxekoenkin.
- Familien %70ek baino gehiagok uste du ikasgela arruntetik kanpo egindako jardueretan integratzeko laguntzak hobetu egin behar direla (patioak, jaiak, ibilialdiak...)
- %73rentzat seme-alabek erabiltzen dituzten eskuragarritasun- eta hezkuntza-baliabideak egokiak eta nahikoak dira. Gehien erabiltzen diren berariazko hezkuntza-baliabideak laguntzako ikasgela eta logopedia dira. Hezkuntza-laguntzako espezialista (laguntzailea) ez da hainbeste erabiltzen.
- Oro har, familiak pozik daude seme-alabei ematen zaien hezkuntza-arretarekin.

ERANSKINAK

1. Ikerketaren ezaugarriak
2. Ikerketan erabilitako terminoen glosarioa
3. EAEko HPB dituzten ikasleen arretari buruzko arautegia
4. Bibliografia

4

1. ERANSKINA: Ikerketaren ezaugarriak

2003-2004 ikasturtean egindako Lehen Hezkuntzako ebaluazioaren testuinguruan, HPB azpisistemari buruzko berriazko ikerketa egitea planteatu da. Izan ere, eskola inklusiboaren ikusmoldeak, egokia da eskolaren testuinguruari buruzko planteamenduak globalki balioestea, HPB dituzten ikasleei dagokienez. Lehen Hezkuntzako ebaluazio orokorreko azpiegitura bera erabili da, eta zenbait baldintza ikerketaren eskakizunei moldatu zaizkie.

• Metodologia

Azterketa batik bat deskribatzailea da, inklusio-prozesuan eragiten duten dimentsio kualitatiboen azterketa barne hartzen duena.

Aldagai hauek deskribatzen dira:

1. Ikastetxeak: baliabideak, HPBekin lotutako ikastetxeko prestakuntza-jarduerak, HPB dituzten ikasleen hezkuntza-erantzuna antolatzeko irizpideak, arreta-lehentasunak eta abar.
2. HPB batzuk dituzten ikasleei arreta ematen dieten profesionalekin lotuta: CNE eta beste HPB dituzten ikasleen laguntzako profesionalak eta tutoreak.
3. Hezkuntza-erantzunarekin lotuta: CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasleei ematen zaien arreta-mota, arreta-esparruak eta abar.
4. Familiakoak: familia-egitura, baliabideak, eskola-esparruarekiko lotura, parte-hartzea eta asebetetze-maila.
5. CNEen berriazko azterketa, HPB jakin batzuk dituzten ikasleei erantzuteko neurri gisa.

HPB dituzten ikasleei emandako erantzunaren azterketa kualitatiboak eskola inklusiboko zenbait adierazle hartzen ditu erreferentziatzat; honako hauek:

1. Arreta ahalik eta ingurune normalizatuenean ematea.
2. Ikasleen HPBei eta curriculum-egokitzapenei egokitutako banakako irakaskuntza.
3. Irakasleei laguntza ematea.
4. Profesionalen koordinazioa.
5. Familien parte-hartzea.
6. Asebetetze-maila.

• HPBko azpisistemari buruzko ikerketaren lagina

Ikerketa honetako lagina eta 2004ko Lehen Hezkuntzako ebaluaziokoa bat datoz, eta EAEko Lehen Hezkuntzako ikasleen lagin adierazgarria da.

Ikerketa ebaluazioa egindako ikastetxeetan egin da, eta, beraz, ez da ikerketa adierazgarria, aukeraketa ez baita egin HPB dituzten ikasleen arabera, CNE duten seme-alaben familien edo laguntzako irakasleen kopuruaren arabera. Dena den, profesionalen, ikastetxeen eta kontsultatutako familien datu asko bildu direnez, HPB dituzten ikasleei erantzuteari dagokionez, Lehen Hezkuntzako ikastetxeen hezkuntza-planteamenduaren lagin egokia da.

Lagina Lehen Hezkuntzako 101³¹ ikastetxek osatzen dute; hona hemen ikastetxe horiek nola dauden banatuta:

- Arabako 15 ikastetxe.
- Bizkaiko 61 ikastetxe.
- Gipuzkoako 25 ikastetxe.

(31) 2004ko Lehen Hezkuntzako ebaluazioan lagina 111 ikastetxekoa da. Ikus Lehen Hezkuntzako ebaluazioko laginaren deskribapena.

• Ikerketaren tresnak

Ikerketa bi informazio-iturritako HPBei buruzko datuetan oinarritzen da:

1. Lurralde Ordezkaritzen datu-baseak: lagineko ikastetxeen ezaugarriak, baliabide bereziak eta CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasleak.
2. Profesionalei eta CNE duten ikasleen familiei zuzendutako galdeketak.

• Galdeketa-motak

HPBei buruzko informazioa biltzen da, galdera itxiak edo *Likert motako* iritzi-galderak dituzten galdeketak erabiliz, kolektibo hauei zuzenduak:

- Zuzendaritza eta Ikasketa-burutza: HPBekin lotutako ikastetxeko egoera orokorra biltzen du.
- Irakasle kontsultariak: CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasleekin lotutako zereginak biltzen ditu.
- Pedagogia Terapeutikoko eta Entzumen eta Hizkuntzako irakasleak: CNE eta beste HPB batzuk dituzten ikasleekin lotutako profesional horien berariazko zereginak biltzen ditu.
- CNE duten ikasleen tutoreak: programazioa, jarduerak eta ikasgela arruntaren antolaketa.
- CNE duten ikasleen familiak: seme-alaben hezkuntzarekin lotutako familien iritziak biltzen ditu.

• Galdeketak banatzeko irizpideak

Lagineko 101 ikastetxeak erreferentziatzen hartuta, galdeketen banaketa honela egin da:

- Lagineko ikastetxe guztietako Zuzendaritza eta Ikasketa-burutza.
- PTko irakasleak, Entzumenekoak eta Hizkuntzakoak edo Ikasgela Bereziko beste modalitate batekoak: lagineko ikastetxe bakoitzeko guztiak.
- Kontsultariak. Lagineko ikastetxe bakoitzeko guztiak.
- CNE duten Lehen Hezkuntzako 1., 2., 3., 4. eta 5. mailan eskolatutako ikasleen tutoreak. Kasuak aukeratu dira, lehentasun hauek aintzat hartuta:
 - Gehienez hiru kasu ikastetxeko.
 - CNE esanguratsua duten ikasleak.
 - Sartzeko egokitzen dituzten ikasleak: ezgaitasun sensoriala edo mugitzeko urritasuna dutenak.
 - Gehienez CNE bat ikasgelako.
- Familiak: galdeketa betetzeko aukeratu dituzten tutoreen ikasleen familiei bidaliko zaie galdeketa.

LAGINEKO IKASTETXE-KOPURUA ETA BALIABIDE BEREZIAK

Lagina: Lehen Hezkuntzako 101 ikastetxe	Galdeketa-kopurua
Ikasketa-burutza	101
Kontsultariak	46
Laguntzako irakasleak (PT-EHI...)	207
CNE duten ikasleen tutoreak	133
CNE duten ikasleen familiak	141*
GUZTIRA	628

* 8 familiak, ikastetxe arruntako ikasgela egonkorrean eskolatutako seme-alabak dituztenak, irakasle tutorerik gabe, dagokien galdeketa bete dute.

Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztiak (543 ikastetxe) kontuan hartuta, ikerketa honi dagokion laginak, ausaz aukeraturako 101 ikastetxe —profesional askok parte hartzen dutela—, balio handia ematen die datuei; izan ere, biztanleria guztiari estrapolatzeko moduko adierazpenik ezarri ezin den arren, HPB dituzten ikasleei ematen ari zaien erantzunari buruzko ikastetxeen eta hezkuntza-sistemaren joerak marrazteko aukera ematen du.

• HPBko galdeketen erantzunen ehunekoa

Hasierako lagina erreferentziatzat hartuta —hots, aurreko koadroan aurkeztutako 101 ikastetxeko laginean adierazitako profesionalak, ikasleak eta irakasleak—, kasu guztietan lortutako galdeketen erantzunen ehunekoak ISEI-IVEIren ebaluazio-prozesuan adierazitako kalitate-irizpideei egokitzen zaizkie.

Galdeketei erantzun dieten profesionalen eta familien ehunekoa altua dela esan daiteke.

HASIERAKO LAGINAREN ARABERA AURREIKUSITAKO GALDEKETAK ETA LORTUTAKO ERANTZUNEN %

Galdeketak	Bidalitakoak	Bildutakoak	erantzunen %
Ikasketa-burutza	101	88	%87,1
Kontsultariak	46	46	%100
Laguntzako irakasleak (PT-EHI...)	207	178	%85,9
HPB dituzten ikasleen tutoreak	133	112	%84,2
HPB dituzten ikasleen familiak	141	104	%73,7
GUZTIRAKOAK	628	528	%84

Talde bakoitzean hezkuntza-sarearen arabera lortutako erantzunen kopuruak hauek dira:

	Publikoa	Pribatua	Guztira
Kontsultariak	46	0	46
PTko eta EHko irakasleak	122	56	178
HPB dituzten ikasleen tutorea	70	42	112
Familiak	65	39	104

2. ERANSKINA: TERMINOEN GLOSARIOA

Berritzegune

Inguruko hezkuntza-laguntzarako zerbitzua, hezkuntza berritu eta hobetzeko unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-mailetan. Hezkuntzako kidego eta maila guztietako irakasleek osatzen dituzte. Hauek dira Berritzeguneen helburuak:

- Eskola-barrutiak dinamizatzea.
- Hezkuntzako esku-hartzea berritzea eta hobetzea.
- Irakasleen etengabeko berritzea lantzea.
- Ezgaitasunen bat eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako hezkuntza-erantzuna erraztea.

Organikoki, Lurraldeko Ordezkaritzen mende daude; funtzionalki, berriz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzaren mende.

Curriculumaren Norbanakoari Egokitzea (CNE)

Curriculumaren elementuetan (helburuak, edukiak, ebaluazio-irizpideak, metodologia, antolaketa) egiten den aldaketa oro; aldaketa horiek ikasle batek eskolatzeko-aldian izan ditzakeen aldi baterako hezkuntza-premia bereziei, edo hezkuntza-premia iraunkorrei erantzuteko egiten dira.

Curriculumaren Norbanakoari Egokitze garrantzitsua (CNE)

Ohiz kanpoko neurria da. Horren bidez, aldaketa garrantzitsuak egiten dira curriculumaren aginduzko elementuetan, eta arlo, ziklo, edo etapa bateko edo batzuetako helburu garrantzitsuak egokitzen edo kentzen dira.

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, Curriculumaren Norbanakoari Egokitze garrantzitsutzat hartzen da ikasleak eskolatuta dagoen ziklokoa edo etapakoa ez den curriculumaren duenean erreferentea.

Entzumen eta hizkuntzako irakasleak

Irakasleen kidegokoak dira, eta gaikuntza berezia dute entzumenean eta hizkuntzan. Profesionalekin batera egiten dute lan zailtasunak identifikatzen eta egokitzapenak prestatzen. Hizkuntzaren gaikuntzako eta berreziketako programetan esku hartzen dute, ezarritako arauen arabera.

Hezkuntza-premia bereziak (HPB)

Eskolatzearen epe batean edo eskolatzeko osoan, ikasle batzuek dituzten hezkuntza-laguntza eta -arreta jakinen beharrak. Arrazoi hauek egon daitezke behar horien jatorrian: ezgaitasun fisikoak, psikikoak edo sentorialak, jarrera nahaste larriak, gizarte- edo kultura-egoera ahuletan egotea, etab. Adimen-gaitasun handiekin lotutako baldintza pertsonalek eragindako berriazko arreta beharrak ere hemen sartzen dira.

Hezkuntza-premia berezien aholkulariak

Berritzeguneetan talde integratua osatzen duten psikologoak eta pedagogoak dira. Hauek dira aholkulari horien helburuak: hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen diagnostiko psikopedagogikoa, eskolatzeko-proposamena eta jarraipena egitea, baita aholkularitza eta orientazioa ematea ere irakasleei eta laguntzako profesionali. Inguruko beste zerbitzu komunitario batzuekin koordinatzeaz gain, aholkulari horien funtzioak dira inguruko HPB dituztenen arretan lan egiten duten profesionalen prestakuntza antolatzea.

Hezkuntza-premia berezien kodea

Berritzeguneetako HPBen aholkulariek erabiltzeko kontsultarako eskuliburua da. Ikuspegi psikopedagogikoaren bidez, beharren etiologia, zer arlotan agertzen diren eta motak eta bizitasuna jasotzen du. Hezkuntza-sisteman, erabakiak hartzeko, baliabideak kudeatzeko eta informazioa trukatzeko informazio erabilgarria sintetizatzen dituzten klabeak jasotzen ditu, baita ebaluazioa eta diagnostikoa egiteko irizpideak homogeneizatzen dituzten klabeak ere.

Hizkuntza-ereduak (A, B eta D)

- **A eredia**, curriculum osoa gaztelaniaz ematen da, eta euskarako irakasgaia ematen da.
- **B eredia**, curriculumaren arlo batzuk euskaraz ematen dira; beste batzuk, berriz, gaztelaniaz.
- **D eredia**, curriculum osoa euskaraz ematen da, gaztelaniako eskola izan ezik.

Ikasgela egonkorra

Ikasgela-mota hori ikastetxe arruntetan sortzen da, egokitzapenak izandako curriculum arruntari jarraitu ezin dion edo curriculum horren zati bat soilik parteka dezakeen ikasleari erantzuteko.

Ikasgela horrek baliabide egonkor batzuk ditu, eta bertan arreta jasotzen dutenen beharren arabera izaten dira; behar horiek larrizat edo iraunkortzat hartzen dira.

Ikasle gorrentzako ikasgela

Ikastetxe arruntetan ikasle gorren arretarako prestatutako ikasgela da. Beharrezko baliabide guztiak izaten ditu, baita zeinu-hizkuntza erabiltzen duten irakasleak eta ahozko gaikuntzarako logopedak ere.

Integrazioa

Heziketa Bereziko Planean jasotako printzipioetako bat da. Helburu hau du: hezkuntza-premia bereziak dituen ikasleak ahalik agerpen fisiko eta parte-hartze handiena lortzea ikaskuntzan, jolasean eta eskolako eguneroko bizitzan sozialean, bere berdina direnekin.

Itsuen baliabidetegia (IBT)

Itsuen baliabidetegia lurralde-mailako hezkuntza-laguntzaren zerbitzu bat da; itsuak diren edo ikusmen-urritasuna duten ikaslearekiko zuzeneko esku-hartzera, materialen egokitzapenera eta ikasle horien irakasleentzako aholkulartzara bideratzen da. Inguruko beste laguntza-zerbitzu batzuekin eta familiekin ere egiten du lan.

Laguntza teknikoak

Ezgaitasunak dituztenek erabilitako materialak; helburua pertsonaren muga edo gabezia funtzionalak ordezkatu edo murriztea da, autonomia lortzeko eta bizi-kalitatea hobetzeko. Laguntza teknikoak dira komunikazio-atakiak, likornio-buruak, egokitutako periferikodun ordenagailua, gupildun aulkiak, aulkiekin iristeko beldarrak, etab.

Laguntza gela

Beharrak dituen ikaslearen eskolatzeari ematen zaion laguntzako baliabidea da; pentsatzen da ikasle horiei ezin zaie la erantzun ikasgela arrunteko baliabideekin soilik. Ikasgela-mota hori ikastetxean bertan egoten da.

Ikasleei ematen zaie arreta egindako beharren azterketaren eta testuinguru-ebaluazioaren mende dago, eta, kasuen arabera, banakakoa nahiz taldekakoa izan daiteke. Ikasgela horretako irakasleak pedagogia terapeutikoko gaikuntza du.

Normalkuntza

Heziketa Bereziko Planean jasotako printzipioetako bat da. Hezkuntza-premia bereziak dituztenek komunitatearen zerbitzuen sistema arruntetan jasotzea arreta; ezinbestekoa denean soilik emango zaie arreta zerbitzu berezien bidez.

Pedagogia terapeutikoko irakaslea (PT)

Irakasleen kidegokoa da, eta beharrezko gaikuntza du. Bere zeregin bat HPB dituzten ikasleekin esku-hartzera da, bai ikasgela arruntetan, bai laguntzako ikasgelan. Bere zereginak dira, halaber, irakasle arruntei eta familiei egokitzapenak egiten laguntzea.

Sektorizazioa

Heziketa Bereziko Planean jasotako printzipioetako bat da, eta hezkuntzaren zerbitzuak ikaslearen ohiko ingurunera hurbiltzea eta egokitzea eskatzen du. Horrek, gainera, zerbitzu horiek antolatzea eskatzen du, geografia-sektoreen, biztanleriaren eta beharren arabera.

Zeharkako arreta

Laguntzako profesionalek ikasleekin egiten dituzten, baina zuzenekoak ez diren esku-hartzeak. Arreta hori HPB dituzten ikasleen ohiko irakasleei eta tutoreei aholkuak emanez eta haiekin lan eginez betetzen dute, horiek izango baitira ekintza plangintzaren arabera gauzatuko dutenak.

Zuzeneko arreta


Laguntzako profesionalek ikasleekin egiten dituzten hezkuntzako esku-hartzeak. Esku-hartzeak banaka egin daitezke, edo banaka, baina talde txikietan.

3. ERANSKINA: HPB dituzten ikasleen arretari buruzko araudia EAEn

- 118/1998 DEKRETUA, ekainaren 23koa, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duena.
- AGINDUA, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, beharizan bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistema-ko maila guztietara helarazteko.
- AGINDUA, 1998ko uztailaren 24koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat hurrengo hauek arautzen dituena: alde batetik, curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien baimena eta, bestetik, ez-unibertsitatekoa den hezkuntza-sistema-ren etapetan egokitzapen horiek egiteko, garatzeko eta ebaluatzeko prozedura.
- AGINDUA, 1998ko uztailaren 30ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntzaren arloko hainbat ekintza eta neurri arautzen dituena, gizarte edo kulturaren ikuspegitik besteak baino egoera txarragoan diren ikasleentzat eta eskolara egokitzeko zailtasun handiak dauzkaten ikasleentzat.
- ERABAKIA, 1998ko uztailaren 24koa, Hezkuntza Sailordetzarena, aparteko gaitasunak edukitzeagatik heziketa-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren aldetik eman beharreko erantzuna nondik nora bideratu arautzen duena.

4. ERANSKINA: BIBLIOGRAFIA

- AINSCOW, M. (1994). Educación Inclusiva. Hezkuntza-premia bereziei buruzko munduko batzarra. UNESCO.
- AINSCOW, M. (2001). Desarrollo de Escuelas Inclusivas. Ideas, propuestas y experiencias para mejorar las instituciones escolares. Madril: Narcea
- AINSCOW, M. eta BOOTH, T. (2005). *Guía para la evaluación y mejora de la educación inclusiva*. (Ana Luisa López, itzul.) *Hezkuntza inklusiboa ebaluatze eta hobetzeko gida*. (Bitez, itzul.). Gasteiz. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (jatorrizkoa 2000. urtean argitaratu zen).
- CEI-IDC (1999). Euskal Herriko Araudia hezkuntza-premia bereziei buruz. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUROPAR BATZORDEA HEZKUNTZA ETA KULTURAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA (2002). Educación y Formación en Europa: sistemas diversos, objetivos compartidos para 2010. Competencias clave para un aprendizaje a lo largo de la vida. Un marco de referencia Europeo.
- EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUA (2005). EAEko irakaskuntzaren egoerari buruzko txostena.
- EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA (1983). EAerako Hezkuntza Bereziko Plana. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO JAURLARITZAREN HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA (1989). Eskola muinbakar eta integratzailea. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA (2004). Necesidades y accesibilidad de las personas con discapacidad en la CAPV. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- DYSON, A. (2001a). Dilemas, contradicciones y variedades de la inclusión in M. VERDUGO eta F. JORDÁN DE URRÍES (koord.) (2001) *Apoyos, autodeterminación y calidad de vida*. Salamanca: Amarú.
- DOWLING, E.; OSBORNE, E. (1996). Familia y escuela. Una aproximación conjunta y sistémica a los problemas infantiles. Bartzelona. Paidós.
- ECHETA, G. eta SANDOVAL, M. (2002). Educación inclusiva o educación sin exclusiones. *Revista de Educación*, 327, 31-48.
- EURYDICE Europar Agentzia, Unitate Nazionalen laguntzaz (2003). *Special Needs Education in Europe*.
- OCHOA DE ALDA, I. (1995). Enfoques en terapia familiar sistémica. Bartzelona. Herder.
- PARRILLA, A (koord.) (2002). Monográfico de Educación Inclusiva. *Revista de Educación*, 327. zk.
- PERINAT, A.; LALUEZA, J. L. (kol.); SADURNÍ, M. (kol.) (1998). *Psicología del desarrollo: Un enfoque sistémico*. Bartzelona: EDHASA
- SANDOVAL, M. et al. (2002). Index for inclusión: una guía para la evaluación y mejora de la educación inclusiva. *Contextos educativos*, 5, 227-238.
- SCHALOCK, R.L. (1995). Implicaciones para la investigación de la definición, clasificación y sistemas de apoyo, de la MMR de 1992. *Siglo 0*, 157. zk., 5.-13. or.
- VERDUGO M. A. (1994). El cambio de paradigma en la concepción de retraso mental: la nueva definición de la AAMR. *Siglo 0*, 153, 25. lib., 5.-24. or.
- WARNOCK, M. (1981). Informe sobre Necesidades Educativas Especiales in *Siglo 0*, 130. Uztaila-abuztua, 1990.



ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

ISEI•IVEI (Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea)

Asturias 9, 3º - 48015 Bilbao / Tel.: 94 476 06 04 / Fax: 94 476 37 84 / info@isei-ivei.net / www.isei-ivei.net